

MUSIKA

sorkuntzako
emakumeen
eta gizonen
EGOERA EAEn

AINARA LEGARDON PÉREZ



KULTURA AUZOLANEAN

Argitaraldia: 1.a. 2020ko ekaina

Ale-kopurua: 70

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Ainara LeGardon Pérez

Koordinatzaileak:

Kualitate Lantaldea, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza-Kulturaren Euskal Behatokia

Itzultzailea: José Mari Navascués Baskaran

Diseinua eta konposizioa: Mooneki

Inprimategia: Eusko Jaurlaritzaren Erreprografia Zerbitzua

ISBN: 978-84-457-3548-0

Lege-gordailua: LG G 00385-2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

MUSIKA
sorkuntzako
emakumeen
eta gizonen
EGOERA EAEn

Ainara LeGardon Pérez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

AURKIBIDEA

1. Aurkezpen orokorra

- 1.1 Ikerketaren justifikazioa
- 1.2 Helburuak
- 1.3 Kontzeptu-esparrua

6

7

8

8

2. Azterketa kuantitatiboa: emakume sortzaileen egoerari buruzko datuak euskal musikaren hainbat arlotan

- 2.1 Sektoreko elkarreetan parte hartzea
- 2.2 Musika-kreazioak
- 2.3 Lehiaketak, sariak eta laguntzak
- 2.4 Hezkuntza eta prestakuntza arloak
- 2.5 Musika-zirkuituak, musika-kritika eta entzuteko ohiturak

10

12

14

17

25

31

3. Azterketa kualitatiboa eta hausnarketak	46
3.1 Testuinguratze soziopolitikoak	47
3.2 Ikerketan errepikatu diren gaiak	49
3.2.1 Erreferenteen falta	49
3.2.2 Sexu-estereotipoak musikan	51
3.2.3 Emakumeek amore ematen duten unea	55
3.2.4 Legitimazioa	57
3.2.5 Kuotak eta diskriminazio positiboa	59
3.2.6 Soldata-arrakala	60
3.2.7 Erantzukizuneko postuak: denbora kontua al da (bakarrik)?	61
4. Esperientziak eta ekintza inspiratzaileak	62
4.1 Aldizkako batzar ez-mistoak	63
4.2 Elkarrekin eta kolektiboak	66
4.3 Mentoretzako, prestakuntzako eta emakumeei laguntzeko programak	68
4.4 Datu baseak	69
4.5 Jardunbide egokien eskuliburuak eta kodeak	70
5. Ondorioak eta proposamenak	72
5.1 Lantalde egonkorra sortzea eta sendotzea	73
5.2 Mentoretzako eta prestakuntzako programak	73
5.3 Genero-ikuspegia duen Jardunbide Egokien Eskuliburua egitea	74
6. Eranskinak	75
6.1 Metodologia, jardunbideak eta oharrak	76
6.2 Kontsultatutako bibliografia eta baliabideak	80
6.3 Elkarriketatuen taula	83



1. AURKEZPEN OROKORRA

Ikerketa honek euskal musika-sorkuntzaren arloan emakumeek bizi duten egoera aztertzen eta analizatzen du. Emakumeen presentzia eta ikusgaitasuna ez ezik, nola eta zergatik ikusarazten diren edo ez diren ere aztertzen da, egun emakume sortzaileengan eragina duten faktore edo baldintza anitz kontuan hartuz.

1.1 IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Proposatutako arloan ez da ezagutzen emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun egoera eta ikusezin bihurtzen da larriki; horixe da, hain zuzen, ikerketa honen beharra planteatzeko arrazoi nagusia.

Datuen arabera, diziplina artistiko guztien artean, musika da maskulinizatuena, antzerkia, dantza, arte plastikoa eta bisuala eta literatura baino askoz gehiago.¹

Ikerketa-gaiari buruzko bibliografia espezializatua urria da (askoz urriagoa Euskal Herrian), eta dauden testu eta baliabide gehienak ez daude eguneratuta.

Erreferentziako lanetako bat hauxe da: *“Las mujeres en la producción artística de Euskadi”*², Emakunde argitaratua, 1994an. Testu horren eta beste batzuen laguntzaz, testuinguru historikoan jar daiteke, baina, orain dela urte asko egindakoak direnez, ez dute kontuan hartzen esparru digitalean gertatzen den kulturaren errealitate aldakorra. Azken mende laurdenean, aurrerapen teknologikoei esker, sortzeko eta hedatzeko eredu berriak eratu dira eta, halaber, ugaritu egin dira arte-proiektuen autogestioa bultzatu eta erraztu duten inguruneak. Musika-sorkuntza garaikidea ezin da ulertu, artelanak ekoizteko eta hedatzeko gaur egungo esparrua kontuan hartu gabe, ezta oraingo testuinguru soziopolitikoaz jabetu gabe ere.

Ikerketa honen emaitzen asmoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jarrera positiboa ematea da, zenbait proposamen eta jardunbide onargarri eta erabilgarri eskainiz, arlo anitzetarako; besteak beste, baldintza berdinetako lan-kontratuak, sorkuntza pizteko estimulua, asoziazionismoa eta emakumeen ahalduntzea, prestakuntza eta trebakuntza estrategien bidez.

¹ “Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales 2017, 1ª versión” izeneko txostenetik lortutako datuak. Txosten hori Eusko Jaurlaritzaren “Genero Politikak eta Programak”-Kultura Auzolanean 2018-2019- proiektuaren barruan garatu da. Argitaratzeke dago.

² http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/es_emakunde/adjuntos/informe.08.mujeres.produccion.artistica.euskadi.cas.pdf

1.2 HELBURUAK

- Euskal Herrian, musika-arloan jarduten duten emakume sortzaileen egoeraren diagnostikoa adieraztea.
- Egoera horri buruzko hausnarketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ekintza inspiratzaileak zerrendatzea eta ekintzen, jardueren eta jardunbide egokien proposamen estrategikoak egitea.

1.3 KONTZEPTU-ESPARRUA

Ikerketa-lan hau egiteko iturri izan diren azterketak eta txostenak abiapuntutzat hartuta, datuen arabera ondoriozta daitekeenez, musikaren arloan desberdintasun larria nabaritzen da emakumeen presentziari, parte-hartzeari eta lorpenak aitortzeari dagokienez, gizonak musika-sorkuntzan duten presentzia eta parte-hartzea adierazten dituzten zifrekin alderatuz.

Musikologiako eta soziologiako zenbait argitarapenetan, diskriminazio historikoa adierazi egiten da eta testu horien arabera, datu kuantitatiboak testuinguruan jar daitezke. Gai hori aztertzeko, ezinbestekoak dira Mercedes Zavala, Pilar Rius edota Maria Luisa Ozaita konpositoreen ekarpenak eta, halaber, Josemi Lorenzo musikologoarenak ere.

"...Iraganera begiratzea ez da ekintza nostalgikoa edo konpentsatzailea, aitzitik, beharrezkoa da, emakumeak gure imaginarioan musika-sortzaile gisa aitortzeko aukera izan dezaten." (Mercedes Zavala: "Estrategias del olvido: apuntes sobre algunas paradojas de la musicología feminista"³, 2009).

Halaber, beharrezkoa da EAEko, estatuko eta nazioarteko gaurko egoera soziopolitikoa aztertzea, eta ekimenak abian jartzea, kreakzio kulturalaren arloan genero-berdintasuna lortu ahal izateko.

Egituraketa soziokultural historikoak babestuta, sexuan eta generoan oinarritzen den desberdintasun-sistema androzentriko eta heteropatriarkalak emakume eta gizonen arteko egoera bereizle eta desorekatuak sortzean duen eragina aztertzea da ikerketa honen asmoa⁴. Horretarako, musika-sorkuntzarekin lotutako alderdi hauek kontuan hartu ditugu:

- **AUTORETZA:** autoreak dira, bakarrik zein taldean, musika-lanaren konposizio musikala eta/edo letra sortzen dutenak. Autoretza-eskubideen titularrak dira.
- **INTERPRETAZIOA:** artista interpretatzaileak edo jotzaileak musika-lana interpretatzen edo jotzen dutenak dira, musika-lanak eurek sortutakoak izan ala ez. Musika-lanari biritza ematen diote eta, beraz, sortzailetzat jotzen dira. Ikerketa honetan, zuzeneko interpretazioak (kontzertuak) zein "jardun finkatuak" deritzenak, hau da, hainbat euskarritan grabatutako interpretazio musikalen fonogramak eta grabazioak kontuan hartu dira. Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, orkestra zuzentzaileak ere profil honetan sartzen dira.
- **EKOIZPENA:** Fonogramen ekoizleak Jabetza Intelektualaren Legean azaltzen dira, honelaxe zehaztuta: ekoizlea da, bere kabuz eta erantzukizunez, musika-lanaren interpretazioaren soinu hutsa lehenbiziko aldiz finkatzen (grabatzen) duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

³ <http://www.mujelesenlamusica.es/wp-content/uploads/2016/11/2009-Paradojas-musicologi%CC%81a-feminista-M.-Zavala.pdf>

⁴ Aintzakotzat hartzeko moduko gaia bada ere, oinarritzko planteamendu honetan ez dugu aztertu binakakoak ez diren beste genero-identitate batzuekin lotutako alderdirik.

Artista interpretatzailearen eta fonogramen ekoizlearen profila dutenak jabetza intelektualaren eskubide hurkoen titularrak dira. Profil horiek independenteak dira eta bateragarriak eta metagarriak dira autorearen profilarekin. Ohikoena fonogramen ekoizleak disko etxe gisa jardutea bada ere, badira, halaber, euren musika-lanak ekoizti eta, disko etxeen bitartekotzaren premiarik gabe, jendaurrean saltzen dituztenak; aipagarria da batez ere EAEn. Nork bere musika-lanak ekoiztea edo autogestioa egitea, txosten honetan azaldu dugun errealtatearen parte bat da.

Ikerketa honetan, emakumeek sortutako kreaioek hedabideetan zein eskainitako musika ekitaldietan duten ikusgaitasun-maila ere analizatu da eta, halaber, emakume edo gizon izateak presentzian edo egindako lana aitortzean nola eragin dezakeen ere aztertu da.

- **MUSIKA-PROGRAMAZIOA:** musika-programazioari dagozkion datuek lotura handiagoa dute musika-industriarekin, sorkuntza arloarekin baino; hala ere, aretoaren edo jaialdiaren eta bertako musika-programazioa erabakitzen duenaren profilak (esperientzien, kontaktu-sareen eta hobespenen arabera), eragin zuzena dute agertokietan programatzen diren eta emakumeen presentzia duten proiektuen ehunekoan. Bidezkoa da, beraz, txosten honetan musika-programazioaren arloa testuinguruan jartzea. Musika-programatzaileak edo sustatzaileak, definizioz, kontzertuak antolatzen dituzten pertsonak edo enpresa publikoak zein pribatuak dira.
- **MUSIKA-KRITIKA:** garrantzitsua da musika-kritikak duen boterea kontuan hartzea. Eragina du sortzaileengan eta haien sortze-prozesuetan, publikoan eta haren ohituretan eta baita historiografiari dagozkion alderdietan ere. Hortaz, ikerketa honetan prentsa idatziaz baino ez gara arduratu (aldizkari espezializatuak, musika-sailak dituen prentsa jeneralista, formatu fisikoan zein digitalean), zeren hedabide horretan egin ohi baitira diskoen eta kontzertuen iruzkinak edo kritikak. Hala ere, txosten honetan kontuan hartu dira sortu diren kanal berriak, besteak beste, audioko *streaming* bidez mundu digitalean dagoeneko hedatzen diren *podcastak* edo aukerako irratiak eta baita bestelako formatu hibrido berri batzuk (musika jaialdiak egin dituzten irrati-kanalak, esaterako). Azken horiek sailkatzen zailak badira ere, garrantzi handia hartu dute.
- **MUSIKA ENTZUTEKO ETA MUSIKAZ DISFRUTATZEKO OHITURAK:** musika entzuteko eta musikaz disfrutatzeoko ohiturak oso lotuta daude kreaioak hedatzearekin eta, ondorioz, ekoizpen eta sorkuntza artistikoarekin ere bai. Adierazpen artistiko horiek jaso eta haietan parte hartzen duen publiko bat ez badago, ekoizpena gutxitu egiten da; bai sortzaileen ekarpen edo motibazio faltagatik, bai areto komertzialen zirkuituek edo prentsak laguntzarik ematen ez dutelako. Hala ere, amaierarik gabeko soka da. Kreaio gutxiago ekoizten eta/edo hedatzen den heinean, are jende gutxiagok eskuratu ahal izango du kaleratzen den adierazpen artistikoa, eta alderantziz. Beraz, musika entzuteko eta musikaz disfrutatzeoko ohiturei buruz egin diren txostenek hausnarketa egiteko moduko material garrantzitsua dakarte. Txosten honetan hainbat gai tratatu dira, besteak beste, jendeak musikari buruz duen interes orokorra, musikaz disfrutatzeoko hedabide edo kanalak eta musika erosteko edo doan lortzeko ohiturak eta kontzertuetara joateko maiztasuna. Entzuleei buruzko datu horiek ikuspuntu oso baliagarria ematen dute, publikoak prestatzearekin eta kulturaz disfrutatzearekin zerikusia duten ekintzak sortzeko eta proposatzeko, eta, azken finean, musika-lan sortzaileak gauzatzeko.

Ondorengo metodologian zehatzago azaltzen denez, ikerketa-prozesuan kontuan hartu da, banan-banan, iturrietako bat ere ez da osoa. Denak dira partzialak eta, horregatik, iturri asko kontsultatu behar izan dira. Iturri batzuk datu eta profil estatistiko gisa erabil daitezke. Beste batzuek, ordea, datu horien analisiak egiteko eta hausnarketak eragiteko balio dute, eta beste batzuk, beste arlo kultural eta/edo lurralde batzuetan dagoeneko erabiltzen diren esperientzien araberakoak dira, ekintza inspiratzaile gisa erabil daitezkeenak.



2. AZTERKETA KUANTITATIBOA

2. AZTERKETA KUANTITATIBOA: EMAKUME SORTZAILEEN EGOERARI BURUZKO DATUAK EUSKAL MUSIKAREN HAINBAT ARLOTAN

Azterketa kuantitatibo honetan, bizitza kulturean emakumeek duten presentziaren eta parte-hartzearen ehunekoei buruzko datuak eta zenbakiak kontuan hartu dira, hain zuzen ere, sorkuntza eta ekoizpen musikalari dagozkionak. Datu horiek azken txosten estatistikoaren arabera dira (besteak beste, nazioarteko erakundeek, Kultura eta Kiroleko Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta musika-sektoreko elkarte nagusiek argitaratutakoak).

Horrelako ikerketa batean adierazle garrantzitsuenak erreferentziatzen hartzeko, UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) genero berdintasunari buruz dituen kezka nagusiak eta erakunde horrek garrantzizkotzat jotzen dituen alderdiak kontuan hartu ditugu⁵.

Jarraian azaltzen diren datuak interpretatzean, iturri guztiak partzialak direla kontuan hartu behar da. Sektoreko elkarteei eta kudeaketa kolektiboko erakundeei dagokienez, erakunde horietan parte hartzen dutenak borondatez aritzen direla aintzat hartu behar da. Adierazgarriak badira ere, ez dute musika-sorkuntzarekin lotutako kolektibo osoa hartzen. Jende asko dago sorkuntza-arloan musika egiten aritzen direnak eta era independentean lan egiten dutenak, euren eskubideak kudeatuz eta/edo ikerketa honetarako erabili diren erakundeekin loturarik izan gabe.

⁵ Hori guztia erantsitako metodologian zehazten da.

2.1 - SEKTOREKO ELKARTEETAN PARTE HARTZEA

2.1.1 - KONPOSIZIOAREN ARLOAN ZEIN INTERPRETAZIOAREN ARLOAN MUSIKAN JARDUTEN DUTEN PERTSONAK ORDEZKATZEN DITUZTEN ELKARTEAK

Euskal musika-sorkuntzako sektoreko elkarte nagusiei galdetu zaie ea zein den bazkideen artean emakumeen eta gizonen ehunekoen arteko aldea; halaber, alde hori azken urteetan gehitu ala gutxitu egin den ere galdetu zaie. Erantzun hauek lortu ditugu:

- **Musikari (Euskal Herriko Musikariak)**, Konposizioaren eta interpretazioaren arloetan jarduten dutenen elkarte.

BAZKIDEAK: % 22,49 EMAKUME eta % 77,51 GIZON

“Musikari elkarteko bazkideak diren emakumeen kopurua nabarmen handiagotu da: 2013an 9 emakume ziren eta 2018an 65 emakume daude bazkideen artean. 7 aldiz biderkatu da. Kontuan hartu behar da 2013an 80 bazkide zirela guztira eta orain 289 direla. Beraz, emakume bazkideak % 11,25 izatetik % 22,49 izatera pasatu da 5 urtean.

- **Musikagileak** Musika konposatzen jarduten duten pertsonen elkarte da.

BAZKIDEAK: % 31 EMAKUME eta % 69 GIZON

Ehunekoa “egonkorra da azken urteetan. Azken 5 urteetan izena eman duten bazkideen kopurua proportzionala da emakume bazkideen ehunekoarekiko (hala ere, emakumeen afiliazioa handiagotu egin da apur bat)”.

2018	Emakumeak %	Gizonak
Musikari	22,49	77,51
Musikagileak	31,00	69,00

Iturria: Egileak landua

2.1.2 - JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK KUDEATZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK

EAEn jabetza intelektualaren eskubideen gestio kolektiboa egiten jarduten duten hiru erakundeen datuak kontsultatu izan dira. Denei galdetu zaie ea zein den bazkideen artean emakumeen eta gizonen ehunekoen arteko aldea; halaber, alde hori azken urteetan gehitu ala gutxitu egin den ere galdetu zaie. Kasu bakoitzean datuak testuinguruan jarri behar dira eta zein ingurutan kokatzen diren argitu behar da.

- **SGAE (Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia)**. Musika arloko autoretza-eskubideak kudeatzen dituen erakunde espainiarra da.

SGAEren Iparraldeko Zonako Komunikazio Sailak datu hauek eman ditu:

BAZKIDEAK: % 16,05 EMAKUME eta % 83,95 GIZON

“Emakume bazkideen ehunekoa 7 puntu handiagotu da azken 8 urteetan. Zoritxarrez ez daukagu datu berriagorik, ezta erkidegoz erkidego xehatutakorik ere, baina, badakigu, ordea, joera Estatukoaren antzekoa dela eta gure eskualdeetan ere ehunekoei dagokienez alde handirik ez litzatekeela egongo.

SGAEk⁶ berak emandako azken zenbakien arabera, “2017an, Elkarteko bazkideen artean 18.210 emakume zeuden, hau da, autore guztien (113.460 bazkide) % 16,05. SGAEko bazkide berriei dagokienez: 2017an izan diren 3.317 alta berrietatik, 703 emakumeak dira, hau da, bazkide berrien % 21,19.

Argitu beharra dago SGAEk, musika autoretza kudeatzeaz gain, ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoaren autoretzaz ere arduratzen dela. Beraz, emakume bazkideen guztizko ehunekoari dagokion datua ez dator bat bazkideak diren emakume musikarien ehunekoarekin. SGAEk berak autoreen kolektiboetan banatuta ematen ditu datuak: musikariak % 82,54, ikus-entzunezkoak % 9,55 eta eszenikoak % 7,91.

⁶ <http://www.sgae.es/es-ES/SitePages/EstaPasandoDetalleActualidad.aspx?i=2798&s=0>

Hala ere, ez litzateke zuzena izango, erakundeko emakume bazkideen guztizkoaren % 82,54 direla ondorioztatzea, zeren musika autoreen kolektiboan gizonen kopurua handia delako historikoki. Litekeena da, elkarteko emakume bazkideen %16,05 horren barruan, arte eszenikoetako edo ikus-entzunezko emakume sortzaileen ehunekoa handiagoa izatea. Hala ere, ez dauzkagu zifra horiek, zeren, guztizko kopuruak sektore profesionalen arabera banatuta badaude ere, ez baitago sexuaren araberako daturik lanbide bakoitzaren barruan.

- **AIE (Artista, interpretatzaileak eta jotzaileak).** Musikan aritzen diren artista, interpretatzaileen eta jotzaileen eskubide hurkoak kudeatzen dituen erakunde espainiarra da.

Kasu honetan, Kultura eta Kiroleko Ministerioak 2018ko Kultura Estatistiken Urtekarian ⁷ ematen dituen datuen arabera, 2017an emakume bazkideen ehunekoa hauxe zen:

BAZKIDEAK: % 21,5 EMAKUME eta % 78,5 GIZON

Ehuneko handiagotu egiten da apur bat 2016koarekin alderatuz, zeren azken urte horretan bazkideen artean emakumeak % 21,3 ziren eta gizonak % 78,7.

AIEko bazkide guztiak musikari interpretatzaileak edo jotzaileak dira; beraz, kasu honetan ez da beharrezkoa testuinguruan jartzea bestelako musika-diziplinarekiko. Argitu beharra dago, dauzkagun datuak Estatukoak direla. AIEk berak emandako Autonomia Elkargoen arabera banatutako datuek azaltzen dutenez, EAEn kide egin diren pertsonen % 19 emakumeak dira eta Nafarroan % 23.

EAE: Emakume bazkideak % 19

Nafarroa: Emakume bazkideak % 23

- **EKKI (Euskal Kulturgileen Kidegoa).** Jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituen euskal erakundea da. Musikan jarduten duten artista interpreta-tzaileen autoretzaren eskubideak zein eskubide hurkoak kudeatzen ditu erakunde honek.

Hona hemen, EKKIko Koordinakunde Orokorrak emandako datuak eta interpretatzeko zenbait gako:

BAZKIDEAK: % 25,6 EMAKUME eta % 74,4 GIZON

Musikari dagokionez, emakumeen ehunekoa % 22,1 da eta arlo horretan bereizi behar dira egileak eta interpretatzaileak:

Emakume egileak: % 89,47 / Interpretatzaileak: % 10,53.

EKKIk azaltzen duenez, *“parametro horrek EKKIn inskribatu dituzten eskubideak baino ez ditu adierazten. Horrek ez du esan nahi emakume interpretatzaileak euren musika-lanen egileak ez direnik”*.

EKKI musika arloan emakume bazkide gehien dauzkan erakundea da, EAEn jarduten duten kudeaketa kolektiboko erakundeen artean.

2017	Emakumeak guztira %	Gizonak guztira %	Emakumeak musikan %	Gizonak musikan %
SGAE	16,05	83,95	Ez dago daturik	Ez dago daturik
AIE	21,50	78,50	21,50	78,50
EKKI	25,60	64,40	22,10	77,90

Taulara: egileak landua

2.2 - MUSIKA-KREAZIOAK

2.2.1 - JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROA

Kultura eta Kiroleko Ministerioaren definizioaren arabera, Jabetza Intelektualeko Erregistroa *“autoreek eta gainerako titularrek euren lanen, saioen, ekoizpenen edo prestazioen jabetza intelektualaren eskubideak babesteko bitartekoa da, zeren erregistratutako eskubideak existitzen direla frogatzeko gai baita. Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorra Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateratuan ezarritakoaren arabera araututa dago. Lege hori apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren eta Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorren araudia onesten duen martxaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuaren arabera onetsita dago”*⁸.

Erregistro Zentralak eta Lurralde Erregistroek osatzen dute, EAeri dagokiona barne.

Jabetza Intelektualeko Erregistroko bulegoetan musika-lanak erregistratzeari dagozkion datuak kontuz interpretatu eta irakurri behar dira, zeren lanak borondatez erregistratzen baitira. Lan baten jabetza intelektual *“egilearena da, berak sortu duelako”*⁹; beraz, *“egitate sortzailea”* ez da eskakizun formal baten ondoriozkoa, esaterako Lege Gordailuan sartuta egotea edo Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena emanda egotea. Hortaz, egon daitezke lanak, erregistratuta egon arren, inoiz jendaurrean hedatzen ez direnak eta badira beste lan batzuk, hedatu arren, erregistratzen ez direnak.

Izan daiteke, halaber, erregistro batek titular bat baino gehiago edukitzea, zenbait egilekideek sortua delako edota eskubideak hainbat titularrei transmititu zaizkielako.

Musikaren kasuan zaila da, eta literaturan edo argazkilaritzan baino askoz zailagoa, alegia, euskarri grafikoan (partituran) zenbait musika-adierazpen azaltzea, besteak beste, musika esperimentalak, elektroakustikoa, edo inprobisazioa. Gainera, erregistro askotan ez dituzte formatu digital ukiezinak onartzen (mp3, wav, etc.) eta, ondorioz, lan asko erregistratu

gabe geratzen dira, nekeza delako edota ohiko euskarrietan ezin direlako gorde.

Aipatutako baldintzez gain, EAeko Jabetza Intelektualaren Erregistroaren kasuan, lan bakoitza inskribatzeko tasak ezartzeko eskumena duenez, estatuko gainerako lekuetan baino askoz merkeagoa da erregistroa egitea. Horren ondorioz, hurbileko artista batzuk EAera etorri ohi dira, euren erregistroak egitean nabarmen aurreratzeko. Horren eraginez, zailagoa da Jabetza Intelektualeko Erregistrotik iristen diren datuak interpretatzea, zeren datu horiek osorik bete gabe egon baitaitezke eta zehaztasun falta xamarra izan baitezakete.

Estatuko datuak

2018ko apirilaren 26an, Jabetza Intelektualaren Nazioarteko Egunean, gai horri buruzko jardunaldia egin zen Nafarroako Unibertsitatean. Intangia Elkarteak bere aldizkariaren 28. aleak¹⁰ dakarrenez (emakumeek jabetza intelektualean duten rola arduratzen da bakarrik). Erantzuna izan zen ez zeukatela lan intelektualek erregistratu dituzten emakume sortzaileen kopuruari buruzko daturik. Beraz, sexuaren arabera banatutako daturik ez egoteaz gain, ez dakigu daturik egon daitekeen ala ez.

2018ko Kultura Estatistiken Urtekarian azaltzen denez, *“Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorrean estreinakoz inskribatutako jabetza intelektualeko eskubidei buruzko informazioaren iturria Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorren Ustiapen Estatistikoa deritzon eragiketa estatistikoa da. Eragiketa hori Ministerioko Estatistika eta Ikerketa Sailak garatu du, Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorren laguntzaz, eta Estatuko Administrazio Eragiketa Estatistikoaren Inbentarioan bilduta dago. [...] Administrazio-ikerketa da eta erabili izan den informazio-iturria Ministerioko Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorreko (RGPI) fitxeroa da”*¹¹.

Aipatutako urtekarian, Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorrean motaren arabera egindako jabetza intelektualaren eskubideen lehenbiziko inskripzioen datuak kontuan hartuta: 2017an, Espainiako Estatuan erregistratutako lanen % 14,1 musika-lanak izan ziren.

⁸ <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:e3e83598-b142-4dad-96de-e603bfa02235/propiedad-intelectual-2018.pdf>

⁹ Jabetza Intelektualeko Legearen 1. artikulua arabera: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-8930>. Jabetza Intelektualaren Legean autore emakumeak zein gizonak aipatzeko erabiltzen den maskulino generikoa mantendu egiten da.

¹⁰ <http://intangia.es/images/documentos/revistawe28.pdf>

¹¹ <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:e3e83598-b142-4dad-96de-e603bfa02235/propiedad-intelectual-2018.pdf>

Lan-mota, sexua eta nazionalitatea kontuan hartuta, Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorrean autoretzeta gisa lehenbizi inskribatutako jabetza intelektualeko eskubideen titularrei dagokienez, hauxe daukagu: 2017an, 5.032 musika-lan inskribatu ziren guztira, erregistro horietako 4.055 gizonak egin zituzten, 972 emakumeek eta 5ean ez da sexua aipatzen. 4.963 nazionalitate espainiarrekoak ziren eta 69 beste nazionalitate batzuetakoak.

Laburbilduz, Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorrean 2017an inskribatutako musika-lanen % 19,32 emakumeek egin zituzten.

Euskal Herriko datuak

EAEn, Jabetza Intelektualeko Erregistroa Ondare Zuzendaritzaren mende dago zuzenean, eta azken hori Eusko Jaurlaritzak Kultura Sailaren mende dago. Eusko Jaurlaritzan bertan azaldu dutenez: *“erregistro berri xamarra da, eta 2018az geroztik ari da sexuaren arabera banatutako datuak biltzen.” Hala ere, Erregistroan lan eskerga egin dute 2017. urte osoko altak sakabanatzen.* Kualitate izeneko aholkularitza-enpresak datu horien irakurketa egin du:

Guztira egin diren jabetza intelektualeko erregistroetan desoreka nabaritzen da emakumeen eta gizonen artean, baina orekarantz bideratutako inguruan (% 37,8 emakumeen erregistroak dira eta % 62,2 gizonenak).

Hala ere, musika-arloan gizonak egindako erregistroen proportzioa nabarmen handiagoa da (emakumeek egindako erregistroak % 15,4 eta gizonak egindakoak % 84,6).

Hona hemen lurraldeen arabera datuak, musika-lanen erregistroei dagokienez:

- Araba: Emakumeak % 21,4 eta gizonak % 78,6
- Bizkaia: Emakumeak % 17 eta gizonak % 83
- Gipuzkoa: Emakumeak % 12 eta gizonak % 88

2017 Musika-lanen inskripzioa Jabetza Intelektualeko Erregistroan	Emakumeak %	Gizonak %
Estatua	19,32	80,68
Araba	21,40	78,60
Bizkaia	17,00	83,00
Gipuzkoa	12,00	88,00

Taula: egileak landua

2018ko Kultura Estatistiken Urtekariak dakartzan datuen arabera, 2017an Jabetza Intelektualeko Erregistro Orokorrean egindako musika-lanen erregistroen % 19,32 emakumeek egindakoa da. EAEn emakumeen proportzioa txikiagoa da, hau da, batez besteko % 15,4. Araba da EAEko lurralde bakarra, emakumeek egindako musika-lanen inskripzioen kopurua estatuko batezbestekoa baino handiagoa duena. Bizkaia eta Gipuzkoa batezbesteko horren azpitik daude.

2.2.2 - ERESBIL, MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA

Musikaren Euskal Artxiboak emandako zifrak azaldu aurretik, aipatu beharra dago, zailtasunak izan ditugula datuok biltzeko eta irakurtzeko. Eresbilen, autoritateen¹² katalogazioko etiketak generoaren arabera saillkapena duela gutxi egiten da MARC 21 katalogazioaren arabera eta Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegiaren arauak betez. Hala ere, Eresbilen dioenez, taldekako egituraketak direnean zaila da generoaren arabera saillkapena egitea, zeren sistema ez baitago prestatuta taldeetako kideak diren emakumeen presentzia kontuan hartzeko. Taldeetako buru diren emakumeak baino ez ditu aintzat hartzen. Katalogoko fitxetan euskal talde bakoitzeko kideei buruzko informazioa eman badigute ere, banden ezegonkortasuna da katalogatzea zailago bihurtzen duen beste arrazoi bat, zeren banda mistoak direnean emakumeak ez dira izaten katalogoan geratzen den autoritateak. Talde mistoen saillkapena egiteko zailtasun bera dute Etxepare Euskal Institutuan eta Musika Bulegoan, txosten honetako beste puntu batzuetan ikusiko denez. Zailtasun horri beste bat eransten zaio. Kolektibo batzuek jabetza

¹² Musika-lanaren edo musika-adierazpenaren erantzukizun intelektuala edo artistikoa duten pertsonak edo taldeak.

indibiduala desegitea eta izen artistiko baten izenean jartzea erabakitzen dute eta izen horren barruan hainbat pertsona sartuta egon daitezke, sasoi arabera.

Halaber, zaila da esparru digitalean baino garatzen ez diren musika-adierazpenak katalogatzea. 2015ean, lineako argitalpenen lege gordailua arautzen duen Errege Dekretua onartu zen, baina Eresbilek dioenez, oraindik ez da abian jarri. Dekretu horren arabera, lineako argitalpenei ez zaie zenbaki bat esleituko eta lege gordailu gisa kontserbatze-zentroetan sartzeko, hainbat bide daude aukeran: alde batetik, web-orriak biltzen dituzten roboten bidez automatikoki eskuratzea eta, bestetik, automatikoki eskuratu ezin diren argitalpenen gordailua egiteko, argialetxeen eta kontserbatze-zentroen artean hitzarmen bat egingo da, alde bientzako ahalik eta eraginkorrena eta errazena izanik. Eduki digitaleko argialetxeen eta ekoiztetxeen betebeharrak haxe izango da: kontserbatze-zentroek haien argitalpenak biltzen uztea edota gordailua erraztea zentroek eskatzen dietenean. Eresbilek dioenez, zaila da hainbat arlotan espezializatuta dauden etxeak (musika arlo horietako bat izango zen), koordinatzea internet den "itsaso zabalean" datuak eskuratzeko.

Eresbilek lan fina eta zorrotza egin arren, horrelako artxiboa, oso handia bada ere, ezin izango da inoiz zehatza izan. Izugarri zaila da datuak eskuratzea eta ohiko konposizio eta/edo ekoizte fonografikotik urruti dauden gaurko jardura musikalak katalogatzea. Gaur egun, gero eta merkeagoak eta erabilerrazagoak diren grabatzeko eta ekoizteko teknika ugari egonda, artista batzuk ia zuzenean salto egiten dute euren geletatik musikalari handietako eszenatokietara edota nazioarteko aldizkari ezagunenetara, lege gordailutik, jabetza intelektualaren erregistrotik edo disko-dendetatik pasatu gabe.

Bestalde, aipatu beharra dago, zenbait urtez geroztik, gero eta artista gehiago daudela nahiago dutenak bideo-kliparen formatua erabili eta ez formatu fonografikoa. Irudia da, gaur, euskarri nagusia, musika hedatzeko. Txosten honetan geroago azalduko dugunez, nazioarteko datuen arabera, interneten musika entzuten ematen den denboraren % 52, bideo-plataformen bidezkoa da. Denbora horren % 47 YouTube hartzen du, beraz, ikus-entzunezko plataforma hori da jendeak musika entzuteko gehien erabiltzen duen kanala. Ondorioz, askoz zailagoa da erregistro eta artxiboetako datu-baseak eguneratzea.

Eresbileko taldeak emandako datuetan, lehenago azaldu ditugun baldintzak kontuan hartuta irakurri behar badira ere, azken 5 urteetako diskografian (2013-2018) euskal musikan emakumeen presentzia zein izan den azaltzen dituzten zifrak ikusi daitezke. Iturri partzialei buruz metodologian azaltzen denez, zifrak lortzeko erabili izan den diskoen zerrenda ez da erabatekoa hainbat arrazoiengatik. Eresbilek azaltzen duenez, lege gordailuaren bidalketak diskoa argitaratzen denetik 3 hilabetera ailegatzen dira eta, horregatik, zerrenda horretan 2018ko abuztura artekoak daude katalogatuta, baina gainerako hilabeteak falta dira. Era berean, lehenago azaldu dugunez, argitaratutako disko askok ez dute lege gordailurik.

Emakumeei buruzko autoritateen zerrenda:¹³

- 94 emakume solista, musika-estilo guztietan.
- 62 emakume bokalista musika taldeetan.
- 23 talde, emakumeak gehiengoa direnak.

Orotara emakumeen autoritateak 179 dira, hau da, autoritate guztien %15,5 (denetara 1.155 pertsona edo talde dira Euskal Herrian, soinu-adierazpenen sorkuntzan erantzukizun intelektuala dutenak, 2013-2018 bitartean)¹⁴.

Beraz, %15,5 hori bat dator EAEko jabetza Intelektualaren Erregistroak emandakoekin. Erregistroko datu horien arabera, %12 - %21 bitartekoa da, lurraldearen arabera, eta batezbestekoa %15,4.

Argi dago, musika autoretza oso maskulinizatuta dagoela.

2.2.3 - KULTURKLIK

Eusko Jaurlaritzaren "Genero Politikak eta Programak" -Kultura Auzolanean 2018-2019- proiektuaren barruan garatutako "Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales 2017, 1ª versión." izeneko txostenak oso datu baliagarriak eman dizkigu. Datu horiek Euskal Herrian, eduki kulturalak biltzeari eta berregituratzeari dagokionez, erreferentziakoa den informazio-iturri batean

¹³ Kasu honetan, "autoritatzat" jotzen dira musika-lanaren edo musika-adierazpenaren erantzukizun intelektuala edo artistikoa duten pertsonak edo taldeak.

¹⁴ Kalkulua egiteko, Eresbil bilduma osatzen duten diskoak erabili dira. Ez dira sartzen, zendutako konpositoreen erregistroak, baina badira, ordea, bizirik daudenak, eta, besteak beste, abesbatzen eta orkestren grabazioak.

oinarrizten dira. Iturri hori Kulturklik da eta gaurko euskal kulturaren jarduera eta kreatzio nagusiak hedatzen aritzen da.

Diskoak ekoizteari dagokionez, 2017 ekoiztutako diskoen autoretza aztertzen du eta ehuneko hauek ematen ditu:

- Diskoen % 59aren egile nagusiak gizonak dira, eta emakumeak egileen % 9 dira.
- Autoretzen % 27 mistoak dira eta emakume autoreak % 31 eta gizonak % 69.

Argi dago, diskoen sorkuntza dela emakumeen presentzia txikiena duen arloa.

2.3 - LEHIAKETAK, SARIAK ETA LAGUNTZAK

ESTATUKO DATUAK

2018ko Kultura Estatistiken Urtekarian, Kultura eta Kiroleko Ministerioak beka eta laguntzak emateko aintzat hartzen dituen lehiaketei, jaialdiei eta bestelako musika-jarduerei dagozkien datuak azaltzen dira¹⁵. Jaialdiak albo batera utzita (musika-zirkuituen atalean berriz aztertuko ditugunak) eta lehiaketen eta musikako beken eta laguntzen deialdiak egiten dituzten erakundeen azken datuak¹⁶ kontuan hartuta hauxe azaltzen da:

- Espainiako estatuan 221 lehiaketa egin ziren, eta horietako 17 EAEn izan ziren.
- Estatuan 41 erakundek beka eta laguntzak eman zituzten, eta horietako 3 EAekoak izan ziren eta 1 Nafarroakoa.

Euskal Herriko datuak

2.3.1 - EUSKO JAURLARITZA: MUSIKA SORTZEKO ETA EKOIZTEKO LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak kreatzio musikalerako ematen dituen laguntzak, bakarkako Musika Konposizioaren eta Musika Proiektuen modalitateetan daude sartuta. Hona hemen azken urteetan laguntza eskatu duten eta lortu duten pertsonen dagozkien zifrak eta haien artean dauden emakumeen ehunekoa:

Musika-konposizioa

Partituran (pentagraman edo, musika elektroakustikoaren kasuan, kronograman edo interpretatzeko planean) adierazitako musika-konposizio originalen sorkuntza sustatzeko laguntzak dira, ezarritako deialdiaren epea itxi aurretik estreinatu eta erregistratu gabekoak.

Laguntza modalitate honen guztizko zenbatekoa 45.000 eurokoa izan da, 2014 eta 2016 bitartean. 2017az gozotik 50.000 eurokoa izan da.

Gaur, 2.000 eta 8.000 euroko diru-laguntzak eman ohi dira proiektuko, konposizioaren tipologiaren arabera.

	Eskaeren kopurua			Emandakoenen kopurua		
	G	E	E %	G	E	E %
2014	31	8	% 20,51	11	4	% 26,67
2015	28	4	% 12,50	11	2	% 15,38
2016	21	6	% 22,22	8	6	% 42,86
2017	16	6	% 27,27	9	5	% 35,71
2018	12	3	% 20,00	7	0	% 0,00

Taula: egileak landua

Ikusi daitekeenez, eskaerak egiten dituzten emakumeen ehunekoa laguntza berberak eskatu duten gizonena baino askoz txikiagoa da. Emandako laguntzei dagokienez, laguntzak

¹⁵ <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:692cd406-252b-4406-8904-632cc3f7d47f/artes-esenicas-y-musicales-2018.pdf>

¹⁶ 2018ko Kultura Estatistiken Urtekarian agertzen diren datuak 2017koak dira.

jasotzen dituzten emakumeen ehunekoa, eskaerena baino apur bat handiagoa da gizonekin alderatuz, 2018an izan ezik. Urte hori txostenaren alde kualitatiboan aztertuko dugu zehatzago.

Halaber, konposizio musikala hartzen duen sorkuntza kulturalerako laguntzen **Balorazio Batzordeetan** dauden emakumeen ehunekoa ere aztertu dugu:

- 2016: % 33,3 (6 kide, 2 emakume)
- 2017: % 50 (6 kide, 3 emakume)
- 2018: % 50 (6 kide, 3 emakume)

Ikusi daitekeenez, azken bi urteetan berdintasuna lortu da.

Musika-proiektu unitarioak

Laguntza modalitate hau musika-jarduera profesionali ematen zaizkien laguntzen barruan sartzen da eta, Euskal Herrian jaio edo bizi diren eta jardunean diharduten musikariei dagokienez, zuzeneko edo formatu fonografikoko musika-ekoizpenen proiektuak babesteko eta/edo musika-proiektu bat sustatzeko eta hedatzeko laguntzak dira.

Diru-laguntza 100.000 eurokoa izan zen 2014an eta 2015ean; gero, mailaka igotzen joan zen eta 2016an 120.000 euro izan ziren eta 2018an diru-laguntza 155.000 eurokoa izan zen.

Gaur, diru-laguntzarik handiena 8.000 eurokoa da eta proiektu bakoitzak jasotzen duen batezbestekoa 3.000 eta 5.000 euro bitartekoa da.

Kasu honetan, emakumeen parte-hartzearen zifrak adierazteko, *“emakumeen proiektuak edo proiektu-buru nabarmen gisa emakumeak dituzten proiektuak identifikatu dira. Kasuren batean kudeaketaren arduraduna izatea ere kontuan hartu da (esaterako, abesbatzetan edo taldeetan)”*.

	Eskaeren kopurua			Emandakoenen kopurua		
	G	E	E %	G	E	E %
2014	37	5	% 11,90	21	3	% 12,50
2015	29	5	% 14,71	25	4	% 13,79
2016	37	6	% 13,95	22	6	% 21,43
2017	40	10	% 20,00	35	8	% 18,60
2018	32	7	% 17,95	29	6	% 17,14

Taulara: egileak landua

Ikusi daitekeenez, eskaerak egiten dituzten emakumeen ehunekoa laguntza berberak eskatu duten gizonena baino askoz txikiagoa da.

Musika-proiektu unitarioak musika-jarduera profesionalen sartzen dira. Hona hemen musika-jarduera horietarako laguntzak emateko balorazio-batzordeetan parte hartzen duten emakumeen ehunekoak:

- **2016:** % 26,66 (15 kide, 4 emakume) 3 arlotan. Musika-proiektu unitarioetarako balorazio-batzordean, emakumeen presentzia % 33,3 da.
- **2017:** % 43,75 (16 kide, 7 emakume) 3 arlotan. Musika-proiektu unitarioetarako balorazio-batzordean, emakumeen presentzia % 50 da.
- **2018:** % 46,66 (15 kide, 7 emakume) 3 arlotan. Musika-proiektu unitarioetarako balorazio-batzordean, emakumeen presentzia % 50 da.

Ikusi daitekeenez, musika-konposizioetarako laguntzak emateko balorazio-batzordeen kasuan, azken bi urteetan berdintasuna lortu da.

2.3.2- ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA: MUSIKA-BIRETARAKO ETA OHIZ KANPOKO KONTZERTUETARAKO LAGUNTZAK

Etxepare Euskal Institutuak 2017ko eta 2018ko deialdien zifrak eman dizkigu eta, erakundeak azaldu duenez, 2018ko datuetan, musika-proiektu bakoitzean dauden emakumeen eta gizonen kopuru zehatzen erregistro zehatzagoa azaltzen da, zeren Etxepare Euskal Institutuan ezartzen ari diren barneko Berdintasun Planaren arabera, erakundeak berak eskatzen baititu datu horiek.

Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen dituen diru-laguntzen barruan, musika-atalean, laguntzak ematen dituzte, musika-biren eta ohiz kanpoko kontzertuen modalitateetarako. Deialdi horretan azaltzen denez, musika-biratzat joko da, urte natural batean zehar, gutxienez, 5 kontzertu egitea euskararen esparru geografikotik kanpoko 3 lekutan. Ohiz kanpoko kontzertua izango da, urte natural batean zehar, euskal musika nazioartean hedatzeko ezaugarriak izateagatik interes berezia duten ferietan, jaialdietan edo ekitaldietan egiten den musika-jarduera.

Musika-atalerako diru-kopururik handiena 125.000 eurokoa izan zen 2018an: 110.000 euro musika-biretarako eta 15.000 euro ohiz kanpoko kontzertuetarako. Beraz, 2017ko eta 2016ko diru-kopuruekin alderatuz, 5.000 euro gutxiago daude, zeren urte haietan 20.000 euro baitzeuden ohiz kanpoko kontzertuetarako.

	2017				2018			
	Guztira	Emakumeen parte-hartzea duten proiektuak	Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak	Proiektu auto-gestionatuak	Guztira	Emakumeen parte-hartzea duten proiektuak	Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak	Proiektu auto-gestionatuak
Laguntza jaso duten proiektuak: musika biren modalitatea	36	16 (% 44,44)	20 (% 55,56)	26 (% 72,22)	37	18 (% 48,64)	19 (% 51,35)	30 (% 81)
Laguntza jaso duten proiektuak: ohiz kanpoko kontzertuen modalitatea	9	4 (% 44,44)	5 (% 55,56)	5 (% 55,56)	10	6 (% 60)	4 (% 40)	6 (% 60)
Laguntzarik lortu ez duten proiektuak	16	-	-	13 (% 81,25)	17	-	-	13 (% 76,47)
Eskaerak guztira	61	-	-	44 (% 72,13)	64	-	-	49 (% 76,56)

Taula: egileak landua

Ondoren, taula horretan bildutako datuak aztertuko ditugu eta datu horien analisia egingo dugu:

2017. DATU OROKORRAK

- Eskaera kopurua 61.
- Laguntza jaso duten proiektuak (36 musika-bira + 9 ohiz kanpoko kontzertu) 45 (% 73,77)
- Laguntzarik lortu ez duten proiektuak 16 (% 26,23)

MODALITATEA: MUSIKA BIRAK, 2017

- Laguntza jaso duten proiektuak: 36
- Emakumeek parte hartzen duten proiektuak: 16 (% 44,44)
- Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak: 20 (% 55,56)

Proiektuen autogestio-maila: 26 (% 72,22) proiektu auto-gestionatuak dira¹⁷. Gainerako 10 proiektuak (% 27,77) agentzia edo enpresa kudeatzaileenak dira.

MODALITATEA: OHIZ KANPOKO KONTZERTUAK, 2017

- Laguntza jaso duten proiektuak: 9
- Emakumeen parte-hartzea duten proiektuak: 4 (% 44,44)
- Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak: 5 (% 55,56)

Proiektuen autogestio-maila: 5 proiektu autogestionatu (% 55,55) eta 4 proiektu agentzia kudeatzaileen bidez aurkeztutakoak (% 44,44).

¹⁷ Proiektu horiek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak zuzenean kudeatzen dituzten artistenak dira, bai pertsona fisiko gisa, bai berariaz sortutako pertsona juridikoren baten bitartez (gehienak musika arloko elkarte kulturalak edo sozietate mugatuak izan ohi dira).

LAGUNTZARIK LORTU EZ ZUTEN PROIEKTUAK

- 16 proiektuk ez zuten inolako laguntzarik jaso.

Horietako 10ek ez zituzten eskakizunak bete (% 62,5). Gainerako 6ak (% 37,5) bakarrik gizonen osatuta zeuden.

Laguntzarik gabeko proiektuen autogestio-maila:

13 proiektu autogestionatu (% 81,25) eta 3 proiektu agentzia kudeatzaileen bidez aurkeztutakoak (% 18,75).

2018. DATU OROKORRAK

- Eskaera kopurua 64
- Laguntza jaso duten proiektuen kopurua guztira, 37 musika-bira + 10 ohiz kanpoko kontzertu): 47 (% 73,43)
- Laguntzarik lortu ez duten proiektuak: 17 (% 26,56)

MODALITATEA: MUSIKA BIRAK, 2018

- Laguntza jaso duten proiektuak: 37
- Emakumeen parte-hartzea duten proiektuak: 18 (% 48,64)
- Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak: 19 (% 51,53)

Proiektuen autogestio-maila: 30 proiektu autogestionatu (% 81) eta 7 proiektu agentzia kudeatzaileen bidez aurkeztutakoak (% 19).

MODALITATEA: OHIZ KANPOKO KONTZERTUAK, 2018

- Laguntza jaso duten proiektuak: 10
- Emakumeen parte-hartzea duten proiektuak: 6 (% 60) 6 (% 60)

Bakarrik gizonen parte-hartzea duten proiektuak: 4 (% 40)

Proiektuen autogestio-maila: 6 proiektu autogestionatu (% 60) eta 4 proiektu agentzia kudeatzaileen bidez aurkeztutakoak (% 40).

LAGUNTZARIK LORTU EZ ZUTEN PROIEKTUAK

- Laguntzarik lortu ez duten proiektuak: 17

Horietako 11k (% 64) ez zituzten administrazioaren eskakizunak bete edota atzera egin zuten eta 7k (% 41,17) ez zituzten nahikoa puntu lortu.

Laguntzarik jaso ez zuten proiektuetako 4 (% 57,14) bakarrik gizonen osatuta zeuden eta 3 (% 42,85) emakumez eta gizonen osatuta zeuden.

Laguntzarik gabeko proiektuen autogestio-maila: 13 proiektu autogestionatu (% 76,47) eta 4 proiektu agentzia kudeatzaileen bidez aurkeztutakoak (% 23,53).

2017ko eta 2018ko datuak alderatuz ikusi daitekeenez, eskaeren kopurua handiago egin da apur bat; musika-biren eta ohiz kanpoko kontzertuen modalitateetan laguntza jaso duten eta emakumeen partaidetza duten proiektuen ehunekoa ere handiago egin da (azken modalitate horretan, 2018an, aldi bakarra da emakumeen partaidetza duten proiektuen ehunekoa, bakarrik gizonen parte hartzen duten proiektuena baino handiagoa dena: % 60 eta % 40 hurrenez hurren).

Laguntzak eskatu eta jaso dituzten proiektu autogestionatuen ehunekoa ere handiagoa da. Halaber, aipagarria da, laguntzarik jasotzen ez duten eskaeren ehuneko handia proiektu autogestionatuak direla. Geroago, analisi kualitatiboan, gertaera horri buruzko hausnarketa egingo dugu.

Hona hemen musika euskararen lurralde eremutik kanpo hedatzeko laguntzen **balorazio batzordean** parte hartu zuten emakumeen ehunekoa:

- **2016:** % 40 (5 kide, 2 emakume)
- **2017:** % 40 (5 kide, 2 emakume)
- **2018:** % 40 (5 kide, 2 emakume)

Egonkor mantentzen da azken urteetan, berdintasunetik hurbil.

2.3.3- MUSIKA BULEGOA: MUSIKA BULEGOAREN SARIAK ETA KANPOAN HEDATZEKO EKINTZAK

Musika Bulegoa (Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte) *“Euskal Herrian musika-jarduera sustatzeko eta hobetzeko arloko lankidetzaproiektu estrategikoa da. Erabat kulturala den proiektu honen ardatz nagusia Euskal Herria sortzen den musika da. Erakundearen helburu nagusiak hauek dira: arloko topa-guneetarako eta zerbitzuetarako espazioa sortzea, Euskal Herriko musikari kalitatezko irudia proiektatzeko marka eta euskarria ematea eta denen intereserako ekintzak eta proiektuak bideratzeko baliabidea izatea¹⁸.”* Kultura Live (Euskal Herriko areto pribatuen elkarte), MIE (Musika Industria Elkarte), Musikari eta Musikagileak erakundeek osatzen dute Musika Bulegoa.

Musika Bulegoak azken hiru urteetako Musika Bulegoa Sarien datuak ematen ditu. Saritutako proposamenez gain, epaimahaiaren osaera eta proiektu musikalak kanpoan hedatzeko jarduerak ere azaltzen ditu.

Musika Bulegoa Sariak

2016			
Aurkeztutako proposamenak Guztira: 66	Bakarrik gizonoz osatutako taldeen proposamenak	47	% 71,21
	Bakarrik emakumez osatutako taldeen proposamenak	0	% 0
	Talde mistoen proposamenak	7	% 10,60
	Buruan emakumea duten taldeen proposamenak	3	% 4,5
	Ez dakigu zer den	9	% 13,63
Proposamen sarituak Guztira: 5	Gizonoz osatutako talde sarituak	3	% 60
	Emakumez osatutako talde sarituak	0	% 0
	Talde misto sarituak	2	% 40
	Buruan emakumea duten talde sarituak	0	% 0
Epaimahaiaren osaera Guztira: 8	Gizonezko mahaikideak	5	% 50
	Emakumezko mahaikideak	3	% 50

Taula: Musika Bulegoak landua

2017

Aurkeztutako proposamenak Guztira: 66	Bakarrik gizez osatutako taldeen proposamenak	42	% 63,63
	Bakarrik emakumez osatutako taldeen proposamenak	0	% 0
	Talde mistoen proposamenak	4	% 6,06
	Buruan emakumea duten taldeen proposamenak	11	% 16,66
	Ez dakigu zer den	5	% 7,14
Proposamen sarituak Guztira: 7	Gizez osatutako talde sarituak	0	% 0
	Emakumez osatutako talde sarituak	1	% 14,28
	Talde misto sarituak	1	% 14,28
	Buruan emakumea duten talde sarituak	4	% 50
Epaimahaiaren osaera Guztira: 8	Gizezko mahaikideak	4	% 50
	Emakumezko mahaikideak	4	% 50

Taula: Musika Bulegoak landua

2018

Aurkeztutako proposamenak Guztira: 71	Bakarrik gizez osatutako taldeen proposamenak	53	% 74,64
	Bakarrik emakumez osatutako taldeen proposamenak	0	% 0
	Talde mistoen proposamenak	9	% 12,67
	Buruan emakumea duten taldeen proposamenak	4	% 5,63
	Ez dakigu zer den	0	% 0
Proposamen sarituak Guztira: 7	Gizez osatutako talde sarituak	5	% 71,42
	Emakumez osatutako talde sarituak	0	% 0
	Talde misto sarituak	1	% 14,29
	Buruan emakumea duten talde sarituak	1	% 14,29
Epaimahaiaren osaera Guztira: 8	Gizezko mahaikideak	4	% 50
	Emakumezko mahaikideak	4	% 50

Taula: Musika Bulegoak landua

Dokumentuan bertan, Musika Bulegoak hauxe azaltzen du: “oso zaila da talde mistoa edo buruan pertsona jakin bat (emakumea kasu honetan) duen taldea den bereiztea, taldea, pertsona eta/edo proiektua oso ondo ezagutzen ez bada. Horretarako erabili ohi den irizpidea hauxe da: talde batek izen artistikoa badu, talde mistotzat jotzen da eta pertsonaren izen propioa edo artistikoa azaltzen bada, talde-burutzat jotzen da. Horrez gain, erakundeak azaltzen du sailkapena ez dela oso zehatza, “zeren emakume bat ‘izen artistikoa’ duen taldeko burua izan baitaiteke.” Beraz, zifra horiek kontuz interpretatu behar dira.

Aurkeztutako proposamenen kopurua handiagotu egin da apur bat 2018an. Saritutako proposamenei dagokienez, azken bi urteetan buruan emakumea duten talde mistoen ehunekoa mantendu egiten da, % 14 inguruan.

Epaimahaiaren osieran berdintasuna dago sarien azken 3 edizioetan.

Hedapena kanpoan

2016		
HEDAPENA KANPOAN (Presentzia ferietan, jaialdietan etc.)		
Artistak Guztira: 7		
Bakarrik gizonen osatutako taldeetako artistak	5	% 71
Bakarrik emakumez osatutako taldeetako artistak	0	% 0
Talde mistoetako artistak	2	% 29
Buruan emakumea duten taldeetako artistak	0	% 0

2017		
HEDAPENA KANPOAN (Presentzia ferietan, jaialdietan etc.)		
Artistak Guztira: 7		
Bakarrik gizonen osatutako taldeetako artistak	4	% 57
Bakarrik emakumez osatutako taldeetako artistak	1	% 14
Talde mistoetako artistak	2	% 29
Buruan emakumea duten taldeetako artistak	0	% 0

2018		
HEDAPENA KANPOAN (Presentzia ferietan, jaialdietan etc.)		
Artistak Guztira: 11		
Bakarrik gizonen osatutako taldeetako artistak	5	% 45
Bakarrik emakumez osatutako taldeetako artistak	0	% 0
Talde mistoetako artistak	6	% 55
Buruan emakumea duten taldeetako artistak	5	% 45

Taula: Musika Bulegoak landua

Ikusi daitekeenez, emakumeen presentzia gero eta handiagoa da artistak kanpoan hedatzeko egiten diren jardueretan. Bakarrik gizonen osatuta dauden taldeen kopurua murriztu egin da: 2016an % 71 eta 2018an % 45.

2.3.4- BESTE LEHIAKETA AIPAGARRI BATZUK: BILBO HIRIA POP-ROCK LEHIAKETA ETA KUTXA KULTUR MUSIKA PROGRAMA ¹⁹

Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketa

Gazteria eta Kirola Udal Sailaren bidez, Bilboko Udalak Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketa sustatzen du. Lehiaketa honek 30 urte ditu eta arrakasta bidean ari diren Europako talde gazteentzat antolatzen da. Euskal musikaren panoraman garrantzitsuenetako bat da. Lehiaketan hainbat musika mota sartzen dira: pop-rock, metal eta musika elektronikoa eta joera berriak ere bai.

Gazteria eta Kirola sailak emandako datuak hauek dira: emakumeen ehunekoa lehiaketan parte hartzen duten taldeetan, epaimahaian eta publikoan. Udalak dioenez, 2 urte baino ez daramatzate datuak genero ikuspegiaren arabera memorietan biltzen eta lehiaketaren koordinakundearen helburuetako bat da, hain zuzen, emakumeen partaidetza gehitzea taldeetan, epaimahaian eta publikoan.

Epaimahaiko emakumeen ehunekoa: “Aurreko ediziora arte, epaimahaiko 15 kide zeuden profesionalen kategorian (emakume bakarria zegoen “Metal” kategorian) eta gazteen kategorian 3 mahaikide zeuden (bi emakume); guztira emakumeen partaidetza % 17koa zen. 30. edizio honetan gazteen eta profesionalen

¹⁹ Ezin izan da aurkitu Araban egindako ekitaldi bat, aztertutakoen garrantzi berekoa; beraz, txosten honetan bi ekitaldi baino ez dira aipatzen: Bilboko Udalak (Bizkaia) sustatutakoa eta Kutxa Kultur Fundazioak (Gipuzkoa) sustatutakoa.

epaimahaia bateratu egin dira eta orain 11 mahaikide dira. Mahaikide horietako 4 emakumeak dira eta, beraz, ehunekoa gehitu egin da eta orain % 36 da.

	2017	2018
Epaimahaiko emakumeen ehunekoa	% 17	% 36

Taula: egileak landua

Izena eman duten taldeetako emakumeen ehunekoa: "Izena eman duten taldeetan, emakumeen ehunekoa apur bat handiagoa da. Bakarrik emakumez osatutako taldeen kopurua oso gutxi gehitu da."

	2017	2018
Izena eman duten taldeak	484	527
Emakumezko taldekideak dituztenak	107 (% 15)	119 (% 22,6)
Taldekide guztiak emakumezkoak	15 (% 3)	18 (% 3,4)

	2017	2018
Taldekideak guztira	1744	1939
Emakumezko taldekideak	144 (% 8)	176 (% 9,1)

Taula: egileak landua

Sailkatutako taldeetako emakumeen ehunekoa: "Kontzertuen faserako sailkatutako taldeei dagokienez, emakumezko kideak dituzten taldeen kopurua murriztu egin da aurreko urtekoarekin alderatuz. Sailkatutako emakumeen ehunekoa ere murriztu egin da, baina bakarrik emakumez osatutako taldeen kopurua mantendu egin da."

	2017	2018
Sailkatutako taldeak	38	32
Emakumezko taldekideak dituztenak	12 (% 31,6)	7 (% 21,9)
Taldekide guztiak emakumezkoak	1 (% 3)	1 (% 3,1)

	2017	2018
Taldekideak guztira	138	107
Emakumezko taldekideak	18 (% 13)	8 (% 7,5)

Taula: egileak landua

Publikoko emakumeen ehunekoa: "Publiko gisa bertaratu diren emakumeen datua jasotako botazioetatik ateratzen da, beraz, estatistikoki ez da datu fidagarria. Botazioen kopurua nabarmen murriztu da eta, halaber, emakumeen ehunekoa ere txikiagoa da."

	2017	2018
Boto-emaileak guztira	800	458
Emakume boto-emaileak	218 (% 27,3)	85 (% 18,6)

Taula: egileak landua

Kutxa Kultur Musika programa

Kutxa Kultur Fundazioak sustatzen du Kutxa Kultur Musika programa. Programa horren bidez, arrakasta bidean dauden Gipuzkoako musika-taldeak profesionalizatzea sustatu nahi da. Fundazioak emandako datuak hauek dira:

Urteak	Aurkeztutako taldeak, guztira	Hautatutako taldeak	Emakumea buru duten edo emakumez osatuta dauden aurkeztutako taldeak	Emakumezko buru duten edo emakumez osatuta dauden talde hautatuak
2016				
2017	52	6	11 (% 21,15)	3 (% 50)
2017				
2018	35	6	10 (% 28,57)	1 (% 16,67)
2018				
2019	64	6	18 (% 28,12)	2 (% 33,3)

Taula: egileak landua

Kutxa Kultur Musikak ez du berdintasunerako planik, *“baina hautatzeko orduan kontuan hartzen den adierazlea da, euskararen presentziarekin batera. Hala ere, beti du lehentasuna taldearen kalitateak.”*

Ikusi daitekeenez, azken edizioan aurkeztutako taldeen kopurua nabarmen handiagotu da, azken aurreko edizioarekin alderatuz, baina aurkezten diren taldeen artean, emakumezkoen partaidetza dutenen ehunekoa ia egonkorra da, % 28 inguruan. Hautatutako taldeen artean emakumezkoen partaidetza dutenen ehunetik handiena 2016-2017 edizioan izan zen (% 50); 2017-2018 edizioan nabarmen gutxitu zen % 16,67ra arte, eta azken edizioan gora egin du (% 33,3).

Programa honetako **balorazio batzordeetan** inoiz ez du emakume batek parte hartu eta hori datu garrantzitsua da.

2.4 - HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA ARLOAK

Kreazio musikalaren arloan, musika-industrian gertatzen den moduan, pertsona batek ez du titulazio ofizial bat lortu edo ikasketa arautuak egin beharrik, musika arloan profesionalki jarduteko. Beraz, prestakuntzatik profesionalizatzerako dagoen urratsa aztertzea, beste arlo profesional batzuetan baino zailagoa da. Hezkuntza arautuko sistemako ikasgeletan emakumeen presentziari eta parte-hartzeari buruzko datuak ere ez dira erabatekoak, txosten honetan banatu ditugun beste zenbait datu bezala. Horregatik, goi-mailako musikako titulazioei buruzko datu estatistikokoak aintzakotzat hartzeaz gain, musika sortzen aritzen diren pertsonen euren karrerak garatzeko baliabideak eta gaitasunak ematen dizkieten beste-lako hainbat prestakuntza-jarduera ere kontuan hartu dira.

Hezkuntza arloan, komenigarria izango litzateke ikerketa honen gaia gainditzen duten bestelako errealtateak kontuan hartzea, esate baterako, instrumentua aukeratzean edota ikasketak amaitu ostean erabaki profesionalak hartzean eragina duten estereotipo sozial jakin batzuk eta, halaber, musika entzuteko eta musikaz disfrutatzeko ohiturek agente erabakigarri gisa duten garrantzia, pertsona sortzaileen bizitza profesionalen eragina izango duten erabakiak hartzerakoan. Alderdi horiek guztiak geroago aztertuko ditugu txosten honetan.

2.4.1 - TITULAZIO OFIZIALAK

Estatuko datuak

2019an *Clásicas y Modernas* elkarteak argitaratu eta SGAE ²⁰ fundazioaren bidez aurkeztutako “¿Dónde están las mujeres en la música sinfónica?” deritzon ikerketan, Espainiako Musika Kontserbatorio Nagusietan emakumeen presentzia norainokoa den aztertzen da. 2016-2017 ikasturtean goi-mailako titulazioa lortu duten ikasleak kontuan hartu dira. Ikerketa horren arabera emakumeek hauxe lortu zuten:

- Konposizioan: goi-mailako titulazioen % 29
- Zuzendaritzan: goi-mailako titulazioen % 24
- Musikako goi-mailako titulazio guztien % 43

Kultura eta Kiroletako Ministerioak argitaratutako 2018ko Kultura Estatistiken Urtekariak eta, zehatzago esanda, kultura arloko irakaskuntzei dagokien atalean ezarritakoak ²¹, EAEko datuak Estatukoaren arabera testuinguruan jartzeko balio du.

Atal horretako 8.11 puntuan azaltzen diren datuak Autonomia Erkidegoen arabera banatuta daude eta 2016-2017 ikasturteko ikastetxeei, irakasleei eta musika-ikasketa arautuetan (Araubide Bereziko Arte Irakaskuntzak) matrikulatutako ikasleei buruzkoak dira.

Ikastetxeak:

EAEEn 20 ikastetxe daude guztira eta % 40 publikoak dira.

Nafarroan 3 ikastetxe daude guztira eta % 100 dira publikoak.

Estatuan ikastetxe publikoen batezbestekoa % 64,7 da.

Irakasleak:

EAEEn irakasleen kolektiboa 649 pertsonen osatzen dute eta irakasle horien % 50,7 emakumeak dira.

Nafarroan irakasleen kolektiboa 154 pertsonen osatzen dute eta irakasle horien % 28,6 emakumeak dira.

Estatuan, emakume irakasleen batezbestekoa % 39,9 da.

²⁰ https://s3.amazonaws.com/fundacion-sgae/2019/Musica/donde_estan_las_mujeres_sinfonicas_estudio.pdf#page=3

²¹ <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:192640df-6a7b-4f4e-8357-7ab4c0eaf0f5/enseñanzas-del-ambito-cultural-2018.pdf>

Matrikulatutako ikasleak:

- EAEn ikasleen kolektiboa 2.700 pertsonen osatzen dute eta ikasle horien % 55,8 emakumeak dira.
- Nafarroan ikasleen kolektiboa 959 pertsonen osatzen dute eta ikasle horien % 48,9 emakumeak dira.
- Estatuan, emakume ikasleen batezbestekoa % 54,4 da.

Euskal Herriko datuak

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren “Genero Politikak eta Programak” -Kultura Auzolanean 2018-2019- proiektuaren barruan garatutako Datuen Txostenaren 1. bertsioaren datuak dauzkagu. Prestakuntzari dagokionez, matrikulatuei zein tituludunei buruzko **2017-2018** ikasturteko Musikeneko datuak hartu dira.

	Matrikulatutako ikasleak: emakumeak	Matrikulatutako ikasleak: gizonak	Tituludun ikasleak: emakumeak	Tituludun ikasleak: gizonak
Musikako Goi Mailako titulua. Espezialitatea: konposizioa	2 (% 14,3)	12 (% 85,7)	0 (% 0)	4 (% 100)
Musikako Goi Mailako titulua. Espezialitatea: pedagogia	14 (% 93,3)	1 (% 6,7)	4 (% 80,0)	1 (% 20,0)
Musikako Goi Mailako titulua. Espezialitatea: koru-zuzendaritza	2 (% 50,0)	2 (% 50,0)	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)
Musikako Goi Mailako titulua. Espezialitatea: interpretazioa	98 (% 53,5)	178 (% 64,5)	24 (% 40,7)	35 (% 59,3)
Orkestra-ikasketen ikasketa artistikoen masterra (hari instrumentuak)	12 (% 57,1)	9 (% 42,9)	6 (% 54,5)	5 (% 45,5)
Musikako Goi Mailako titulua. Espezialitatea: orkestra-zuzendaritza	1 (% 14,3)	6 (% 85,7)	1 (% 50,0)	1 (% 50,0)
Guztira	129 (% 38,3)	208 (% 61,7)	36 (% 43,4)	47 (% 56,6)

Taula: egileak landua

Datu horiekin batera analisi hau daukagu:

“Lehenbiziko datu aipagarria: 2017-2018 ikasturteko matrikulen % 62 gizonetzko ikasleena da eta % 38 emakumezko ikasleena. Datuen arabera ikusi daitekeenez, matrikulatutako ikasleen arteko banaketa desorekatuenak espezialitate hauetan gertatzen dira: Konposizioa, Orkestra Zuzendaritza eta Pedagogia, kontrako zentzuetan. Hortaz, lehen bi espezialitateetan ia matrikulatuen % 86 gizonetzko ikasleak dira eta Pedagogian, ordea, matrikulen % 93 emakumezko ikasleena dira.

Interpretazioko espezialitateetan ikasle gehienak gizonak dira eta Orkestra Ikasketetan (haria) emakumezkoen ehunekoak apur bat handiagoa da. Koru Zuzendaritzaren kasuan matrikulen kopurua antzera banatzen da emakumeen eta gizonen artean.

Interesgarria da pentsatzea nesken eta mutilen gerorako asmoek eragina izan dezaketela matrikula egiteko orduan eta, halaber, pentsa daiteke gaur egun espezialitate batzuk (Orkestra

Zuzendaritzak, esaterako) adina prestigiorik ez duten beste adar eta espezialitate batzuei, adibidez, Pedagogiarekin lotutakoei, prestigioa emateko premia dagoela.

2.4.2 - BESTE PRESTAKUNTZA-JARDUERA BATZUK

Euskal musikarekin lotutako 5 erakunde aukeratu dira, programazioetan, zerbitzuetan edo jardueretan prestakuntza-ekintzak eskaintzen dituztenak. Antolatzen dituzten prestakuntza-jardueretara joaten diren emakumeen eta gizonen ehunekoak zein diren galdetu diegu. Erantzunak hauek izan dira:

Musika Bulegoak antolatutakoak

Musika Bulegoak jardueren poltsari buruzko azken hiru urteetako datuak eman ditu. Poltsa horren helburua euskal musikaren inguruan prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzen dituzten euskal musikako eragileen ekimenak sustatzea da.

2016			
Aurkeztutako proposamenak Guztira: 50	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	23	% 46
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	3	% 6
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	11	% 22
	Emakumeak buru diren jarduerak	6	% 12
	Ez dakigu zer den	7	% 14
Kontratutako proposamenak Guztira: 15	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	7	% 46,66
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	2	% 13,33
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	6	% 40
	Emakumeak buru diren jarduerak	0	% 0
Balorazio-batzordearen osaera Guztira: 8	Gizonezko mahaikideak	3	% 50
	Emakumezko mahaikideak	3	% 50
2017			
Aurkeztutako proposamenak Guztira: 52	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	28	% 53,84
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	2	% 3,84
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	16	% 30,76
	Emakumeak buru diren jarduerak	4	% 7,69
	Ez dakigu zer den	2	% 3,84
Kontratutako proposamenak Guztira: 19	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	9	% 47,36
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	2	% 10,52
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	6	% 31,57
	Emakumeak buru diren jarduerak	2	% 10,52
Balorazio-batzordearen osaera Guztira: 6	Gizonezko mahaikideak	3	% 50
	Emakumezko mahaikideak	3	% 50

2018			
Aurkeztutako proposamenak Guztira: 33	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	14	% 42,42
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	3	% 9,09
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	13	% 39,39
	Emakumeak buru diren jarduerak	0	% 0
	Ez dakigu zer den	3	% 9,09
Kontratututako proposamenak Guztira: 16	Bakarrik gizonen partaidetza duten jarduerak	8	% 50
	Bakarrik emakumeen partaidetza duten jarduerak	1	% 6,25
	Partaidetza mistoa duten jarduerak	7	% 43,75
	Emakumeak buru diren jarduerak	0	% 0
Balorazio-batzordearen osaera Guztira: 6	Gizonezko mahaikideak	3	% 50
	Emakumezko mahaikideak	3	% 50

Taula: Musika Bulegoak landua

Ikusi daitekeenez, balorazio-batzordearen ordezkari-tza parekoa da eta partaidetza mistoa edo bakarrik emakumeen partaidetza duten aukeratutako jardueren ehunekoa handiagotu egiten da. 2017an eta 2018an, Musika Bulegoak Nafarroan egindako 948 Merkatua Ferian ordezkari-tza zuenean hitzaldiak eman zituzten pertsonen datuak ere eman dituzte.

2017 - JARDUNALDIAK, HITZALDIK, etc.

Jardunaldia: Publiko
Berriak, 948 Merkatua
Guztira: 7

Parte hartzen duten gizonezkoak	4	% 57,14
Parte hartzen duten emakumezkoak	3	% 42,85

2018 - JARDUNALDIK, HITZALDIK, etc.

Jardunaldia: Publiko
Berriak, 948 Merkatua
Guztira: 2

Parte hartzen duten gizonezkoak	0	% 0
Parte hartzen duten emakumezkoak	2	% 100

Taula: Musika Bulegoak landua

Aipagarria da 2018ko 948 Merkatua Ferian egindako jarduera. Myriam Mirandak eta Amaia Izpizuak, Musika Bulegoaren ordezkari gisa, hitzaldi hau eman zuten: *“Musika Bulegoa, apoyando iniciativas a favor de la igualdad en el sector musical.”*

Musikaririk antolatutakoak

2013tik 2018ra bitartean Musikaririk prestakuntzako eta/edo hedapeneko 24 jarduera antolatu zituen. Jarduera horietan emakume bazkideen % 42,85ak eta gizonen % 57,14ak parte hartu zuten.

Musikagileakek antolatutakoak

Elkartearik abian jartzen dituen prestakuntza-jarduerari buruz azaldu duenez, *“gure esparruan (publiko orokorra) oso antzekoa da bi sexuen partaidetza. Datu zehatzik ez badugu ere, sexu bakoitzaren parte-hartzea % 50ekoa dela kalkula dezakegu. Gure ustez, kalkulu hori apur bat desbideratuz gero, emakume gehiago bertaratzearen ondorioz izango zen.*

EKKI-k antolatutakoak

2015 eta 2017 bitartean, EKKI-k jabetza intelektualari eta autoretza-eskubideak eta eskubide hurkoak kudeatzeari buruzko prestakuntza-mintegiak antolatu ditu. Ekitaldi horietan, emakumeen partaidetzaren batez besteko ehunekoa % 55 da eta gizonena % 45.

“Copyzer” aholkularitza zerbitzua – CBA Irun

Zerbitzu hau ikerketan sartzea erabaki dugu, kasu bakana delako EAEn, zeren lurralde honetan ez baitago antzeko proposamenik eta sortzaileen komunitatearen eskaera gero eta handiagoa baita.

“Copyzer” aholkularitza-zerbitzu egonkorra da eta proiektu sortzaileen jabetza intelektualaz, lizentziaz eta autoretza-eskubideen kudeaketaz arduratzen da. Irungo Udalaren babesa du, doakoa da eta Irungo Carlos Blanco Aguinaga Zentro Kulturalerako (CBA) instalazioetan ematen du zerbitzua, hilean saio bat eginez.

Zerbitzua 2016ko maiatzean martxan jarri zen. Aholkularitza-saio presentzialak egiten dituzte. Saioak bi ordukoak ziren eta denbora horretan bi edo hiru kontsulta egin zitzaizkion. 2017ko azaroan, urrutiko zerbitzua ireki zen (linean edo

telefono bidez) eta, eskaera handia izanenez, 2018an zerbitzua handiagotu egin zen eta hilean 3 ordura zabaldu zen. Gaur, kontsulta bakoitzean denbora gehiago eskaintzeko edo jende gehiagori zerbitzua emateko aukerak daude. Gaur egun, EAEko gaiez arduratzeaz gain, Estatu osokoak eta Europakoak ere tratatu ohi dira.

Horrelako zerbitzu bakarra da EAEn. Intangia-k (Ukiezinen defentsarako elkarteak) Uharte Zentroan aldizka egiten duen lana hartzen du jarraibide moduan.

Horrelako zerbitzuak garrantzitsuak dira, zeren ezinbestekoa baita sortzaileen komunitateari jabetza intelektualaren arloan behar den prestakuntza ematea; horrela, artistek eta sorkuntzan aritzen diren pertsonen euren lanari buruz hartzen dituzten erabakiak zentzuzkoak eta arduratsuak izan daitezken. Euren kreatzioek zein eskubide sortzen dituzten eta horietako zein eskubideren titularrak diren jakiteko, zein eskubide utzi dezaketen eta zein ez bereizteko, kudeaketa kolektiboko erakundea dela aditzeko, lizentzia libreak zer diren ulertzeko eta aukeratu duten kudeaketa-ereduarekin bateragarriak diren ala ez jakiteko, eta, azken helburu gisa, hitzarmen bidez konpromisoa hartu eta erabat ulertu gabe kontraturik sinatzen duen pertsona sortzailerik edo interpretarik ez egoteko.

Era berean, garrantzitsua da kudeaketa kulturalean jarduten duten pertsonen prestakuntza eta aholkularitza ematea, euren eskumenak era eraginkorragoan garatzeko behar diren tresnak eskura izan ditzaten.

Abiatu zenez geroztik, hau da, 2016ko maiatzetik 2018ko abendura arte zerbitzu honen bidez erantzun diren kontsultei buruzko ikerketa egin da. Alderdi hauek kontuan hartu dira: urte bakoitzean emandako orduak, erantzun diren kontsulta guztien zenbatekoa, zein kontsulta erantzun dituzten emakumeek eta musikarekin lotutako kontsulteren kopurua. Aintzakotzat hartu da, halaber, kontsulta nondik egin den (EAetik edo kanpotik).

Musikari buruzko gaiak azaltzeko "Copyzer" aholkularitza zerbitzua eskatu duten emakumeen ehunekoa:

2016

- Zerbitzua ematen egin diren orduak guztira: 12 h
- Guztira 13 kontsulta: 8 gizon (% 61,54) eta 5 emakume (% 38,46).
- Musikarekin lotutako kontsultak guztira: 8
- Emakumeek 1, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 14,9 (denak, % 100, EAetik egindakoak)
- Gizonek 7, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 85,71 (denak, % 100, EAetik egindakoak).

2017

- Zerbitzua ematen egin diren orduak guztira: 22 h
- Guztira 22 kontsulta: 18 gizon (% 81,82) eta 4 emakume (% 18,18).
- Musikarekin lotutako kontsultak: 14

- Emakumeek 1, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 7,14 (denak, % 100, EAetik egindakoak).
- Gizonek 13, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 92,86 (EAetik egindakoak, 10, hau da, % 76,92).

2018

- Zerbitzua ematen egin diren orduak guztira: 33 h
- Guztira 27 kontsulta: 13 gizon (% 48,15) eta 14 emakume (% 51,85).
- Musikarekin lotutako kontsultak: 20
- Emakumeek 10, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 50 (EAetik egindakoak 6, hau da, % 60)
- Gizonek 10, hau da, musikarekin lotutako kontsulta guztien % 50 (EAetik egindakoak, 5, hau da, % 50).

	2016		2017		2018	
Zerbitzua ematen egin diren orduak guztira	12 ordu		22 ordu		33 ordu	
Erantzuna jaso dutenak guztira	13		22		27	
Emakumeak	5 (% 38,46)		4 (% 18,18)		14 (% 51,85)	
Gizonak	8 (% 61,54)		18 (% 81,82)		13 (% 48,15)	
Musikarekin lotutako kontsultak guztira	8		14		20	
Emakumeak	1 (% 14,29)	% 100 EAetik	1 (% 7,14)	% 100 EAetik	10 (% 50)	% 60 EAetik
Gizonak	7 (% 85,71)	% 100 EAetik	13 (% 92,86)	% 76,92 EAetik	10 (% 50)	% 50 EAetik

Zerbitzua ematen egindako orduen eta erantzuna jaso duten pertsonen kopuruak handiago egin dira. Nabarmena da zerbitzua eskatu duten emakumeen kopuruaren hazkuntza, 2016an % 38,46 zen eta azken urtean % 51,85.

Musikarekin lotutako kontsultak ere gehiago dira, eta haien artean aipagarria da 2018an emakumeek egindako kontsulten hazkuntza nabarmena.

2.5- MUSIKA-ZIRKUITUAK, MUSIKA-KRITIKA ETA ENTZUTEN OHITURAK

2.5.1 - MUSIKA-ZIRKUITUAK: ZUZENEN MUSIKAREN PROGRAMAZIOA

2018ko Kultura Estatistiken Urtekariak musika-zirkuitu ofizialei buruzko datu kuantitatiboak ematen ditu. Eguneratuta dauden zifrak 2017koak dira. Zifra horiek kontuz erabili behar dira, zeren “radar ofizialetatik kanpo” geratzen diren areto alternatiboek baztertu ezin den sare aberatsa osatzen baitute musika-zirkuituan. Euskal Herrian bereziki garrantzitsua da zirkuitu ofizialetik kanpoko programazio-sarea, hots, gaztetxeek egiten dutena eta autogestionatutako espazio eta jaialdi alternatiboak.

Kontzertu-aretoak

2018ko Kultura Estatistiken Urtekariko 15.11 taulan²² kontzertu-aretoen datuak azaltzen dira, **autonomia erkidegoen arabera banatuta**. Urtekariak dakartzan ohar metodologikoetan azaltzen denez, ikerketan, musika-jarduera egonkorak (aire zabalekoak salbu) eman ditzaketan Estatu osoko areto guztiak sartzen dira, publikoak zein pribatuak.

Estatu espainiarrean 539 areto zeuden guztira 2017an, horietako 18 EAEn zeuden (13 publikoak, 4 pribatuak eta 1 jabetza azaltzen ez dena). Nafarroan 7 areto zeuden (6 publikoak eta 1 pribatua). EAEn aretoen kopurua berdina da azken 5 urteetan, 18 (2017an, estatuko areto guztien % 3,34 zen). 100.000 biztanleko areto kopurua egonkor mantentzen da EAEn, hau da, 0,8 (Andaluzian edo Gaztela-Mantxan dauden kopuru bera eta bakarrik Aragoiren, Extremaduraren eta Murtziaren gainetik).

Aretoaren jabetzaren arabera, EAEn % 72,2 publikoak dira, % 22,2 pribatuak eta % 5,6 aretoen jabetza ez da azaltzen. Datu aipagarria da Extremaduran, Errioxan eta Melillan areto guztiak, % 100, jabetza publikokoak direla. Kontrako muturrean areto publikoen ehuneko txikia duten erkidegoak daude: Balear Uharteak (% 64,3) eta Valentziako Komunitatea (% 65,9).

Musika-jaialdiak

15.18 taula musika-jaialdien datuak azaltzen dira. Jaialdi orokorrak (Urtekarian jaialdi gehienak musika klasikokoak direla azaltzen da, ohiz kanpo bestelakoak ere egin badaitezke ere) eta jazz-jaialdiak eta lehiaketak bereizi egiten dira. Hona hemen datuak:

2017an 887 musika-jaialdi egin ziren Estatuan, horietako 63 EAEn eta 12 Nafarroan.

Estatuan 119 jazz-jaialdi egin ziren, horietako 6 EAEn eta 1 Nafarroan.

Aipagarria da “*La presencia de las mujeres en los festivales en 2018*”²³ txostenean azaltzen den informazioa, emakumeek Estatuko **herri-musikako jaialdi** nagusietan (hainbat generotakoak: pop, rock, elektronikoa, etc.) izan duten presentziari buruzkoa, alegia. Txosten honetan Estatuko jaialdi nagusietako karteletan agertzen diren artistak zenbatu dira eta, horren arabera, emakumeen presentzia % 12,96 da.

²² <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:692cd406-252b-4406-8904-632cc3f7d47f/artes-espectaculo-y-musicales-2018.pdf>

²³ <http://mujeresymusica.com/la-presencia-de-las-mujeres-en-los-festivales-en-2018/>

2018KO JAIALDIA	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
SANSAN	121	3	% 2,41
PIRATA ROCK	115	3	% 2,54
VIÑAROCK	488	17	% 3,36
ROCK FEST	200	9	% 4,30
CABO DE PLATA	127	6	% 4,51
AZKENA	108	8	% 6,89
SONORAMA RIBERA	334	43	% 11,55
ARENAL SOUND	93	11	% 10,57
IBOGA	74	9	% 10,84
CRUÏLLA	121	16	% 11,68
DCODE	50	7	% 12,20
ROTOTOM	212	21	% 12,75
WAM	95	14	% 12,84
MAD COOL	248	38	% 13,28
CARA B	32	5	% 13,51
METRÓPOLI GIJÓN	30	5	% 14,28
INTERESTELAR	99	17	% 14,65
FIB	86	15	% 14,85
BBK	200	40	% 16,66
LOW FESTIVAL	91	21	% 18,75
PRIMAVERA SOUND	296	77	% 20,64
MUWI	56	15	% 21,12
SONAR	156	47	% 23,15
BIORITME	116	59	% 33,71
MEDIA			% 12,96

Taula: Mujeres y Músicak landutako taularen kopia

Zerrendan gure lurraldeko jaialdi garrantzitsuenak sartu dira: **Bilbao BBK Live** (120.000 lagun bertaratu ziren 2018ko edizioan) eta Gasteizko **Azkena Rock Festival** (31.000 lagun bertaratu ziren 2018ko edizioan).

Jaialdien araberako datu zehatzak ikusiko ditugu, 2018ko karteletan emakumeen presentzia zein izan den jakiteko:

Bilbao BBK Live - 2018		
EMAKUMEEN TALDEAK	3	% 3,70
EMAKUMEZKO SOLISTAK/DJAK	7	% 8,50
TALDE MISTOAK	17	% 20,70
GIZONEN TALDEAK	31	% 37,80
GIZONEZKO SOLISTAK/DJAK	24	% 29,30

Taula: Mujeres y Músicak landua

Karteletan agertzen diren emakumeen batezbestekoa % 16,66 da (40 emakume eta 200 gizon).

Azkena Rock Festival - 2018		
EMAKUMEEN TALDEAK	1	% 3,10
EMAKUMEZKO SOLISTAK/DJAK	0	-
TALDE MISTOAK	2	% 6,30
GIZONEN TALDEAK	26	% 81,30
GIZONEZKO SOLISTAK/DJAK	3	% 9,40

Taula: Mujeres y Músicak landua

Karteletan agertzen diren emakumeen batezbestekoa % 6,89 da (8 emakume eta 108 gizon).

Ikusi daitekeenez, EAeko bi musika-jaialdi nagusien karteletan emakumeen presentzia oso txikia da, eta Azken Rock Festival jaialdian ia hondar hutsa da.

Kontzertuak

2018ko Kultura Estatistiken Urtekariko datuak ez daude sexuen arabera banatuta eta datuok ez dute aztertutako jaialdien karteletan emakumeen presentziari buruzko informaziorik ematen; hala ere, balio dezakete Estatuan eta EAEn egindako kontzertuen kopurua testuinguru orokor batean jartzeko.

Estatuko **musika klasikoko kontzertuei** dagokienez, 15.420 kontzertu egin ziren, horietako 1.396 EAEn egin ziren eta 478 Nafarroan.

Estatuko herri-musikako kontzertuei dagokienez, guztira 87.924 kontzertu egin ziren, horietako 3.052 EAEn egin ziren eta 1.074 Nafarroan.

Hain berriak ez badira ere, beste datu zehatzago batzuk ditugu, Kulturaren Euskal Behatokiak 2013an egindako Arteei eta Industria Kulturalei buruzko Estatistika Txostenean: ²⁴

Txosten horren arabera Araban musika programatzen duten 19 erakunde daude, Gipuzkoan 53 eta 59 Bizkaian. Erakunde horiek guztira 4.971 kontzertu egin zituzten EAEn 2013an. Zifra hori bat dator, ministerioko azken estatistiken arabera EAEn guztira egin diren 4.448 kontzertuekin eta Kulturaren Euskal Behatokiak azken urteetan adierazi duen beharantzko joera mantendu egiten da.

Ikusi daitekeenez, erakunde publikoek 2.318 kontzertu programatu zituzten, erakunde pribatuek programatutakoak 748 izan ziren eta kontzertu-aretoek 1.400 programatu zituzten. Hau da, erakunde publikoak izan ohi dira kontzertu gehien sustatzen dituztenak.

Lurraldeka, ez daukagu esparru bakoitzeko datu zehazturik, baina aipagarria da Arabako kontzertuen ehuneko txikia (erakunde publikoek antolatutakoenen % 10,5 eta kontzertu-aretoen % 20,5). Programazio publikoari dagokionez, Gipuzkoan egin dira kontzertu gehien, % 45,4, eta aretoei dagokienez, Bizkaia da ehuneko handiena adierazten duena, ehuneko berarekin.

Euskal Herrian arreta jarriz, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta, datu garrantzitsuenak, berriz ere, *“Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales 2017”*, 1ª versión” txostenak dakartzanak dira.

Txosten horren arabera, ondokoak dira 2017an Euskal Herrian egindako kontzertuei buruzko datuak:

- Musika-taldeek % 38 mistoak dira. Talde mistoetan emakumeen presentzia (% 52,3) gizonena baino handiagoa da (% 47).
- Taldeen % 53 gizon hutsez osatuta dago.
- Taldeen % 9 emakume hutsez osatuta dago.

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
TALDEAK	-	-	-	297
ORKESTRAK	-	-	-	208
ERAKUNDE PUBLIKOEN PROGRAMATUTAKOAK	244 (% 10,5)	1052 (% 45,4)	1022 (% 44,1)	2318
ERAKUNDE PRIBATUEK PROGRAMATUTAKOAK	-	-	-	748
KONTZERTU-ARETOAK	287 (% 20,5)	478 (% 34,1)	636 (% 45,4)	1400
GUZTIRA	-	-	-	4971

Taulara: egileak landua

Lurralde historikoen araberako banaketari buruzko datuak hauek dira:

- Bizkaian erregistratutako taldeen % 5 emakumez osatuta daude, % 62 gizonez osatuta daude eta % 33 mistoak dira.
- Gipuzkoan erregistratutako taldeen % 17 emakumez osatuta daude, % 39 gizonez osatuta daude eta % 44 mistoak dira.
- Araban erregistratutako taldeen % 50 gizonez osatuta daude eta gainerako % 50 mistoak dira. Araban ez dago bakarrik emakumez osatutako taldeei buruzko daturik.
- Nafarroan erregistratutako taldeen % 9 emakumez osatuta daude, % 64 gizonez osatuta daude eta % 27 mistoak dira.

Musika-programazioa: programazioa egiten dutenen profila

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren “Genero Politikak eta Programak” -Kultura Auzolanean 2018-2019- proiektuaren barruangaratutako Datuen Txostenaren 1. bertsioak emandako datuak dira garrantzitsuenak. Musika programatzen jarduten dutenen eginkizun profesionali dagokienez, hauexek dira datuak eta datuoi dagokien analisia:

“Txistu-musikaren eta txistu-taldeen arloan, gizonak dira gehienak kategoria profesional guztietan eta ez dago emakumerik zuzendaritzako postuetan.

Orkestraren arloan, gizonak dira gehienak kategoria profesional guztietan eta ez dago emakumerik zuzendaritzako postuetan. Hala ere, kudeaketan eta administrazioan emakumeak dira gehienak (% 67).

	EGINBIDE PROFESIONALA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEEN %
Musika-taldeak eta txistu taldeak	Zuzendaritza	0	4,6	% 0
	Teknikariak	42,5	115,7	% 27
	Kudeaketa/Administrazioa	0,8	1,6	% 33
Orkestrak	Bestelakoak			
	Zuzendaritza		4	
	Teknikariak	84	90	% 48
	Kudeaketa/Administrazioa	14	7	% 67
Programatzaile publikoak	Bestelakoak		3	
	Zuzendaritza	3,7	5,1	% 42
	Teknikariak	20,9	15	% 58
	Kudeaketa/Administrazioa	7,6	5,8	% 57
Sustatzaile pribatuak	Bestelakoak	12,4	6,7	% 65
	Zuzendaritza	3	11	% 21
	Teknikariak	13,5	21,5	% 39
	Kudeaketa/Administrazioa	7,7	8,7	% 47
Aretoak	Bestelakoak	14,1	14,1	% 50
	Zuzendaritza	2	2,5	% 44
	Teknikariak	1,1	3,1	% 26
	Kudeaketa/Administrazioa	2,5	2,5	% 50
	Bestelakoak	7,6	9,9	% 43

	EGINBIDE PROFESIONALA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEEN %
Guztira	Zuzendaritza	8,7	27,2	% 24
	Teknikariak	161,9	245,3	% 40
	Kudeaketa/Administrazioa	32,6	25,6	% 56
	Bestelakoak	34,1	33,7	% 50

Taula: Kultura Auzolaneanek landutako taularen kopia

Programatzaile publikoen kategorian, zuzendaritzako karguetan salbu, gainerako eginkizunetako karguetan emakumeen ehunekoa handiagoa da. Hala ere, arlo horretan genero-arrakala ez da hain handia (emakumeak % 42 dira).

Sustatzaileen pribatuen arloan, kudeaketako/administrazioko eta "bestelako" eginkizunak parekatuta daude. Genero-arrakala nabarmenena zuzendaritzako postuetan (% 21) eta teknikari-postuetan (% 39) agertzen da."

Beraz, genero-arrakala sektore pribatuan eta erabakiak hartzeko postuetan agertzen da.

2.5.1.1- Musika sinfonikoari buruzko datuak

Gaur egungo zenbait txosten erabiliz, emakumeek musika sinfonikoan duten presentziari buruzko datuak sakabanatzeko aukera daukagu. Arlo hori beste arlo batzuk baino mugatuagoa eta instituzionalagoa da; esaterako, herri-musikekin (pop, rock eta baita jazz ere) eta musika esperimentalekin (elektronikoa, noise, etc.) alderatuz. Arlo sinfonikoari buruzko datuak nekez eskuratzen dira, zeren estiloak hainbat zirkuitutan garatzen baitira eta, gehienak, "radar ofizialetik kanpo" baitaude. Hemen, musika sinfonikoaren arloari dagozkion zifrak azalduko ditugu. Arlo hori buruzko zenbait ikerketa daude EAEn egiten diren ekintzak Estatuko esparruaren barruan testuinguruan jartzeko balio dituztenak.

Programatutako obrak eta orkestra-zuzendaritza

Estatuko datuak

Berriz ere, lehenago aipatu dugun "¿Donde están las mujeres en la música sinfónica?" deritzon ikerketa aintzat hartuz,

oraingoan arreta gunea da, Espainiako orkestra sinfonikoen programazioan sartzen diren emakumeen obren konposizioen kopurua eta programazio hori osatzen duten emakume zuzendarien kopurua da (2016-2017 denboraldia). Lortu diren datu orokorrak hauek dira:

- Programatutako obrak: guztira 1997 obra programatu ziren, eta horietako 16 emakume konposatzaileenak izan ziren (programatutako obren % 1).
- Orkestra-zuzendaritza: 167 pertsona aritu ziren orkestra-zuzendaritzan, horietako 8 emakumeak izan ziren, hau da, orkestra-zuzendarien % 5.
- Zuzendutako kontzertuak: guztira 668 izan ziren eta horietako 24 emakumeek zuzendutakoak izan ziren (% 4).

Euskal Herriko datuak

EAEko orkestrei buruzko datuei dagokienez, hauxe lortu dugu:

Euskadiko Orkestra (OSE)

- Programatutako obrak: guztira 170 obra programatu ziren, horietako bat ere ez zen emakume batek konposatutakoa (% 0).
- Orkestra-zuzendaritza: orkestra zuzentzen jardun zuten pertsonak 8 izan ziren guztira eta horietako bat ere ez zen emakumea (% 0).
- Zuzendutako kontzertuak: guztira 55 kontzertu izan ziren eta horietako bat ere ez zuen emakume batek zuzendu (% 0).

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)

- Programatutako obrak: guztira 117 obra programatu ziren, eta horietako 2 emakume konposatzaileenak izan ziren (% 2).
- Orkestra-zuzendaritza: orkestra zuzentzen jardun zuten pertsonak 11 izan ziren guztira eta horietako 1 emakumea izan zen (% 9).
- Zuzendutako kontzertuak: guztira 33 kontzertu izan ziren eta horietako 2 emakumeek zuzendutakoak (% 6).

Hara Nafarroako datuak:

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

- Programatutako obrak: guztira 110 obra programatu ziren, horietako bat ere ez zen emakume batek konposatutakoa (% 0).
- Orkestra-zuzendaritza: orkestra zuzentzen jardun zuten pertsonak 10 izan ziren guztira eta horietako bat ere ez zen emakumea (% 0).
- Zuzendutako kontzertuak: guztira 32 kontzertu izan ziren eta horietako bat ere ez zuen emakume batek zuzendu (% 0).

Zifrak oso adierazgarriak dira, musika sinfonikoaren programazioan emakumeek izan zuten presentziari dagokionez.

Emakumeen presentzia orkestra nagusienetan

2019ko otsailean, *“Reportaje de datos sobre la brecha de género en la música profesional”*²⁵ erreportajea argitaratu zen. Erreportajea, orkestra profesionalean aritzen diren emakume instrumentisten ehunekoari buruzko datuak azaltzen dira. Datuok 2018ko maiatzean bildutakoak dira. Ikerketa honetan emakumeen presentziari buruzko datuez gain, aipagarriak dira, halaber, emakumeen eta gizonen

artean musika profesionalean dagoen desberdintasunarekin lotutako alderdiak: alde batetik, prestakuntzaren eta profesionalizatzearen artean izaten den arrakala eta, bestetik, musika-instrumentua aukeratzekoan nagusi diren estereotipoak. Txosten honetan, horri buruzko hausnarketa egingo dugu aurrerago.

Estatuko eta Europako datuak

Erreportaje honetan Europa osoko 103 orkestra aztertu dira. Hona hemen datu aipagarrienak:

Gaur egun, Europako orkestretako emakume instrumentisten ehunekoa % 35 da eta gizonena % 65.

Espainiako estatuan emakumeen batezbestekoa % 34 da eta gizonena % 66, Europako batez bestekotik hurbil.

Euskal Herriko datuak

EAEko bi orkestra nagusiei eta Nafarroako garrantzitsuenari dagokionez, orkestra bakoitzaren web-orria kontsultatuz datu erabat eguneratuak lortu ditugu.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa²⁶

- Kideak guztira: 80
- Emakumeak guztira: 27 (% 33,75)
- Gizonak guztira: 53 (% 66,25)

Euskadiko Orkestra²⁷

- Kideak guztira: 95
- Emakumeak guztira: 31 (% 32,63)
- Gizonak guztira: 64 (% 67,37)

²⁵ Aránzazu Cruz analista eta kazetariak egindako erreportajea. <https://brechageneromusicaprofesional.aranzazucruz.com/-en-argitaratua>.

²⁶ <https://bilbaorkestra.eus/la-orquesta/musicos/>

²⁷ <https://es.euskadikoorkestra.eus/orquesta/los-musicos>

Bilbao Orkestra Sinfonikoa		
Instrumentua	Emakumeak	Gizonak
Concertinoa 2	1	0
Lehen biolinistak	7	4
Bigarren biolinistak	2	10
Biola-jotzaileak	4	5
Biolontxelo-jotzaileak	5	2
Kontrabaxu-jotzaileak	2	5
Txirulariak	0	3
Oboe-jotzaileak	1	3
Klarinete-jotzaileak	0	4
Fagot-jotzaileak	1	3
Tronpa-jotzaileak	1	4
Tronpeta-jotzaileak	1	3
Tronboi-jotzaileak	0	3
Tuba-jotzaileak	0	1
Perkusionistak	1	3
Harpa-jotzaileak	1	0

Taula: egileak landua

Euskadiko Orkestra		
Instrumentua	Emakumeak	Gizonak
Lehen biolinistak	9	6
Bigarren biolinistak	6	7
Biola-jotzaileak	5	7
Biolontxelo-jotzaileak	5	5
Kontrabaxu-jotzaileak	1	6
Txirulariak	2	2
Oboe-jotzaileak	0	4
Klarinete-jotzaileak	1	4
Fagot-jotzaileak	1	3
Tronpa-jotzaileak	0	7
Tronpeta-jotzaileak	0	4
Tronboi-jotzaileak	0	4
Tuba-jotzaileak	0	1
Perkusionistak	0	4
Harpa-jotzaileak	1	0

Taula: egileak landua

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa²⁸

Kideak guztira: 49

Emakumeak guztira: 16 (% 32,65)

Gizonak guztira: 33 (% 67,35)

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa		
Instrumentua	Emakumeak	Gizonak
Lehen biolinistak	6	6
Bigarren biolinistak	4	4
Biola-jotzaileak	3	4
Biolontxelo-jotzaileak	2	4
Kontrabaxu-jotzaileak	0	3
Txirulariak	0	2
Oboe-jotzaileak	0	1
Klarinete-jotzaileak	1	1
Fagot-jotzaileak	0	2
Tronpa-jotzaileak	0	2
Tronpeta-jotzaileak	0	1
Tronboi-jotzaileak	0	2
Tinbal-jotzaileak	0	1

Kasu guztietan, orkestra nagusienetan emakumeen presentzia heren batekoa da, gizona guztien presentziarekin alderatuz.

2.5.2- MUSIKA-KRITIKA

Estatuko datuak

Ez daukagu Estatuko musika-kazetaritzari buruzko datu ofizialik. 2018ko Kultura Estatistiken Urtekariak dakarrenez, kultura arloko enpleguak dira eta kontuan hartu diren lanbideak "idazleak, kazetariak eta hizkuntzalariak"²⁹ izan dira. Datu horiek, musikaz gain, kulturaren beste edozein arlo hartzen dute eta ez daude sexuaren arabera banatuta.

EAEko datuak testuinguruan jartzeko Estatuko prentsaren ikerketa egitea, gure lan honen ahalbideetatik kanpo geratzen zenez, gai horri buruzko iturri bakanetako bat erabili behar izan dugu, hau da, Sara Peláez, kultura-kazetariaren "¿Dónde

²⁸ <http://www.orquestadenavarra.es/orquesta/musicos/>

²⁹ Lanbideen Sailkapen Nazionalen adierazten denez, CNO 2011, 292 kodea

están las periodistas españolas que escriben sobre música?" ³⁰ izeneko erreportajea. Lan horretan, Estatuko hedabide nagusietako langileen zerrenda analizatzen da. (2015eko abenduako datuak).

Mondosonoron, 28 kolaboraziotik 3 besterik ez ziren emakumeek sinatutakoak (% 10,71).

Rockdeluxen ehunekoa apur bat handiagoa zen, % 14,89, eta 94 kolaboraziotik 14 emakumeek sinatutakoak ziren.

Efe Emen, ehunekoa % 13,89 zen eta 36 kolaboraziotik 5 emakumeek sinatutakoak ziren.

Muzikalian, ehunekoa % 33,33 zen eta 15 kolaboraziotik 5 emakumeek sinatutakoak ziren.

Indiespoten 7 langile daude eta bat ere ez da emakume kazetaria.

Erreportaje berean, PAM (Periodistas Asociados de Música) elkarteari buruz hitz egiten da: 2016an 119 kide zituen eta horietako 26 emakumeak ziren (% 21,81).

Euskal Herriko datuak

Euskal Herrian diskoen eta/edo kontzertuen iruzkinak egiten dituzten 7 komunikabide hautatu ditugu, musikan espezializatutako kolaborazioetan emakumeen sinadurak zenbat diren egiaztatzeko.

Aldizkari espezializatu garrantzitsuenean, *Mondosonoron* (*Zarata* deritzon lurralde edizioan), 2018an eta 2019an komunikabide horren bertsio digitalean agertutako Euskal Herriko kontzertuen iruzkinak errepatatuz, 24 langile kolaboratzaileen artean, emakumeen 4 sinadura aurkitu ditugu. Ehunekoa % 16,66 da.

Emakume idazle horietako batek *Deia* egunkariko musika-sailean eta musikako *RockinBilbo* web-orrian ere kolaboratzen du.

Badira beste komunikabide batzuk, espezializatuak ez izan arren, musikari buruzko iruzkinak eta kritikak ekartzen dituztenak. Emakume kazetariak ez dira bakarrik musika-

erredaktoreak eta beste arlo batzuetan ere aritzen dira: El Correon emakume baten sinadura aurkitu dugu eta Garan bi emakumeena.

Argian musikari buruz idazten duen emakume bat kolaboratzen hasi da.

Komunikabide garrantzitsuenean iruzkintzen diren emakumeen proiektuen ehunekoa ezagutzeko eta balorazio horien artean emakumeek egindakoak zenbat diren jakiteko, azken 3 urteetan Mondosonorok (*Zaratak*) egin dituen "Listas de lo mejor del año" (Urteko onenen zerrenda) izeneko zerrendak hartu ditugu.

Zarata > 2018ko diskorik onenen zerrenda

- Zerrendak 43 diskoren iruzkinak dakartza.
- Loturadun iruzkinetako bat ere ez du emakume batek sinatu.
- Aukeratutakoaren artean 8 diskotan emakumeak dira proiektu-buruak (2 Bizkaian, 5 Gipuzkoan eta 1 Nafarroan), hau da, guztizkoaren % 18,6.

Zarata > 2017ko diskorik onenen zerrenda

- Zerrendak 40 diskoren iruzkinak dakartza.
- Loturadun eranskin bakarrak du emakume baten sinadura (guztizkoaren % 2,5). Aipagarria da emakume batek iruzkindutako disko bakar hori emakume hutsez osatutako talde batena dela.
- Aukeratutakoaren artean 9 diskotan emakumeak dira proiektu-buruak (2 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 3 Nafarroan), hau da, guztizkoaren % 22,5.

Zarata > 2016ko diskorik onenen zerrenda

- Zerrendak 30 diskoren iruzkinak dakartza.
- Loturadun iruzkinetako bat ere ez du emakume batek sinatu.
- Aukeratutakoaren artean 9 diskotan emakumeak dira proiektu-buruak (2 Bizkaian, 5 Gipuzkoan eta 2 Nafarroan), hau da, guztizkoaren % 30,0.

2016 eta 2018 bitarteko urteko onenen zerrendan sartzen diren emakumeen proiektuetako bat ere ez da Arabakoa. Emakumeek iruzkindutako disko bat ere ez da iritsi zerrendetako 1 postura.

2.5.3 - MUSIKA ENTZUTEKO ETA MUSIKAZ DISFRUTATZEKO OHITURAK

Estatuko eta nazioarteko datuak

Musikari buruzko interesa

Sexuaren arabera banatutako datuei dagokienez, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren Ohitura eta Jardunbide Kulturalei buruzko Inkestak ³¹ (bertsiorik berriena 2014/2015 da) estatuko populazioak **musikari buruz duen interesaren** ikuspegi orokorra ematen du.

0 eta 10 bitarteko eskalan, estatuko populazioak musikari buruz duen interesaren batezbesteko orokorraren balorazioa % 7,3 da (emakumeen balorazioa % 7,4 da eta gizonena % 7,2).

Estiloen arabera, musika klasikoko kontzertuen balorazioa, batez beste, % 4,4 da (emakumeen balorazioa % 4,6 da eta gizonena % 4,1), gaur egungo musikako kontzertuen balorazioa % 6,2 da (emakumeen balorazioa % 6,3 da eta gizonena % 6,0). Musika entzuten jardutearen balorazioa % 7,5 da (emakumeena % 7,6 eta gizonena % 7,4).

Ikusi daitekeenez, oro har, emakumeen balorazioa gizonena baino handiagoa da, bai musika entzuten jarduteari dagokionez, bai kontzertu klasikoei zein gaur egungoei dagokienez.

	Musika orokorrean	Musika klasikoko kontzertuak	Gaur egungo musikako kontzertuak	Musika entzuten jardutea
Guztira	7,3	4,4	6,2	7,5
Emakumeak	7,4	4,6	6,3	7,6
Gizonak	7,2	4,1	6	7,4
EAE	6,9	3,6	5,6	7,1
Nafarroa	7,3	4,9	6,4	7,5

Taula: egileak landua

Inkesta berean lurralde bakoitzeko datu orokorrak azaltzen dira (ez daude sexuaren arabera banatuta):

- EAEn musikaren interesari buruzko batez besteko balorazio orokorra % 6,9 da eta Nafarroan % 7,3 da.
- Musika klasikoko kontzertuen batez besteko balorazioa EAEn % 3,6 da eta Nafarroan % 4,9 da.
- Gaur egungo musikako kontzertuen batez besteko balorazioa EAEn % 5,6 da eta Nafarroan % 6,4 da.
- Musika entzuten jardutearen batez besteko balorazioa EAEn % 7,1 da eta Nafarroan % 7,5 da.
- Aipagarria da Nafarroan musikaren balorazioa EAEn baino handiagoa dela. EAEkoa estatuko batezbestekoaren azpitik dago.

Egindako kontzertuak eta publikoari dagozkion zifrak

2018ko Kultura Estatistiken Urtekariko 15.27 taulan, **musika klasikoko kontzertuei** dagozkien Estatuko datuak azaltzen dira.

- 2017an 15.420 kontzertu egin ziren Estatuan, eta 4.972.000 pertsona bertaratu ziren publiko gisa.
- Kontzertu horietako 1.396 EAEn egin ziren (Estatuko guztizkoaren % 9,05) eta Nafarroan 478 egin ziren (Estatuko guztizkoaren % 3,10).
- Kontzertuetara joan zen publikoari dagokionez, EAEn 607.000 pertsona bertaratu ziren (Estatuko guztizkoaren % 12,21) eta Nafarroan 184.000 pertsona joan ziren kontzertuetara (Estatuko guztizkoaren % 3,70).

Herri-musikako kontzertuak 15.28 taulan azaltzen dira:

- 2017an 87.924 kontzertu egin ziren Estatuan, eta 20.927.000 pertsona bertaratu ziren publiko gisa.
- Kontzertu horietako 3.052 EAEn egin ziren (Estatuko guztizkoaren % 3,47) eta Nafarroan 1074 egin ziren (Estatuko guztizkoaren % 1,22).
- Kontzertuetara joan zen publikoari dagokionez, EAEn 1.359.000 pertsona bertaratu ziren (Estatuko guztizkoaren % 6,49) eta Nafarroan 293.000 pertsona (Estatuko guztizkoaren % 1,4).

31 <http://www.culturaydeporte.gob.es/servicios-al-ciudadano/estadisticas/cultura/mc/ehc/portada.html>

Kultura eta Kiroleko Ministerioaren Ohitura eta Jardunbide Kulturei buruzko Inkestan, **azken urtean musikarekin lotutako jardueraren bat egin duten pertsonen** buruzko datuak azaltzen dira. **Musika-ikuskizunetara joan diren** pertsonen dagokienez, eguneratutako azken zifrak 2014-2015ekoak dira (kolektibo bakoitzeko populazioaren ehunekotan adierazita). Ikusi daitekeenez, populazioaren % 29,2 musika-ikuskizunetara joan zen (emakumeen % 28,4 eta gizonen % 30).

Azken urtean kontzertuetara joan diren pertsonen kopurua (2014/2015)				
	Guztira (mila-koetan)	Kontzertuetara bertaratuak	Musika klasikoko kontzertuetara bertaratuak	Gaur egungo musikako kontzertuetara bertaratuak
Guztira (milakoetan)	38.956	11.375	3.335	9.556
%	100	29,2	8,6	24,5
Emakumeak	19.951	28,4	9,2	23,2
Gizonak	19.005	30	7,9	25,9
EAE	1833	36,5	8,6	31,4
Nafarroa	528	45,3	14,1	37,9

Taulara: egileak landua

Gaurko musikako kontzertuetara joandako pertsonen kopurua, musika klasikoko kontzertuetara bertaratuakoa baina handiagoa da (% 24,5 eta % 8,6 hurrenez hurren).

Musika klasikoko ikuskizunetara joan ohi diren emakumeen ehunekoa handiagoa da (emakumeen % 9,2 eta gizonen % 7,9).

Gizonek nahiago dituzte gaurko musikako kontzertuak. Bertaratzen diren gizonen % 25,9 eta emakumeen % 23,2).

EAEn, populazioaren % 36,5 kontzerturen batera joan zen azken urtean, % 8,6 musika klasikoko kontzertuetara eta % 31,4 herri-musikako kontzertuetara.

Nafarroan, populazioaren % 45,3 kontzerturen batera joan

zen azken urtean, % 14,1 musika klasikoko kontzertuetara eta % 37,9 herri-musikako kontzertuetara.

Ikusi daitekeenez, batezbesteko orokorra, EAEn zein Nafarroan Estatuko baina handiagoa da. Nafarroako ehunekoa bereziki handia da.

Jaialdietan arreta jarritz, sexuaren arabera banatutako datua (2016koa) Natividad Buceta Albillosek egindako "El hit de los festivales de Música en España" izeneko OBS Business School Txostenak dakar. Txosten horren arabera, Espainian musika-jaialdietara joaten direnen ia % 58 emakumeak dira.

Musika entzuteko ohiturak

Kultura Ohiturei eta Jardunbideei buruzko Inkesta estatalak ere datu oso baliotsuak eta zehatzak dauzka, musika erosteari edo eskuratzeari dagokionez eta jendeak nahiago dituen kanalei eta euskarri dagokionez.

Entzuteko maiztasuna

Lehen aipatutako inkestako 5.4 taulan azaltzen denez, batez bestez, jendearen % 65,4 egunero entzuten du musika (emakumeen % 63,9 eta gizonen % 67).

Gutxienez astean behin musika entzuten dutenen ehunekoa % 82,8 da (emakumeen % 80,9 eta gizonen % 84,8).

Inoiz ere edo ia inoiz ere musika entzuten ez dutenen ehunekoa % 12,8 da (emakumeen % 14,3 eta gizonen % 11,1). Autonomia Erkidegoko, EAEn, musika egunero entzuten duen jendea % 59,5 da eta Nafarroan, ehunekoa % 68 da. EAEn, gutxienez astean behin musika entzuten duen jendea % 81,9 da eta Nafarroan % 82,1.

Berriz ere Nafarroako ehunekoak handiagoak dira, baina, era berean, inoiz ere edo ia inoiz ere musika entzuten ez duen jendearen ehunekoa ere handiagoa da (% 10,8 EAEn eta % 12,9 Nafarroan).

Argi dago, emakumeek gizonen baina musika gutxiago entzuten dutela, nahiz eta, lehen frogatu denez, gizonen baina balorazio handiagoa eman musika entzuteari eta kontzertuetara joateari.

Musika entzuteko ohituraren maiztasunaren arabera kopurua. (2014/2015)							
	Guztira (milakoetan)	Egunero entzuten dute	Astean behin, gutxienez	Hilean behin, gutxienez	Hiru hilabetetik behin, gutxienez	Urtean behin, gutxienez	Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez
Guztira	38.956	25.492	32.267	33.316	33.656	33.988	4.969
%	100	65,4	82,8	85,5	86,4	87,2	12,8
Emakumeak	19.951	63,9	80,9	83,8	84,8	85,7	14,3
Gizonak	19.005	67	84,8	87,4	88,1	88,9	11,1
EAE	1833	59,5	81,9	85,6	87,2	89,2	10,8
Nafarroa	528	68	82,1	85,3	86,6	87,1	12,9

Taula: egileak landua

Hedabide eta kanal gogokoan

Musika entzuteko hedabiderik gogokoena irrati da (jendearen % 75,3), eta irratiaren atzetik bestelako ekipoa, adibidez, eskuko telefonoa (% 30,3 aukeratzen du).

Sexuaren arabera banatutako datuen arabera, emakumeen % 75,1ak eta gizonen % 75,5ak nahiago dute irrati, eta emakumeen % 30,3ak eta gizonen % 30,2ak eskuko telefonoa aukeratzen dute.

Ikusi daitekeenez, musika entzuteko hedabide edo kanal gustukoena aukeratzeko orduan ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean.

Musika erosteko/eskuratze ohiturak

Batez beste, hiruhilabeteko batean, jendearen % 7,6ak musika doan grabatu edo deskargatu du CD edo DVD formatuan (emakumeen % 6,4 eta gizonen % 8,8).

Batez beste, 7,1 CD edo DVD deskargatu dira (5,4 emakumeek eta 8,3 gizonak).

Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta, EAeko jendearen % 6,8ak eta Nafarroako % 7,1ak musika doan grabatu edo deskargatu dute CDan edo DVDan hiruhilabeteko batean.

Hiruhilabeteko batean CDak edo DVDak doan grabatu edo deskargatu duten pertsonak (2014/2015)		
Guztira (milakoetan)	Populazioaren %	Grabatutako edo deskargatutako CDen edo DVDen batez besteko kopurua
Guztira %	7,6	7,1
Emakumeak	6,4	5,4
Gizonak	8,8	8,3
EAE	6,8	7,6
Nafarroa	7,1	7,7

Taula: egileak landua

Deskargatutako CDen eta DVDen batez besteko kopuruari dagokionez, ez dago alde nabarmenik (EAEn, 7,6 eta Nafarroan 7,7).

Hiruhilabeteko batean musika-piezak grabatu edo deskargatu dituzten pertsonak		
Guztira (milakoetan)	Populazioaren %	Musika-piezen batez besteko kopurua
Guztira %	15,9	43,4
Emakumeak	14,3	35
Gizonak	17,6	50,6
EAE	18,6	44,3
Nafarroa	16,9	44,8

Taula: egileak landua

Batez beste, hiruhilabeteko batean, jendearen % 15,9ak doan grabatu edo deskargatu ditu musika-piezak (emakumeen % 14,3 eta gizonen % 17,6).

Batez beste, 43,4 musika-pieza deskargatu dira (35 emakumeek eta 50,6 gizonek).

Musika deskargatzen duten emakumeak gutxiago dira (formatua dena delakoa izanda) eta deskargatzen duten emakumeak gutxiago deskargatzen dute.

Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta, EAEko jendearen % 18,6ak eta Nafarroako % 16,9ak musika-piezak doan grabatu dituzte hiruhilabeteko batean.

Deskargatutako musika-piezen batez besteko kopuruari dagokionez, ez dago alde nabarmenik (EAEn, 44,3 eta Nafarroan, 44,8). CDen eta DVDen batez besteko kopuruarekin gertatzen den legez, EAEn eta Nafarroan doan grabatzeko joera Estatuan baino handiagoa dela ikusten da.

Hiruhilabeteko batean musika erosi duten pertsonak (2014-2015)				
	CD-DVD		Musika-piezak	
	Populazioaren %	CDen edo DVDen batez besteko kopurua	Populazioaren %	Musika-piezen batez besteko kopurua
Guztira %	9,4	2,8	1,1	23,8
Emakumeak	8,5	2,7	0,8	14,5
Gizonak	10,3	2,8	1,3	29,8
EAE	8,2	2,2	Ez dago daturik	Ez dago daturik
Nafarroa	7,8	2,1	Ez dago daturik	Ez dago daturik

Taula: egileak landua

Musika erosteko ohiturari dagozkion datuen arabera, ikusi daitekeenez, populazioaren % 9,4ak musika erosi du CD edo DVD formatuan (emakumeak % 8,5 eta gizonak % 10,3). Musika-piezak erosteari dagokionez, batez besteko ehunekoa txikiagoa da: % 1,1 (emakumeak % 0,8 eta gizonak % 1,3).

Deskargekin gertatzen den bezala, musika erosten duten emakumeak gutxiago dira (formatua dena delakoa izanda) eta erosten duten emakumeak gutxiago erosten dute.

Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta, hiruhilabeteko batean, EAEko jendearen % 8,2ak eta Nafarroako % 7,8ak musika erosi dute.

Aipagarria da, ministerioaren inkestan binilozko diskoen erreferentziarik ez egotea, are gehiago, azken aldiak eta ikerketa egin zen urteetan ere bai, gehien saltzen diren formatuetako bat dela kontuan hartuta. PROMUSICAEK (Espainiako musika-ekoizleak) *“Mercado Música grabada en España”*³³ deritzon txostena argitaratu du 2019an, 2018ko datuak erabiliz. Txosten horren arabera, euskarri fisikoei dagokienez, salmenten % 78,9 CDak dira eta binilozkoak salmenten % 17,2 dira. Txostenak dakartzan datuen arabera, binilozko diskoa formatuak salduenetako bat da 2014az geroztik.

Arlo digitalean, *streaming*-eko plataformetako harpidetzak dira merkatu-kuota handiena hartzen dutenak (guztizkoaren % 68,3), eta hurrengoak publizitadedun bideo-plataformak dira (% 14,4).

Musika-industriaren diru-sarrerez gain, eta nazioartean musika entzuteko duten ohitura testuinguruan jartzeko, Fonografia Industriako Nazioarteko Federazioak (IFPI) 2018an argitaratu zuen *“Music Consumer Insight Report 201”*³⁴ ikerketa erabili dugu.

Ikerketa horren arabera, musika entzuten dutenen % 86ak *streaming*-eko plataformak erabiltzen du (audioko eta bideoa plataformak barne). % 75ak *smartphonea* erabili ohi du musika entzuteko eta % 38ak titularren jabetza intelektuala hausten du musika lortzeko.

Espainiako estatuan % 63ak erabili ohi du audioko *streaminga* (PROMUSICAEk azken txostenean ematen duen zifraren antzekoa).

Gaur egun bideoak musika entzutearekin duen lotura estua oso datu garrantzitsua da eta geroago aztertuko ditugu datu horrek dituen ondorioak.

Interneten musika entzuten ematen den denboraren % 52, bideo-plataformen bidezkoa da. Denbora horren % 47 YouTubek hartzen du; beraz, ikus-entzunezko plataforma hori da jendeak musika entzuteko gehien erabiltzen duen kanala. Irratia, hala ere, mantendu egiten da kanal nagusi gisa nazioartean, musika entzuten duen jendearen % 86ko

batez besteko kuotarekin. Espainiako estatuan, musikaz disfrutatzeke irratia erabileraren batezbestekoa % 87koa da, nazioarteko zifra baino pixka bat handiagoa.

Euskal Herriko datuak

Kultura eta Kiroleko Ministerioaren txostenak erabiliz, publikoaren ohituren datu orokorrak lurraldeka banatu ditugu. Garrantzitsua da aipatzea, jendeak duen musikaren interesari eta musika entzuteko ohiturei dagokienez, Euskal Herrian ez dagoela sexuaren arabera banatutako datuak dauzkan txosten ofizialik. Gure txosten honetan garrantzitsutzat jotzen dugu arlo horretan ikerketaren bat garatzea, zeren, lehenago azaldu dugunez, sexuaren arabera banatutako datuen bidez ikuspegi benetan baliagarria lortzen baita, publikoaren prestakuntzarekin eta kulturaz disfrutatzea piztearekin zerikusia duten jarduerak asmatzeko eta proposatzeko eta musika-lan berriak ekoizteko.

Kultura-jarduera gogokoena

“Kultura Ohiturei buruzko Panela” (4. jasoaldia, 2018)³⁵ deritzon Kulturen Euskal Behatokiaren dokumentuaren xedea herritarren kultur ohiturak ulertzen sakontzea da. KEBak berak azaltzen duenez, *“Ikerketa hori egiteko, lagin-unitate beraren jarraipena egiten da denbora jakin batean, jarraipen horrek aukera ematen baitu inguruabarrak maila indibidualean behatzeko, zeinak aldaketa-patroien ezaugarriak zehazteko lagungarri diren”*. Zifrak testuinguru orokorrean jartzeko baliagarriak badira ere, ez dira nahikoa emakumeen eta gizonen ohitura desberdinak azaltzeko, zeren datuak ez baitaude sexuen arabera banatuta.

Panel horretan garrantzitsua da aipatzea parte-hartze hartzaileko kultura-jarduerarik ohikoena kontzertuetara joatea dela (% 75,0 joan ohi da kontzertuetara). Parte-hartze sortzaileko kultura-jarduera nagusia instrumenturen bat jotzea da (% 13,5) eta jarduera digitalen artean bigarrena musika entzutea edo deskargatzea da (% 62,2, filmak, serieak edo bideoak ikustearen atzetik). Kontzertuak formatu digitalean ikustea bosgarren jarduera da (% 21,1).

³³ <https://www.promusicae.es/estaticos/view/4-informes-promusicae>

³⁴ <https://www.ifpi.org/downloads/Music-Consumer-Insight-Report-2018.pdf>

³⁵ <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/panel-de-habitos-culturales-4-oleada-2018/r46-19123/es/>

Musika entzuteko eta disfrutatzeke Euskal Herriko ohiturei buruz sakontzeko datu orokorrak Elkar Fundazioak 2018an argitaratutako *“Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohituren ikerketa”*³⁶ deritzon dokumentutik hartu ditugu. Berriz ere, datuak interesgarriak dira testuinguruan jartzeko, baina ez dira nahikoa, zeren musikari dagokionez ez baitute sexuaren arabera banatutako daturik adierazten.

Euskal Herriko biztanleek musika entzuteko dituzten ohiturak

Entzuteko maiztasuna

- 10etik 6 pertsonak musika egunero entzuten dutela diote (% 60) eta 10etik 2k astean behin entzuten dute, gutxienez.
- 10etik 1ek (% 10) inoiz ez du inoiz musikarik entzuten.

Datu horiek estatuko batezbestekoaren antzekoak dira.

Hedabide eta kanal gogokoenak

- Inkestan parte hartu duten pertsonen % 42k irratia du gogokoen musika entzuteko hedabide gisa. Bigarren gogokoenak (% 31) eskuko gailu elektronikoak dira; eskuko telefonoa, esaterako.

Euskal Herriko biztanleek musika erosteko/ eskuratzeko dituzten ohiturak

- Euskal biztanleen % 29,5k disko fisiko bat erosi du azken urtean.
- % 26ak doako musika eskuratu du formatu digitalean.
- % 6ak musika erosi du formatu digitalean.


“Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales, 2017, 1ª versión” izeneko txostenean aztertutako Kulturkliken datuen bidez zuzeneko musikari zorrotz begiratuz, ondorio hauek lortu ditugu:

Kartelean artista emakumeak edo emakumeen presentzia duten taldeak agertzen badira kontzertuen prezioa nabarmen aldatzen da, gainerako kontzertuekin alderatuz.

- Bakarrik emakumeek jotzen duten kontzertuetan, batez besteko prezioa 7,5€koa da, gizonez osatutako proiektuen kontzertuen 14,77 €ko batez besteko prezioaren erdia ia.
- Bi zifra horien erdian emakumez eta gizonez osatutako taldeen kontzertuen batez besteko prezioa daukagu: 9 €.

Kontzertuen orduak dagokienez, txostenean haxe azaltzen da:

- Bakarrik emakumez osatutako taldeei dagokienez, ez dago goizean egindako kontzertuei buruzko daturik. % 50 gizonez osatutako talde bati dagokio eta gainerako % 50 talde misto batena da. (Kasu horretan, bi talde baino ez daude goizeko ordutegian).
- Arratsaldeko ordutegian, emakumez osatutako taldeak % 5 dira eta gizonez osatutakoak % 58. Talde mistoak % 27 dira.
- Gaueko ordutegian, emakumez osatutako taldeak % 3 dira eta gizonez osatutakoak % 52. Talde mistoak % 45 dira.





3. AZTERKETA KUALITATIBOA ETA HAUSNARKETAK

lkerketa honen ikuspegi kualitatiboan gaiari buruzko hainbat iturri eta ikuspuntu aintzat hartu ditugu. Ikuspuntu horiek hainbat adierazpen pertsoaletan bildu ditugu, 33 elkarrizketaren bidez. Musika-sortzaileez gain, elkarrizketak beste pertsona interesgarri batzuei ere egin zitzaizkien. Pertsona horiek, besteak beste, erakunde, elkarte, hezkuntza-arlo edota kudeaketa kulturekin lotuta daude eta Musikologiako, Soziologiako eta Artearen Historiako arloetakoak dira. Elkarrizketa horietan tratatutako gaiak eta elkarrizketatutako pertsonen profilak eta ikuspegiak erantsitako metodologian eta taulan zehaztu dira.

Erantzunak aztertuta, jarraibide komunak eta egoera errepikatuak ikusi ditugu eta, halaber, azken urteetan nabarmen aldatu diren bestelako eredu batzuk ere antzeman eta lotu ahal izan ditugu.

Jarraian, lehen pertsona erabiliz eta iritzi artikulua gisa, testuinguratze soziopolitiko eta ikerketan behin eta berri azaldu diren gaien analisia egingo dira. Ilustratzeko, elkarrizketatutako zenbait pertsonaren adierazpenen zatiak erabiliko dira eta, gainera, lan honetan erreferentziatzat hartu ditugun material interesgarrietatik ateratako aipamenak.

3.1 - TESTUINGURATZE SOZIOPOLITIKOA

Zenbait emakume autorek "feminismoaren laugarren olatua" deitzen duten hori une historiko berri bat da. Mugimendu eta manifestazio global jendetsuez markatutako garaia bizi dugu, emakumeen aurkako indarkeria salatzen eta haien eskubideen alde borrokatzen duten eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erreklamatzeko martxoaren 8aren inguruko mobilizazio sozial garrantzitsuak barne. Irrikatzen dugun berdintasun hori da, hain zuzen ere, agenda politikoetan sartzeko den konpromiso nagusietako bat da zenbait urtez gerotik; hala ere, egiten ari garen txosten honen antzeko beste batzuk frogatzen dutenez, errealitatea izatetik urrun dago oraindik.

Nazioarteko zenbait erakundek duela gutxi abian jarri dituzten estrategietan eta planifikazioetan arreta jarri dute emakume

sortzaile artistikoengan eta haiek gaurko ekosistema kulturean duten egoeran:

Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak (WIPO) bat egin zuen 2014an, berdintasunaren gaiarekin lotutako politikak ezarri dituzten erakundeekin. *WIPOk egiten duen generoen berdintasunari buruzko politikaren*³⁷ helburua genero-ikuspuntua Erakundearen politiketan eta programetan sartzeko esparru orokorra ezartzea da. 2015eko urriaren 13an, WIPOk "Emakumeak eta jabetza intelektualak" gaiari buruzko mahai-ingurua egin zuen Batzarretan. Une historikoa izan zen, zeren, WIPOren batzarretan jabetza intelektualari buruzko genero-kontuak aztertzen ziren lehenbiziko aldia izan baitzen³⁸.

Urte berean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen. Agenda horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta, bosgarren helburuaren arabera, emakumeen ahalduntzea lortzeko nazioarteko komunitatearen konpromisoa bultzatzen da, honako ideia honetan oinarrituz: *"generoen arteko berdintasuna funtsezko giza eskubidea izateaz gain, mundu baketsua, oparoa eta jasangarria lortzeko premiazko oinarria da."* Espainiako kultura-industriaren ordezkariak, duela gutxi, babesa eman zioten NBERen agenda horri, eta *"El compromiso de la cultura con la Agenda 2030"*³⁹ izeneko Adierazpena izenpetu zuten.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenarekin bat eginez⁴⁰, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) "Re Pensar las políticas culturales – Creatividad para el desarrollo"⁴¹ izeneko txostena argitaratu zuen 2018an. Erreferentziazko testu horretan azpimarratzen denez, premiazkoa da deuseztatzea *"ia kultura-arlo guztietan eta munduko eskualde guztietan etengabe irauten duten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren alderdi asko."* Halaber, hauxe adierazten da: *"emakumeak ez daude behar adina ordezkaturik hedabide profesionalean –batez ere sortze-eginkizun garrantzitsuenetan eta erabakiak hartzeko postuetan–, baliabideak nekezago eskuratzen dituzte eta jasotzen dituzten ordainsariak gizonenak baino askoz txikiagoak dira. Desparekotasun horiek ez dira unibertsalki aitortzen, baina, ezinbestekoa da hor daudela*

³⁷ http://www.wipo.int/export/sites/www/women-and-ip/docs/en/wipo_policy_gender_equality_en.pdf

³⁸ https://www.wipo.int/women-and-ip/es/news/2015/news_0002.html

³⁹ <http://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2018/sdg-report-gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018-es.pdf?la=es&vs=834>

⁴⁰ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/gender-equality/>

⁴¹ <http://www.institutoautor.org/es-ES/SitePages/EstaPasandoDetalleActualidad.aspx?i=2308&s=1>

onartzea eta aurre egitea, adierazpen kulturalen egiazko aniztasuna lortu nahi badugu”.

UNESCOk, gainera, txosten honen antzeko ikerketak egitea garrantzitsua dela azpimarratu zuen. Erakunde horrek artisten egoerari buruzko inkesta egin zuen 2018an. Genero berdintasunaz zerikusia duten inkestako galderak kontuan hartu ditugu eta datu horiek garrantzitsuak izan dira txosten hau egiteko.

Aldi berean, ikerketa honen helburuak lotura zuzena dute gure lurraldean inplementatu diren Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Planekin. Emakundek 2014an egin zuen “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana”⁴² deritzon dokumentuan adierazten denez, *“kultura eta artea ekoizteko espazioetan eta ikerkuntza eta zientziakoetan emakumeen presentzia txikiagoa da. Espazio horiek estrategikoak dira eta bultzada behar dute, emakumeen partaidetza gizartearen orekatuagoa errazteko”.*

Planaren helburuetako bat *“emakumeen aitormen soziala eta haien ekarpenak areagotzea”*. Plan hartan kontuan hartzen ziren adierazleak, besteak beste, honako hauek ziren: emakumeen ekoizpen musikal eta artistikoa hedatzeko jardueren kopurua, jarduera akademiakoetan parte hartzen duten emakumeen kopurua, EAEko museoetan eta erakusketa-aretoetan programatu diren emakume artistei buruzko erakusketen kopurua eta EAEko museoek eskuratu dituzten emakumeek sortutako obren ehunekoa. Azken bi adierazle horiek estrapolatu egin daitezke musika-mundura, aretoetako edo jaialdietako programazioetan edota diskoen ekoizpenean eta hedapenean jarduten duten emakumeen ehunekoa kontuan hartuz gero.

Hurrengo planean, 2018ko abenduan argitaratutakoan (Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako VII. Plana⁴³), garrantzi berezia ematen zaie *“emakumeen ahalduzko pertsonala zein kolektiboa bultzatzen”* dituzten jardueri. Halaber, emakumeen ahalduzko soziala eta politikoa sustatzen da eta, bereziki, helburu hauek dituztenak:

“emakumeen parte-hartze soziala bultzatzea arlo eta espazio guztietan” eta “emakumeen eta gizonen artean dauden genero-arrakalak murriztea prestakuntzarako edo aisiarako baliabideetan, artean, kulturen eta jaietan parte hartzeari dagokionez”.

Beraz, gure lurraldean inplementatu diren berdintasunerako planetan jasotzen denez, argi dago, oso garrantzitsua dela emakumeek egindako ekoizpen eta kreaio artistikoen presentzia eta lan horiek ikusaraztea eta, baita, berdintasuna eraldaketa sozial eta ekonomikoa lortzeko beharrezko baliozkat jotzea ere.

Artistaren Estatutua

Ildo estrategiko horiek eta beste batzuk bat egiten dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko politikak eta jarduerak lortzeko, gizartearen parte handi baten aldarriaren laguntzarekin.

Espainiako estatuan, gainera, sorkuntzan jarduten dutenen errealitate profesionalak argi eta garbi tratatu izan dira Artistaren Estatutuaren Txostenean⁴⁴. Estatutua arauzko agenda bat da, indarrean dauden Legeen erreforma modularra proposatzen duena eta kultura-lanen ezegonkortasun espezifikoaren aurkako 60 neurri baino gehiago proposatzen dituena. Estatutu horretan aztertzen denez, premiazkoa da zergei eta lanari buruzko araudia inplementatzea, arte-lanaren aldizkakotasuna eta sorkuntzan jarduten dutenen diru-sarrerara irregularra kontuz, eta sortzen jarraitzeko eskubidearekin bateragarria den erretiro duina bermatuz. Horri buruz, oraintsu argitaratu da apirilaren 26ko 302/2019 Errege Dekretua, ordaindutakoaren araberrako erretiro-pentsioarekin eta arte-sorkuntzan jardutearekin bateragarritasuna arautzen duena⁴⁵. Testuan, beste gai batzuen artean ezartzen denez, arte-sorkuntza bateragarria izan daiteke amatasun-osagarriko zenbatekoaren % 100arekin:

Halaber, Artistaren Estatutuan laneko lesioak eta gaixotasunak aitortzea eta langabezia-saria jasotzeko eskubidea izatea eskatzen da Horrez gain, puntu esanguratsu gisa, irakaskuntza artistikoen garrantzia eta titulazioak unibertsitatekoekin parekatzearen premia azpimarratzen dira.

2019ko urtarrilean, 26/2018 ED baliozkotu egin zen Kongresuan. Dekretu horretan, musika-sektorean eragin zuzena duten zenbait neurri sartzen dira, partzialki; besteak beste, BEZ % 10era arte murriztea, pertsona fisikoaren kultura-zerbitzuei dagokionez. Artistaren Estatutuaren Txostenean

⁴² Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko jardueren barruan. Proiektuaren xedea “munduan den giza eskubideen egoerari buruzko hausnarketa kritikorako esparrua sortzea da, bereziki, emakumeen eskubide urratuei buruzkoa; hainbat arte-adierazpenek duten komunikatzeko botereaz baliatuz eta Gasteizko herritarrak tartean sartuz.

⁴³ http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/es_def/adjuntos/vii_plan.pdf

⁴⁴ http://www.congreso.es/backoffice_doc/prensa/notas_prensa/61825_1536230939806.pdf

⁴⁵ <https://www.boe.es/boe/dias/2019/04/29/pdfs/BOE-A-2019-6298.pdf>

biltzen den beste alderdi bat, laster aztertuko dena, artistek ekitaldi publikoetan duten lan-harreman berezia arautzeari buruzkoa da. Besteak beste, langileak nahitaez sasi-autonomo gisa jardutera behartzen dituzten formulen aurkako borroka polemikoa edota fakturatzeko sasi-kooperatibak dira mahai gainean jartzen diren gaiak. Egia esan, gaur egun aretoen eta artisten artean dauden harremanen kasuistika aldatu egiten da, hainbat egoera kontuan hartuta.

Txosten honetako kontzeptu-esparruan zehaztu dugunez, musika programatzaileak edo sustatzaileak kontzertuak antolatzen dituzten pertsonak edo enpresak dira, erakunde publikoak zein pribatuak izan. Ikuskizuna antolatzen duen erakundearen rola garrantzitsua da lege-kontuetarako, zeren irudi hori baita Gizarte Segurantzako aldez arduratzen dena, betiere, jardungo dutenek horrelakorik eskatzen badute. Lokal batzuk musika-taldeei aretoa alokatzeaz baino ez dira arduratzen eta, horrelakoetan, taldeak izan ohi dira ikuskizuna antolatzeaz arduratzen direnak. Beste batzuk euren kontura kontzertuak sustatzeaz eta antolatzeaz baino ez dira arduratzen eta jarduera horren ondoriozko erantzukizun guztiak beren gain hartzen dituzte. Hala ere, ohikoenak, aretoaren alokairua eta euren ekimenez egindako kontzertuen antolaketa txandakatzen dituzten lokalak dira. Praktikan, bakarrik aretoa alokatzen duten lokalak, administrazioari eta hedabideei dagokienez, ez dira gainerako agenteetatik bereizten. Eta alokatzen zein programatzen jarduten duten espazioak daudenez, sortzen den debatea zaildu egiten da.

Eduardo Maurak, oraintsu idatzi duen artikuluan dioenez ⁴⁶, Artistaren Estatutua, zalantzarik gabe, ezinbesteko tresna da, *“kultura eta kulturaren jarduten dutenen bizitzak egonkortzeko eta estatuen eta hiritarren gai bilakatzeko”*. Eduardo Maura Unidos Podemos alderdi politikoaren Kulturako bozeramalea izan zen Kongresuan, XI. eta XII. legegaldietan, eta Estatutuaren ekimenaren sustatzaileetako bat da.

Hala ere, oraindik hobetu beharreko hainbat alderdi daude, batez ere, genero-ikuspuntuari dagokionez. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, oraindik ere, gairitu gabeko kontua da Artistaren Estatutuan. Erdarazko izen ofizialean maskulino generikoa erabiltzeak ez du sentsibilitate handirik adierazten dagokigun auziari buruz.

3.2.- IKERKETAN ERREPIKATU DIREN GAIAK

ERREFERENTEEN FALTA

Oro har eta, bereziki musikaren munduan, dagoen emakumezko erreferenteen falta, ikerketa-prozesuan zehar behin eta berriz azaldu den gaia da, elkarrizketetan zein bibliografiaren analisian.

Erreferenterik gabe, bokazioak betiko estereotipoetan oinarrituta eratzen dira. Oso zaila da neskato batentzat, imajinatu ere ezin duen zerbait izateko gogoia piztea edota lortezina dela edo berarentzat egokia ez dela pentsatzen duen zerbaitetan jardutea. Bokazioa kulturaren bidez eratzen da eta hezkuntza oso garrantzitsua da oinarritzko prozesu horretan.

Gaurko emakume konpositore eraginkorrenetako bat Mercedes Zavala da. Emakume horren ekarpenak erreferenteak dira, dagoeneko, pedagogiaren eta musika-ikerketaren arloetan. Emakumeak Musikan Elkarteko presidentea izan zen, Getxoko “Emakumeak Musikan” Jaialdia eta Madrilgo kontzertuen denboraldia zuzendu zituen eta “Emakumeen Musika Ikasgeletan” izeneko musika eta generoa lotzen dituen proiektu pedagogikoa martxan jarri zuen. Txosten honetan Mercedes Zavalaren zenbait artikulua hartu ditugu erreferentziatzat. Besteak beste, *“Estrategias del olvido. Musika feministaren zenbait paradoxari buruzko apunteak”*. (2009). Artikulu horretan, egileak zabalki azaltzen ditu zenbait gai; hots, historiografiak ahaztu dituen emakumeak, emakume konpositore historikoak berreskuratzearen garrantzia eta gaur egungo emakume konpositoreen lanaz arduratu eta lan hori balioztatu beharra, emakumeak musika-sorkutzaile gisa imajinario kolektiboan sartzeko aukera eratzeko:

“emakumeok nazkatuta egon beharko ginatete nolakoak izan behar dugun eta zer egin behar dugun eta emakumea izatea zer den esan nahi digutenekin. Eta gure lana bikaina eta aitortua izan dadin, egunez egun konposatzen eta borrokan jarduten dugun bitartean, iragana gure etorkizuna ere badela jakinaren gainean egotea komeni zaigu: emakume konpositore historikoak berreskuratzea eta egungoen lanaz arduratzea, emakume musikologo arduragabe batek kontrakoa pentsarazi nahi badigu ere, funtsezkoa da mendebaldeko kulturaren mendeetan zehar musika-sorkuntzaren eta gizonen artean izan den lotura gairatuzeko. Agian ez da auzi hori jasaten duen kultura bakarria izango, baina horixe da gure jatorrizko kultura, gure endokulturazio oinarrikoenaren erro saihestezina.

⁴⁶ <https://ctxt.es/es/20190327/Firmas/25239/Eduardo-Maura-estatuto-del-artista-agenda-precariado-sostenibilidad-cultura.html>

Hortaz, iraganera begiratzea ez da jardunbide nostalgikoa edo orekatzailea; aitzitik, ezinbestekoa da emakumeak musika-sortzaile gisa imajinario kolektiboan sartzeko aukera eratzeko.

Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da hezkuntzan edo gizartearen eredu historikoak sartzea eta gu oraindik ez gara garrantzi horretaz erabat jabetzen. Emakume asko tentaldian erortzen dira eta euren buruak apartak edo aitzindariak direla uste dute, baina, beste inoiz aipatu dudana "lehenbizikoen" sindromea tranpa hutsa da eta argi dago horren ifrentzuaren prezioa zein den. Aurreko mendeak "lehenbiziko" emakume konpositorez josita daude. Azken urteetako ekarpenak etengabe kontuan ez hartzeak edo gutxiesteak argi erakusten du gizartearen eta arlo akademikoaren eta profesionalaren kontrako jarrera orokorra; beraz, are premiazkoagoa da hainbeste lan eginez lortutakoa finkatzeari ekitea".

Ukaezina da zenbait mailatan lan egin behar dela, eta E27 gizon elkarrizketatuak dioenez, *"borroka nabarietako bat emakumeak kanonaren barruan sartzea da, baina kanona berriro pentsatzea ere beste borroka bat da"*. Ez da nahikoa emakumeak ikusgai bihurtzea, ikusarazte horri eusten dioten egiturak lehengoak badira. Zailtasun nagusia egitura horiek iraunarazi nahi dituen sistema patriarkalak inposatzen du. Beraz, E24 emakume elkarrizketatuak azaltzen duenez, *"erronka zaila da ekintza zehatzak asmatzea eta proposatzea, gainegituretako desberdintasuna arintzeko"*. Generoaren ondoriozko diskriminazioa da, zalantzarik gabe, arazo historikoa da eta, arazo hori zuzentzeko, ezinbestekoak dira epe luzearako neurri sakonak.

Radio Clásica (RNE) kateko *"La tertulia de Radio Clásica"* irratsaioaren barruan egin zen *"musika eta feminismoari"* ⁴⁷ buruzko tertulian, joera zuzendu eta iraultzeko klabeak azaltzen dira. Arte Ederretan doktorea eta Jardunbide Psikoterapeutikoan masterra den Marián López Fernández-Caok, Nancy Fraser emakume soziologoaren analisiari jarraituz, birbanaketaren, errepresentazioaren eta aitormenaren bidezko justizia sozialaren eta politikoaren hiru puntu nagusi aipatzen ditu: Birbanaketari dagokionez, artistek orain arte zein baldintzatan sortu duten eta egitura aldetik zein laguntza izan duten aztertu beharko litzateke. Horren arabera, desorekak aurkitu eta lehen banatu ez dena ondo birbanatu behar da, esate baterako, eguneroko egoeraz eta etxeko errotuek arduratu gabe sortzen jardun ahal izateko pribilegioak. Errepresentazioari dagokionez, beharrezkoa da emakumeak presente egotea eta euren burua ikusaraztea,

eta aitortzeari dagokionez, presentzia horrez gain autoritatea ere eman behar zaiela ulertu behar da.

2018ko urrian, Tabakaleran (Donostia) Euskal Emakume Konpositoreei buruzko jardunaldia egin zen, Eresbilen laguntzaz. Bertan egindako mahainguruan, ondoko emakume musikariak aritu ziren: Gotzone Higuera (moderatzaila), Isabel Urrutia eta Zuriñe F. Gerenabarrena. Zabal hitz egin zuten kanonean emakume gutxi agertzearen eta musikaren historian emakume erreferenterik ez izatearen kontua. Gerenabarrenaren hitzetan: *"Oso garrantzitsua da behatzeko norbait izatea"*. *"Joan zaitezkeela dakizun bidetik joatea... Guk geure buruari eman diogu konpositoreak izateko baimena"*. Egia esanda, gurekin aritu diren solaskideen artean, hain gazteak ez zirenek nekezago aipatu dituzte eurak hasi ziren garaiko emakumeen erreferenteak. Gazteenak, ordea, ez dute arazorik euren musikaren inspiratzailetzat dauzkaten emakumeen izenak aipatzeko. Ikusi daitekeenez, aldaketarako joera bat da eta, apurka-apurka baina etengabe, erreferenteak ezartzen ari dira emakume sortzaile gazteenak hain bakarrik sentitu ez daitezen eta euren buruak aitzindaritzat hartu ez ditzaten –edo Zavalak eta beste batzuek diotenez, sarkin sentitzera iritsiz-, beti zerotik hasi behar den bide batean.

E8 emakume elkarrizketatuak dioenez: *"ni baino lehenago, bide oso zailak markatu dituzten emakumeak egon direla uste dut eta, beraz, niretzat errazagoa izan da alderdi jakin batzuk burutzea. Adibidez, kantatzean neure burua divatatzat ez hartzea. Nire ustez, musikan gertatzen den generoen arabera logika da, emakumeok ahots oso berezia izan behar dugula, goi-mailako ahots-teknika izan behar dugula eta seguru agertu behar dugula eszenaratzean. Nik ez dut hiru logika horietako bat ere betetzen. Birtuosoak izan gabe eszenatokian kantatzen, deiadarka, jauziak egiten... aritu diren emakumeak ikusteak zeharo animatu nau gaur egun egiten dudana egiteko"*.

Hala ere, alde aurretik beste batzuek zabal dutako biderik egoteari buruzko galderari erantzunez, E4 emakume elkarrizketatuak hauxe dio: *"Nire aurretik, jakina, emakume eta gizon asko egon dira. Izan ere, zortea izan dut hasieran beste talde batzuek lagundu didatelako. Baina, oro har, aurkitu ditudan neskak urruti sentitu izan ditut eta ez dut jakin haiekin erabateko harremana lortzen. Bitxia da, gero. Eta izan daiteke, inkontzienteki eurekin konparatzea eta haienganako begitankorra izatea, inbidia sentitzea... Bueno, egia esan, kontzientea naiz horrela pentsatu izan dudala askotan. Agian, horregatik daukat mutilez inguratze joera. Ez dakit"*.

⁴⁷ <http://www.rtve.es/alacarta/audios/la-tertulia-de-radio-clasica/tertulia-musica-feminismo-18-03-18/4527701/>

Hasiberritan, emakume erreferenterik izan zuten ala ez galdetzean (eta erantzuna ezezkoa izanez gero, ea garai hartan horretaz ohartu ziren ala ez galdetzen zen) emakume elkarrizketatu gehienek erantzun zutenez, ez ziren ohartu erreferente horien falta zitzaienik. Geroago konturatu ziren egoera horretaz. E3 emakume elkarrizketatuak hauxe erantsi zuten: *“egia esan, etengabe bueltak eman ostean, ez dut uste inolako erreferentziarik izan dudarik eta, gainera, ez naiz horretaz kontziente izan [...] Zure galderei erantzuteko hausnarketa txiki hau egiteak erantzun asko eman dizkit, entzun ez nahi nituenak, nire ustez, baina agian oraintxe da esnatzeko unea...”*.

E8 emakume elkarrizketatuak esan digunez, mugimendu eta teoria feministetara hurbiltzearen eraginez, erreferente gehiago bilatzeari ekin zion, *“ez emakumerik ez zegoelako, gehienak ikusezin bihurtuta zeudelako baizik. Gaur egun emakume asko zabiltzate proiektu on-onak garatzen; alegia, erreferenteak zaretela, baina oraindik aukera gutxiago ditugula uste dut. Orain dela gutxi adiskide feminista bati kulturari buruz ikuspuntu feministaren arabera hitz egiten entzun nion, eta diziplina artistikoen kanonetan emakumeok ez gaudela hain presente esan zuten eta, gainera, komunitatea ordezkatzeari dagokionez, gero eta gehiago desagertzen garela adierazi zuten. Erabat ados nago. Euskal Herrian, nire ustez, gehiago identifikatzen gara 80ko hamarkadako taldeekin, eta oraingo gutxi batzuekin. Talde horietan gizonak ziren eta dira protagonistak; letrak dakizkigu, gure ordezkariak direla uste dugu... Hor emakumeok erabat desagertzen gara. Emakume artista bikainen batek baino ez du lortzen heziak botatzea eta erreferentea izatera iristea. Esku bateko atzamarrekin kontatuko nituzke”*.

E13 emakume elkarrizketatuak dioenez: *“Euskal Herrian gauzak desberdin xamarak badira ere, hori guztia jaialdian eta hedabideetan ere egiaztatu dezakegu: emakumeak falta dira musika-aldizkarietako azaletan, baina emakume argazkilaria, erredaktorea, soinu edo argi teknikaria ere falta dira. Dena gizonek hartuta dauka. Inola ere ikusi gabe, ezinezkoa da horrelako bokaziorik egotea emakumeen artean”*. Fernández-Caok desira hau azaltzen du: *“belaunaldi berriek emakume sortzaileen lanari begiratzea nahi nuke eta eman zitzaizkien rolak eta eurek, rol horiek hausten disfrutatu duten emakumeek, nahi zituztenak zein ziren bereizteko aski dakitela konturatzea eta horrek guztiak pentsamendu gogoetsuaren lezio gisa balio izatea”*.

E33 emakume elkarrizketatuak bere ama eta amaren lagun minena aipatzen ditu (batak gitarraren karrera amaituta du eta besteak biolaren karrera) erreferente inspiratzaile gisa: *“Niretzat izugarria zen biak hurbil izatea, gehienekin alderatuz*

emakume bakanak zirela susmatzen nuen eta, gero, urteekin konturatu naiz benetan bakanak zirela eta, gainera, indartsuak, eta ametsa lortzeko borrokan egin zutela. Inspirazio handia! (E33).

Erreferenteak garrantzitsuak diren eraberean, elkarrizketatutako emakume gehienentzat garrantzitsua da, halaber, etxeko edo eskolako inguruko irudiren bat edukitzea, jotzen hasten diren emakume gazteen autoestimazioa bultzatzen duena, haien jakin-mina pizten duena eta aurrera egiten animatzen dituen. Zentzu horretan, E1 emakume elkarrizketatuak onartzen duenez, berarentzat oso garrantzitsua izan zen gizonetako gitarra irakaslea erreferentziako irudi gisa. E2 emakume elkarrizketatua dioenez, hasiberria zenean berak ez zuten emakumerik izan erreferentzia gisa eta gizonetako bateria irakaslearen eragin positiboa onartzen du: *“Hurbileko talde ezagunetan instrumentista guztiak mutilak ziren, emakume kantariren bat egon zitekeen, baina asko gehiagorik ez. Baina Blas Fernándezen klaseak hartzen hasi nintzenez, hark bai, klasearen amaieran nazioarteko mailako emakume bateria jotzaileen bideoak erakusten zizkidan. Horrela, besteak beste, Cindy Backman eta Anika Nilles ezagutu nituen. Horrek asko lagundu zidala uste dut. Une hartan ez nintzen erreferenteen faltaz ohartzen, baina egia da asko kostatu zitzaidalako klaseetarako izena ematea eta jotzen hastea. Nire adineko eta inguruko neskek ez zuten nerabean horrelakorik egiten eta neure burua “arrarotzat” neukan. Tira, nahikoa arraro sentitzen nintzela eta garai hartan gauza arraro horiek txartzat jotzen nituen. Nik normala izan nahi nuen. Denborarekin buelta eman diot auziari eta askoz gehiago aintzat hartzen dut ohiz kanpoko jendea. Inguruaren presioa handiagoa izaten da adin jakin batzuetan. Nire ustez, erreferentziak izan banitu, klaseetan lehenago izena emateko urratsa emango nuen, baina batek daki”*.

SEXU-ESTEREOTIPOAK MUSIKAN

Hizkuntzaren garrantzia

Ursula K. Le Guinek hauxe zioen: *“hitzak egitateak dira; gauzak egiten dituzte, gauzak aldatzen dituzte; aldatu egiten dituzte esaten eta entzuten dituztenak”*. Sexista ez den hizkuntza erabiltzeak, erdaraz, behintzat, pisu handia du musikan jarduten duten emakumeentzat, zeren generikotzat maskulinoan erabiltzen baita; emakumeak izan arren *“músicos”* eta arte bizien teknikariei *“técnicos de sonido”* edo *“técnicos de luces”* esan ohi zaie. Maskulinozko kontzeptu horiek errepikatuz, erdaraz betiere, errealitate jakin bat sortzen eta indartzen da eta errealitate horrek emakumei euren burua femeninoan (*“música”*, *“técnica de sonido”*) naturaltasunez antzematea eragozten die.

Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak (RAE) joera batzuk mantentzeak ez du laguntzen. Oraintsuko adierazi zutenez, *“el llamado «lenguaje inclusivo» supone alterar artificialmente el funcionamiento de la morfología de género en español bajo la premisa subjetiva de que el uso del masculino genérico invisibiliza a la mujer”* (sic). Jabetza intelektualaren arloan (erdaraz) erabili ohi den hizkera maskulinizatuaren ondorioz, zenbait kontzeptu garrantzitsu; *“derechos de autor”* (egile eskubideak), esaterako, irudi maskulinoarekin lotzen dira (*‘creador’, ‘genio’*). Eskertzekoa da emakume askok egin duten lana (Intangia erakundekoena adibidez), jabetza Intelektualaren Legeak erabiltzen duen hizkerari buelta eman nahian eta hizkera zabalago eta inklusibo bihurtuz, erdarazko bestelako kontzeptuak erabiliz; adibidez, *‘derechos de autoría’*.

Emakume artistaren irudia, emakumezkoen gorputza

Remedios Zafrak ondokoa dio *El entusiasmo* izeneko saiakeran: *Prekariatatea eta sortze-lana aro digitalean, gaurko emakumeak euren gorputzaren eta irudiaren arabera aztertzen dira, oraindik ere. Edozein esparru publikotan aintzat hartuak izan aurretik, emakumeek “usteen araberako irudia”, “aldeko edo aurkako iritziak jasotzen dituen gorputza” izan behar dute.*

Txosten honetan lehenago aipatu dugunez, gaur egun bideoak musika entzutearekin duen lotura estua oso datu garrantzitsua da eta aztertu beharreko ondorioak ditu. YouTube, ikus-entzunezko plataforma, jendeak musika entzuteko gehien erabiltzen duen kanala da eta bideoklipak salgaiak dira *“eta errentagarriak izateaz gain, beharrezkoak dira gazteentzako industria kultural hegemoniko guztietarako, bestelako merkataritza-eskaintza batzuetan sartuta edo parte osagarri gisa; esaterako, diskoak saltzeko, edota singleak, kontzertuetarako sarrerak, ordainpeko telebistetarako harpidetzak, hedabide jeneralistetako berriak, etc.”* ⁴⁸

Gaur, irudia, ikusizkoaren kultura, hegemonikoa da musikarekin alderatuz. Horrez gain, emakumearen gorputza eta haren sortze-lana itxuraz banaezinak direla kontuan hartzen badugu, gatazka asko sortzen dira musketan. Artisten irudiarekin eta jendaurrean agertzearekin lotutako gai horietako batzuk bildu ditugu elkarrizketetan, besteak beste, jendeak emakumeak nola antzematen dituen.

Musikan, rockaren munduan zehazki, egon daitezkeen

matxismoei eta estereotipo sexistei buruz galdetuta, E13 emakume elkarrizketatuak biribilki erantzun zuen: *“Hori beti egon da eta hor dirau. Rocka tradizioz maskulinizatuta egon den esparrua da. Maiz, emakumea sexuarekin lotuta agertzen da, publiko maskulinoari saltzeko argumentu gisa, haren musikak izan dezakeen balioa diskriminatuz. Emakume bat ederra bada, ondo ezin duela jo ematen du. Oraindik jende asko, emakume zein gizon, harritzen duen zerbait da. Denok hazi gara patriarkatuaren menpe. Emakumeok egiten dugun musika kapsulatuta dago, berezko generoa balitz bezala. Hara, portada hau: “Las voces femeninas del soul” [Ruta 66 aldizkariaren azken alearen izenburua erakutsiz].*

Elkarrizketatutako zenbait emakumeak arbuia egin dituzte prentsa musikan agertzen diren jarrera matxistak eta estereotipo sexisten erabilera. Zenbait kasutan, emakume horiek itxura fisikoari buruzko eta kontzertuaren kronikaren testuingurutik kanpo egindako iruzkinen bat zehatz-mehatz gogoratzeko gauza izan dira eta horrek euren karreraren hasieran eragina izan zuela esan dute. Gaur egun, berrogei urtetik gora dutenean, eragina ez zela berdina izango onartzen dute. Hala ere, ibilbide profesionalean hasiberriak zirenean horrelako komentario sexistak jaso ondoren, ohartu egin ziren taldeko gizonen irudiarekin alderatuz, emakumeen irudia nola antzematen zen eszenatokian.

E1 emakume elkarrizketatuak dioenez, oso ondo gogoratzen da, horrelako kritika baten ondoren, bere buruaren irudia beste era batera hauteman zuela eta inoiz irudi maskulinoagoa ematen saiatu zela *“errespetatuagoa sentitzeko”*. Onartzen duenez, *“oso atsegina zen eszenatokian emakume sentitzen zen emakumea ikustea”* eta berarentzat erreferentziatzkoa izan zen kontzertu bat gogoratzen du, zeren *“artista hutsa izanez, bere itxura fisikoarekin eroso sentitzen zen”* emakume artista bat aurkitu baitzuen.

Emakume musikari gazte batzuek diotenez, nolabaiteko barne gatazka sentitzen dute, emakumeak izateagatik eta ematen duten itxuragatik hartzen dituztela konturatzen direnean. Horren harira, musika-industriaren negozioak eta bere merkataritzaren logikak eragiten duten presioaren ondorioz, emakumeen gorputza salmentarako beste tresna balitz bezala erabili ohi da, *“promoziorako argazkietan beti aurreko aldean jartzeko esaten zizuten”*- (E1). Agian horixe izango da arrazoia, emakume elkarrizketatu gehienak inguru autogestionatuetan erosoago, askeago eta errespetatuago sentitzeko, musika-industriaren eta bere ohitura eta inertzietatik kanpo.

⁴⁸ Jon E. Illescasen hitzak, *“La dictadura del videoclip. Industria musical y sueños prefabricados”* saiakeran.

Sound System. El poder político de la música deritzon liburuan, Dave Randallek adierazten duenez, “ohikoa da, ohikoegia, diskoetxe handien laguntza lortzeko, musika egiten duten emakumeak eta pertsona beltzak egokitu behar izatea, gehienak zuriak, aberatsak eta adin ertainekoak diren gizonen aurreiritziz jositako kategorietan sartzeko. Lady Lashurr, pop/grimeko artista britainiarra ez zuen onartu Atlantic Records diskoetxe estatubatuarrak eskaini zion kontratua, honako hau entzun ondoren: “Nicki Minaj zure lehiakidea da eta desagerrarazi egingo dugu”. Leshurren ustetan, “horrek aldendu egiten gaitu biok, rap egiten dugunoi beldurra ematen digu elkarrekin jarduteak, zeren irudizko lehiaketa horiek geldiarazi egiten baikaituzte. Industriak ez da zer egin emakumeekin”⁴⁹.

Emakume elkarrizketatu askok onartzen dutenez, emakume musikari gisa garatzeko ingururik egokienak, lehiarik gabeko eta elkarlanarekin lotutako testuinguru horizontaletan aurkitu dituzte.

E11 emakume elkarrizketatuak bere esperientzia kontatu digu: “Autogestioa gaur egun musika-esparruan egiten dugunaren bultzatzaile bat da, eta Gernikan bereziki eta elkarlanean. Iparragirre Rock Elkarte autogestionatuko bazkidea izan naiz eta haiekin lotuta nago oraindik ere. Elkarte Gernikan proba-saioak egiteko lokalik ez zegoelako martxan jarri zen. Udalarri zenbait eskaera egin ostean eta haiek ezetz esan eta gero, “iparragirretarrek” proba-saioetarako aretoak muntatzeko lokal bat alokatzea erabaki zuten eta, halaber, euren kabuz eraiki zuten kontzertuak egiteko eszenatokia. Proiektua hazi egin zen, eta taldeen eskaera gero eta handiagoa zen, zeren saioak egiteko lekua behar baitzuten eta sortzeko eta gauzak egiteko gogoia baitzuten. Gaur egun pabilioi berritua daukagu (geuk zaharberitutakoa, hiru urtean lanean ibili ondoren) eta orain kontzertuak egiteko aretoa eta saioetarako lokalak dauzka. Guztira saioak egiteko 10 lokal dira eta, han talde pila batek egiten dituzte proba-saioak, denetara, 80 pertsona inguru dira. Erabat autogestionatutako proiektua da. Bide ofizialak erabillita ezinezkoa zen nor bere ibilbidea egitea; beraz, gure ibilbidea elkarrearen bidez sortu genuen”. (E11)

E33 emakume elkarrizketatuak kontatzen digunez, auto-gestioaren bidea egin ondoren, orain “emakume bikain batek” zuzentzen duen diskoetxean editatzen ditu bere albumak. *Emakume horrek badaki zelako nekeza den nirea bezalako proiektu alternatiboa aurrera ateratzea eta haren laguntza izatea oparia da, benetan*”. (E33)

Emakumeok euren irudia eta lehiakortasuna nola hautematen dituzten elkarrizketetan azaldu den beste gai batekin lotuta daude: emakumeen (auto)exijentzia maila eta beti euren kideak diren gizonen baino gehiago balio dutela frogatu behar izatearen sentsazioa. E1 emakume elkarrizketatuak gogoratzen duenez, rockaren munduan emakume kantariei ahots aldetik inposatzen zaien exigentzia gizonen exigentzia baino handiagoa da eta, bere iritziz, “emakumei gehiago exijitzen zaien aldi berean, baztertu egiten gaituzte”. Elkarrizketetan behin eta berriz tratatzen dugun gaia emakumeek jasan behar duten segurtasun falta da. Segurtasun falta hori ez da eurengan sortzen; aitzitik, batzuetan konfiantzarik eman ez dien familia edo eskola inguruak eragindakoa edota, besterik gabe, gizarteak eragindakoa izan ohi da.

Nortasunaren alderdi batzuk leundu behar izateari edo ez izateari buruz edota erabat maskulinoa den munduan gauzak sentitzeko edo egiteko era egokitu beharri buruz galdetzean, erantzun anitz dauzkagu:

“Nire ustez, gauzak egiteko era maskulinoez baldintzatuta gaude arlo guztietan eta musikan, jakina, gauza bera gertatzen da. Niretzat ez da gauza bera emakumeena den espazio feminista batean egotea edo espazio misto batean egotea. Horregatik izan da desberdina nire esperientzia musikala MEFSSTrekin! [Zarauzko Putzuzulon egindako jaialdia] Esparru hura segurua izan zen. Han, emakumeok erabakitzen genituen egiteko erak. Antolatu dudan edo taldearekin jo dudan kontzertu batzuetan ere desberdina izan da. Askotan gutxienak izateaz gain (antolakuntzan, eszenatokian, publikoan, soinu edo argi teknikarien artean...), nire ustez, balorazio-sistemak erabat maskulinoak baino gehiago, patriarkalak dira. Pertsonalki baldintzatzen gaituzten agindu sozialak dira. Dagoeneko, ez da bakarrik inguruaren iritzia, zeuk zeure buruaz duzun iritzia baizik. Zeure buruari ematen diozun balioa da, zeuk egindakoari ematen diozun balioa, denboren kudeaketa, erabakitze erak, eginkizunen banaketa, egin nahi duzun musika-mota, gorpuztasuna... Eszenatokiak gehiegi agertzea eragiten du, eta hori erabat kaltegarria da niretzat. Ez da toki segurua. Nire ustez, oraindik asko kostatzen zait neure izaera erakustea edo erosoago sentitzeko era bat aurkitzea. Baina, antolakuntzatik hasi eta taldeetaraino feministak direnean edo generoaren logikak zaintzeko asmoa dutenean, giroa aldatu egiten da eta neu ere aldatu egiten naiz. Lasaiago sentitzen naiz”. (E8)

Askotan pentsatu izan dut ez nintzela egokia, ez nindutela atsegin, eta denborarekin konturatu naiz denbora osoa ematen

⁴⁹ Leshurr, The Guardian egunkarian aipatua (2019).

nuela atsegina izaten, gauzak ondo egiten, onartua izan nahian, ez molestatzen eta, azken finean, euretako bat bezala tratatu nintzaten... Baina, hala eta guztiz ere, hori ez zen gertatu, zeren ni, haien begietarako, beti izango bainintzen neska bat eta, horrek, nahi ez baduzu ere, eragina du alde bietan. Zoritxarrez eragin handiagoa du gudan, gutxiago izateagatik. Kodeak, nire esperientziaren arabera, gutxienez, desberdinak dira inguru maskulinoetan eta femeninoetan. Salbuespenik badago? Bai. Baina gaur konturatzen naiz horrek presioa eragin duela nigan hainbat urtean eta pena ematen dit pentsatzea zein txiki bihurtu naizen batzuetan, horrek sorrarazi didan segurtasun faltagatik. (E4).

“Beti mutil artean egon ohi zarenez, normaltzat jotzen duzu egoera hori eta ez zara konturatzen zure izaera zein neurritaraino aldatzen egon zaitezkeen. Inoiz pentsatu izan dut, beti mutilez inguratuta egon ez banintz, agian nire nortasunaren beste alderdi batzuk garatuko nituela. Oraitxe igartzen dut, mundu berean beste emakume batzuekin lan egin dezakedanean.”(E3)

Kontrako muturrean E2 emakume elkarrizketatuaren adierazpenak daude. Emakume honen kasua desberdina izan daiteke, zeren bere instrumentua bateria baita: *“Beti jo izan dut gorputzak eskatzen zidan eran eta ez nau gehiegi kezkatu nola mugitzen nintzen edo zein irudi ematen nuen eszenatokian. Jotzeko orduan, beti izan dut harreman bizia instrumentuarekin. Jotzea tripetatik ateratzen zait eta eta hontan kantuan sartzea eta disfrutatzea besterik ez dut pentsatzen”.* (E2)

Genero-rolen eragina instrumentua edo lanbidea aukeratzekoan

Datu kuantitatiboan azterketaren arabera, historikoko betikotu diren rolak daude, eta rol horiek eragina dute instrumentua aukeratzeko edota musika-sektoreko lanbideen artean dauden esparru zehatz bat erabakitzean.

Musika-irakaskuntzetako goi-mailako zentro batera iristen diren ikasleak aldeztu aurretik aukeratu dute instrumentua, zeren aukera hori 8-10 urterekin egin behar baita. Aukeraketa hori baldintzatuta egon daiteke arrazoi askorengatik: etxekoan edo kidekoan eraginak, alderdi ekonomikoak, musika-bandan instrumentu bat eskura egotea edo ez, eta, jakina, genero-estereotipoak. Ez dugu ahaztu behar, historikoki emakumeek bokalista legez jardun izan dutela nagusiki. Emakumearen

gorputzak eta itxurapenak garrantzia hartu dute berriz ere. Gogoratzen badugu, lehen, emakumeak, hankak itxita esertzera behartuta zeuden gitarra edo biolontxelo jotzeko Era berean, ia 1960ko hamarkadara arte, gizon baten motorrean edo zaldi gainean emakumeak alboketara esertzen ziren.

E6 emakume elkarrizketatuak hauxe dio: *“Denok ondo dakizkigun arrazoiengatik, erreferente femenino gutxi iritsi zaizkigu eta aurreko hamarkadetatik iritsi zaizkigun apurkak kantariak dira gehienak. Emakumeen gorputza eta ahotsa dira, berez gizonak berdindu ezin dituen bi gauzak; hortaz, industria konturatu egingo zen emakume kantariak ekonomikoki eman zezaketen etekinaz; orduan, vaudevillearen sasoiaz geroztik (eta lehenago ere, seguruenik) emakume batzuk (Bessie Smith, Ma Rainey...) lekua hartzen hasi ziren gizonen mundu horretan, hau da, musika modernoan, konposizioan eta orkestra zuzendaritzan”*(E6).

E3 emakume elkarrizketatuak horri buruzko iritzia eman zuen. Perkusioa ematen du eta guztira 17 ikasle ditu eta horietako 4 baino ez dira neskatokak. *“4 neskatok ikasle horiei euren kideak diren mutilei baino gehiago kostatuko zaie eszenatokira jotzea, esamesen beldur edo lotsagatik, zeren emakumeontzat presio soziala askoz handiagoa baita. Eta historikoki, urteak daramatzagulako bizitza pribatuari lotuta, baina ez bizitza publikoari, eta horri oso barruan daramagu oraindik”.* (E3)

E5 emakume elkarrizketatuak, gaur egun gitarra jotzailea denak, hauxe dio lehen instrumentua aukeratu zuen uneari buruz: *“solfeoa egin ondoren, eta tronpetarekin hasi nintzenez, nolabaiteko lotsa sentitu nuela gogoratzen dut, zeren ez bainuen uste tronpeta nesken instrumentua zenik. Nire ustez, horixe izan zen arrazoietako bat”.* (E5)

E28⁵⁰ emakume elkarrizketatuak gaur egun orkestretako kideak diren goi-mailako ikasketetako ikasleen artean dagoen panoramaren ikuspuntua eman digu: ia harpa jotzaile guztiak emakumeak dira, eta metaletan (tronpeta, tronboia...) gizonek jarduten dute. Bitarteko mailan, soka igurtziko instrumentuak (biolina eta biola gizonen zein emakumeek antzera aukeratzen dituzte, biolontxelo gehienetan emakumeek aukeratzen dute eta kontrabaxua batez ere gizonen aukera izaten da), eta zurezko haize-instrumentuak dauzkagu (azken horiek nahiago izan ohi dituzte gizonen zein emakumeek aukeratzen dituzte, emakumeek gehiago baitira). Perkusioan ia gizonen besterik ez dute jarduten.

Klasikoaz kanpo, beste generoetako ikasketei dagokienez, jazza mundu maskulinizatua da, oraindik ere, kantuan izan ezik (arlotan horretan gehienak emakumeak dira -6-1 proportzioa dago Musikeneko ikasleen artean-). Emakume ikasleak tradizioz gizonen jo ohi dituzten instrumentuak jotzen hasi dira, besteak beste, bateria, tronpeta, jazzeko tronpeta edo jazzeko tronboia. Halaber, gero eta gehiago dira konposizioaren adarrean interesatuta dauden emakumeak –gaur egun, 4 emakume eta 8 gizon ari dira Musikenen ikasten-).

Goi-mailako musikako ikasketak amaitzen dituzten artean ikusten denez, gizonen artean mugikortasun profesionalerako joera handiagoa da. E28 emakume elkarrizketatuaren azalpenak bat datoz Pilar Riuser adierazpenekin. Pilar Rius konpositorea eta pedagogo da eta gaur egun, Emakumeak Musikan elkarteko presidentea da, eta *Tertulia de Radio Clásica (RNE)*. *Música y Feminismo* irratsaioan zioenez, 35-45 adin urkila batean, hau da, musikan jarduten dutenek euren karrerari gorputz eta arima eskaintzen dieten bizitzako sasoiaren, gizonentzat ez da porrota harreman egonkorra ez izatea eta emakumeentzat, ordea, presio sozialaren ondorioz, bizitzan frakasatuak sentitzen dira nahiz eta gehien gustatzen zaien jardueran aritu. Artean jarduteko dena albo batera uztea, maitasun erromantikoa barne, erabaki ahikoagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino.

Riuser dioenez, emakume ikasleak ez daude hain prest bidaiak egiteko, zeren nahiago izaten baitute euren bikotekideekin gelditzea. Lehentasuna ematen diote egonkortasunari, oposizioak gainditu nahi izaten dituzte, irakaslearen plaza lortzeko eta bizitza familiari eskaintzeko. Horrela, betikotu egiten dituzte hezitzaileen eta pedagogoen rola (gogoratu Konposizioaren eta Orkestra Zuzentzearen adarretan ia gizonak besterik ez direla aritzen eta Pedagogiaren arloa erabat feminizatuta dagoela).

Izan ere, E6 emakume elkarrizketatuak gai hori aipatzen du, musikari gisa garatzeko orduan arazo nagusienetako bat dela esanez: *“batez ere bikotekide sentimentalenganako mendekotasunagatik, inoiz (17-25 urte bitartean, batez ere) neure hirian geratzea erabaki dut, kanpora joanda, nire ametsa errazago bilatuko nuela jakinda”*. (E6)

EMAKUMEEK AMORE EMATEN DUTEN UNEA

Haizea Barcenillak (Arte Historian doktorea eta arte komisarioa eta kritikaria) *“Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan”* deritzon txostenean, sorkuntzaren sektoreak zeharkatzen dituzten eta musika mundura mugatzen ez diren gai horiek aipatzen zituen: *“emakumeek artista profesionalak izateko bidean amore eman bazuten eta ematen badute, zergatik da? Noiz hartzen dute erabaki hori, ibilbide profesionalaren zein unetan? [...]”*...emakumeek ez dute ikusten bide profesionala, gizonen asmo berekin, agian argiago antzematen dutelako ikasketak amaitu ondoren izango dituzten zailtasunak: *gehiago dira hasi baino lehen edo hasiberrian amore ematen duten emakumeak*.

Emakumeak euren bizitzako une batean desagertu egiten dira musikaren panoramatik, batzuk aldi baterako eta beste batzuk betiko. Ikerketa honetan bi egoera jo ditugu funtsezkotzat alderdi hori azaltzeko: proba-saioak egiteko ikasgelatik edo lokaletik eszenatokira dagoen saltoa eta ama izatea.

Proba-saioak egiteko ikasgelatik edo lokaletik eszenatokira dagoen saltoa

Lehenbiziko *“onila”* musika-prestakuntzako lehen urteetatik eszenatokira pasatzean agertzen da. Musika-eskoletako ikasgelak, klase partikularrak eta proba-saioak egiteko lokalak neskatoz beteta daude eta neskatoei, mutikoei baino askoz gehiago kostatzen zaie esparru publikorako saltoa egitea.

Horren kontura, E2 emakume elkarrizketatuak berriz dioenez, estereotipo sexistak klabeak dira neskatoek ikasgelatik irten eta zuzenean bakarrik edo talde batekin jotzeko hainbesteko interesik ez izatearen zergatia interpretatzeko: *“Gitarra jotzen duen laneko lagun bat, gizona bera, musika-eskolan klaseak ematen ibili da hura ere. Lagunari etengabe galdetzen zioten ea zein taldeetan jotzen zuen edo musikari gisa zein jardueratan aritzen zen. Niri, ordea, neskatoek eta mutikoei egin dizkidaten ia galdera guztiak bizitza pribatuarekin lotutakoak izan dira. Galdetu didate ea banuen bikotekiderik edo seme-alabarik, baina oso gutxitan galdetu didate nire taldeei buruz. 8-12 urte bitarteko umeak dira, baina oso ondo islatzen dute gaur egungo errealitatea”*. (E2)

(Auto)exijentzia eta gizonen baino gehiago balio dutela frogatzeko premia dira, besteak beste, emakumez osatutako talde bati eszenatokira iristea, gizonen osatutakoari baino

gehiago kostatzeko arrazoiak. Euskal emakume konpositoreak deritzonean debatean parte hartzen duen eta lehenago aipatu dugun erdi-mailako kontserbatorioko emakume irakasleak dioenez, *“mutilak buru belarri joaten dira eta neskak bi aldiz pentsatzen dute, agian konfiantza faltagatik”*.

Amatasuna

Bigarren gai klabea amatasunarekin lotuta dago. Gai horrek, sorkuntza-sektoreetan zerikusia izateaz gain, jende orori eragiten dio. EUSTATen arabera, *“EAEn lanean ari diren emakumeen % 20ak garapen profetionalean desparekotasunak sortu ditzakeela uste dute”*⁵¹.

Ama izatean emakumeak jarduera gelditzera behartuta daude. Batzuetan, ahalik eta gehien atzeratu den bizitzako unea izan ohi da, E1 emakume elkarrizketatuak dioenez. Emakume autore horrek musika-jarduerarekin jarraitu nahi izan zuen haurdunaldia oso aurreratuta egon arren, kontzertuak emanez edota disko bat grabatuz. Berak aitortzen duenez, gehien entzuten zuen esaldia zen *“Zorionak, haurdun zaude! Amaitu zaizu musikaren kontua, ezta?”* Eta musika-jarduerara ahalik eta azkarren itzuliz erantzun zuen. *“Erditu eta hiru hilabetera kontzertuak ematen ari zen”*. (E1)

Antzeko zerbait dio E5 emakume elkarrizketatuak: *“Erditu nintzelako gelditu nuen jarduten. Haurdunaldiko zazpigarren hilabetera arte jo nuen eta baja eman ez bazidaten, jarraitu egingo nuen. Ama izan ostean, berriro ekin nion lanari poliki-poliki; handik lau hilabetera bideoklipa grabatu genuen, eta urtebetera, gutxi gorabehera, proba-saioekin hasi ginen eta kontzerturen bat ere jo genuen”*. (E5)

E1 emakume elkarrizketatuak aitortzen duenez, ama izan ondoren argiago ikusi zuen *“noraino daukagun buruan sartuta zaintzaileen rola”*, zeren bere jarduerarekin jarraitzeagatik, inoiz *“ama txarra”* izatearen sententzia ere izan baitzuen.

Emakume horientzat, arazo larrienak musikako karrera berreskuratzeko dituzten eragozpenak dira eta baita zein baldintzatan itzultzeko gai diren ere. E33 emakume elkarrizketatuak hauxe dio: *“estreinako ama izan nintzenez, 32 urte nituela, eta hurrengo bost edo sei urtean, musika modernoaren ate profesionalak dezente itxi zitzaizkidala sentitu nuen. Musikaren*

arlu horretan, harremanak lortzeko, kontzertuetara joan eta gauzez kalera atera behar duzu, eta nik, jakina, utzi egin behar izan nion horri. [...] Amatasuneko lehen urteak nire karrerako uterrik zailenak izan ziren. Are gehiago esango nuke, sasoi hartan nirekin harreman onak zeuzkaten programatzaileetako batzuk ahaztu egin ziren nirekin automatikoki [...] Gogoan dut, ume txikiak zeuzkaten gizonetako musikari kideek ez zutela arazo hori, ez zen hainbestekoa. Hor benetan sentitu nuen emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna.

Fernández-Caok *“Musika y Feminismo”* izeneko tertulian *“ezkonlagun sostengatzailea”* kontzeptua azaldu zuen. Ideia hori azpimarratu eta sakondu egin nahi dugu, amak izan diren eta ikerketa honetarako euren esperientzia kontatu nahi izan diguten zenbait euskal emakume musikarirekin solasean aritu ondoren.

Berriz ere, hurbileko ingurunean sortutako sareak eta talde-laguntza funtsezko alderdiak dira, ama izateko erabakiak emakumeen karrera artistikoa geldiarazi ez dezan.

E5 emakume elkarrizketatuak musika eta familiarekin bateratzeari buruz hitz egiten du: *“ama izatearen kontua buruan nuen garaian, kontzertua jo aurretik solasean aritu nintzen bikotea ziren lagun batzuekin eta solasaldi horrek inspiratu egin ninduen. Planteatzen ari nintzen ea nola jarraituko nuen jotzen ama izan ostean. “Ba... Jotzen!” esan zidaten; baina erritmo berean ez, jakina. Lagun haiek azaldu zidaten, seme batez arduratu behar den bikotea izanda eta bikotekideek talde berean jota, orduan bai direla gauzak zailagoak; gainera, esan zidaten eurek bira asko bertan behera utzi behar izan zituztela, umea zaintzeko inor ez zeukatelako. Baina musikan jardutea ez dute inola ere utzi! Eta horrela ikusita, esan nion neure buruari, umeak lehen hilabeteak bete ondoren, benetan nahi banuen, hori ez zela oztopo izango gustatzen zitzaidana egiteko, beste erritmo batean bazen ere, bikotekidearen eta nire babes-sarearen laguntza izanez”*. (E5)

Senideen eta hurbileko lagunaren sarea sendotzea garrantzitsua da logistika eta antolakuntza bideratzeko. Alderdi hori amak izan diren emakume elkarrizketatu guztiek azpimarratzen dute. Izan ere, E10⁵² gizon elkarrizketatuak dioenez, sare hori ezartzea izan zen familiaretan hitzartu behar izan zuten lehenbiziko baldintza, aitona-amonak ere tartean sartuta. *Bere gurasoek eta neronek ere egiten duenaz sinesten dugu eta zale amorratuak gara. Babes hori oso garrantzitsua da”*. E10ek beste gertaera

⁵¹ http://www.eustat.eus/estad/berriak/Newsletter_mujeres_2019.html

⁵² Gizona. E9 emakume elkarrizketatuaren senarra.

bideragarri bat aipatzen du; hots, E9 bakarrik konposatzen eta jokatzen duen artista dela. *“Proba-saioak etxean egin ditzake, tarte libreak topatuz. Banda batean jotzeak dakarren logistikak zaildu egiten du bateratzea”*. E9k eta E10ek egiaztatzen dutenez, E9k bere musika-karrera jarraitu ahal izateko lortu duten sare hori guztia eta antolakuntza, ezin izango litzateke mantendu ume gehiago izatea erabakiko balute.

E9k eta E10ek osatzen duten bikoteak hitzartutako baldintzen artean hauxe dago: *“hilean gehienez bi kontzertu ematea, asteburuetan umearekin egon ahal izateko”*. E10ek badaki batzuetan hitzarmen hori mingarri egiten zaiola E9ri, batez ere, egun horretan libre egon arren, kontzertuak edo lan aberasgarriak uztera behartuta dagoenetan, hilabete horretako bi saioak egiteko konpromisoa hartu duelako dagoeneko. E9ren iritziz, horretarako *“uko egiten eta gauzak albo batera uzten ikasi beharra dago”* oso mingarria izan gabe.

Hala ere, bikoteak dienez, komunitatean zaintzea ez da dena eta, *“sarea eta tribua”* edukitzeaz gain, arratsaldeetan jarduten duen emakume zaintzaile bati ordaindu behar diotela eta beste pertsona bat hartu behar dutela, etxeko lanak egiten laguntzeko.

Ekintza zehatzak oso nekez proposatzen direla diote baina zenbait ekintza “makro” interesgarri aipatzen dituzte: *“amatasuneko bajak luzatzea, ama autonomoei laguntzak ematea eta bateratzearekin lotutako bestelako diru-laguntzak kontuan hartzea”*. Bikote horrentzat oso garrantzitsua da *“ama eta artista izatea zer den agerian jartzea”*, horrek dakartzan zailtasunez kontzientzia hartzeko. Eta hauxe erantsi dute itxaropenez: *“hau guztia aldatuz joango da sartzen gaituenean, emakume programatzaile gehiago daudenean”*, edota programatzen duten gizonen enpatia azaltzen dutenean (adibidez, emanaldien ordutegiak ezartzeko orduan).

Azkenik, arrakala agertzen da (beste bat) amek prestakuntza jasotzeko bidearen kasuan. Eguneroko lanez kanpo ez dute asti askorik eta, beraz, ezin izaten dute prestakuntzarako ikastaro eta tailerretara joan, trebetasunak eta gaitasunak eguneratzeko eta, horren ondorioz, ama bihurtu diren emakumeek euren musika-karrera garatzeko dituzten baldintzen desparekotasuna handiagoa da, gizonetako kideen baldintzekin alderatuz. Amak erantzukizuneko lanetara itzultzen direnean, desabantaila sortzen da, zeren “galdu” duten denbora dela eta, ezin izan baitituzte curriculumak eguneratu eta ez dute lorpenik erdietsi.

LEGITIMAZIOA

Musika-kritika *“botere soziala”* da (E1 emakume elkarrizketatuak azaltzen duenez) eta pertsona bat legitimatzeko gauza da, haren lanak bistaraziz eta aitortuz. Oso garrantzitsua da musika-kritikak legitimatzeko duen botere hori kontuan hartzea. Eragina du sortzaileengan eta haien sortze-prozesuetan, publikoan eta bere ohituretan eta baita historiografiari dagozkion gaietan ere.

Datuen arabera, musika-kazetaritza maskulinizatutako beste sektore bat da eta emakume batek nekez aurkitzen du tokia arlo horretan. Dirudienez, esparru horretan ere, emakumeen ahotsak ez dira nahikoa entzuten. Horren ondorioz, artisten lanak epaitzen dituztenak gizonak izan ohi dira, batez ere, haien irizpideen eta arauen arabera. Emakumeen lanak hautemateko era gizonen esku uzten da, gizonen zein emakumeen proposamenen kalitatea eta interes musikala epaitzeko aditu kualifikatuak diren heinean. Zein diskori egiten zaio iruzkina, zeintzuk gelditzen dira kanpoan? Zein album edo kontzertu sartzen dira urteko onenen zerrendetan? Gai horiek oso garrantzitsuak dira eta ez bakarrik presentzia, ikusgaitasuna, erreferentziak eta aitortpena aintzat hartzeari dagokionez; sortzaileentzat eurentzat, zein publikoarentzat ere garrantzitsuak dira. Oso garrantzitsuak dira, halaber, artxibatzearen eta historiografiaren ikuspuntutik ere. Eresbilek, adibidez, prentsa erabili ohi du informazio-kanal gisa, gure lurraldean lege-gordailurik gabe argitaratzen diren eta bide horretatik artxibatu ezin diren lanen arrastoari jarraitzeko.

Baina garrantzia du, halaber, musika entzuteko ohituren eta musikaz disfrutatzearen ikuspuntutik ere, zeren diskodenda askok prentsan iruzkintzen diren disko berriak eta promozioak kontuan hartuz egiten baitiete eskaera etxe banatzaileei. Lurraldean bertan egiten diren eta aldizkari espezializatuatan agertzen diren kontzertuak ere kontuan hartzen dituzte eskaera egiteko. Gauza batek bestea dakar: sustatzaileek eta programatzaileek ere ez dute interesik izango, prentsan ia agertu ere egiten ez diren artisten edo taldeen kontzertuak antolatzeko.

Angels Bronsomsen hitzetan: “Gaur, oraindik ere, genero maskulinoa da nagusi musikako komunikabideetako % 98an eta sentsibilizazio falta nabaria da genero-ikuspegiari dagokionez”. Angels Brotoms musika-kazetaria izan da eta gaur Musika eta Generoko doktoretzako ikertzailea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan ⁵³. Ikusi

dugunez, gure lurraldeko datuak ere beldurgarriak dira: azken hiru urteetan, Mondosonoro (lurraldeko edizioa Zarata) publikazioan urteko diskorik onenen zerrendan sartu ziren 113 iruzkinetik, bat baino ez zen emakume batek sinatutakoa; gutzizkoaren % 0,88, alegia.

Gure lurraldean diskodendak zuzentzen dituzten emakumeak gutzizkoaren % 9 baino ez dira⁵⁴.

Zalantzarik gabe, eskasia batzuek beste batzuk indartzen dituzte: komunikabideetan ikusezin bihurtzen dena, beste arlo batzuetan ere (dendetan, kontzertuen programazioetan, lan berrien sorkuntzan) ikusezin bihurtzen da, eta alderantziz.

Sariak eta diru-laguntza instituzionalak ere legitimazioa ematen duten agentea garrantzitsuak dira. Epaimahai batek proiektu baten balorazio positiboa egin eta saria edo diru-laguntza ematea erabakitzen duenean, horrek prestigioa ematen du sektorean, eskatzen duen pertsonaren curriculumak bultzatzen laguntzen du eta, azken finean, konfiantza izango du bere buruarengan, sorkuntzaren bideari ekiteko. Horregatik, oso garrantzitsua da laguntza horiek iragartzen dituzten erakundeek eta fundazioek lana eta eman dizkiguten datuak esanguratsuak dira.

Azpitarratu beharreko beste gertaera bat izan dugu gure ikerketan zehar, hau da, diru-laguntza zeharo merezi duten artistak aurkitu ditugu, baina artista horiek ez dira deialdi ofizialek aurkezten, askotan, independentzia mantentzeko eta euren izenak erakunde edo marka jakin batzuekin ez lotzeko. Beste batzuetan, laguntza eskatzen duen proiektuak bete behar dituen eskakizun administratibo ugarien ondorioz, zenbait hautagaik amore eman dute, eskaera-prozesua amaitu baino lehen. Deialdi batzuetako zurruntasun burokratikoak oztupo gaindiezina izaten da diru-laguntza eskatzeko prozesua lehen aldiz egin behar duten artistentzat. Musika-ibilbidearen beste hainbat esparrutan gertatzen den bezala, zaila da "sisteman sartzea". Ez da arraroa, beraz, azken urteetan prestakuntza-tailerrak eskatzea, musikan jarduten duten pertsonen finantzazioa nola lortzen den ikasteko edota zein laguntza mota lortu dezaketen eta laguntza horietara nola aurkeztu daitezkeen jakiteko.

Ikusi daitekeenez, sariak eta laguntzak emateko balorazio batzordeak partitarioak izateko joera dute deialdi publikoetan, baina pribatuetan oraindik bide luzea egin behar da zentzu horretan. Deialdien oinarriari dagokienez, aipagarria da zenbait urtez geroztik, Eusko Jaurlaritzak musika-konposiziorako ematen dituen laguntzak "itsu-itsuka" baloratzen direla, hau da, epaimahaiak lanaren sinatzailea zein den jakin gabe, horrela laguntza eskatzen duen pertsonaren izenak, curriculumak edo sexuak ez du inolako eraginik.

Formula hori orain dela hamarkada batzuk ezarritako beste batzuen arabera da; esaterako, orkestretako postuak betetzeko pertsonak hautatzeko esparruan. Kasu horietan, proba teloi edo bionbo baten atzean egiten da, eta batzuetan alfonbrak ere erabili ohi dira, pausuen soinua ez identifikatzeko. Zenbait ikerketatan frogatu denez, neurri horrek aukeraberdintasuna errazten du eta emakumea hautatzeko aukera % 50 handiagoa da⁵⁵.

Dena dela, aipatutako deialdi horren oinarrien bidez bermatu egiten da *"gutxienez, diru-laguntza jaso duten proiektuetako bi, 35 urtetik beherako pertsonak egindakoak izatea eta laguntza jaso duten proiektuetako lau emakumeek egindakoak izatea"*⁵⁶.

Azken deialdian, 2018koan, laguntza lortu zuten pertsonen datuak ikusita, konposiziorako laguntzak jaso zituzten pertsonetako 7 gizonak dira eta ez dago emakumerik. Aurtengo estatistikan agertzen den emakumeen % 0 hori ikusita, Eusko Jaurlaritzan galdetu dugu ea emakumezkoak ez hautatzeko arrazoiak emakumerik ez aurkeztea izan den edo bestelako arrazoi batzuek eragina izan duten. Emandako erantzunaren arabera, emakumeak aurkeztu ziren, baina eskaerak ez zuten lehen bahea gaitu, arrazoiak arrazoi: batek laguntza jaso zuen aurreko urtean eta oinarrien arabera ezinezkoa da bi urtean jarraian jasotzea eta beste batzuek ez zuten gutxieneko puntuazioa lortu, hurrengo balorazio-mailara pasatzeko.

Hortaz aparte, eta laguntza publikoetan kuotak ezartzen direla kontuan hartuta, oro har, ikusten denez, emakumeek, gizonen baino laguntza gutxiago eskatzen dituzte eta lehiaketetara eta sariaren deialdietara aurkezten diren emakumeen ehunekoa txikiagoa da.

⁵⁴ Eusko Jaurlaritzaren "Genero Politikak eta Programak" -Kultura Auzolanean 2018-2019- txostenaren arabera.

⁵⁵ Analista eta kazetaria den Aránzazu Cruze egindako erreportajearen arabera. Web-orri honetan argitaratua: <https://brechageneromusicaprofesional.aranzazucruz.com/>

⁵⁶ http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/ayuda_subvencion/2018/sormena_konposizioak/

Zehaztasun gisa, aipagarria da, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen musika-konposiziorako laguntzen oinarrietan, erdarazko testuan “*compositor*” eta “*autor*” termino maskulinoak baino ez direla erabiltzen.

KUOTAK ETA DISKRIMINAZIO POSITIBOA

Berdintasuna lortzeko borrokatzen den bitartean, ezin da ukatu ekintza positiboak beharrezkoak direla, baina zentzu horretan zenbait ikuspuntu daude:

F. Gerenabarrena konpositorearen ustez, diskriminazio positiboa atzean lagatzeko unea da. Hala ere, onartzen du diskriminazio positiboak eman duen bultzadari esker, emakume askoren musika entzun ahal izan dela. Urrutiak dioenez, “*beharrezkoa izan da atentzioa deitzeko, baina interesgarria izango litzateke, emakumeok gizonekin batera programatuko bagintuzte*”⁵⁷.

Diskriminazio positiboaren arriskuei buruz, Haizea Barcenillak “*Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan*” izeneko txostenean hauxe adierazi zuen: “*gizonengan lehia bidegabearen sentsazioa sorraraz dezake eta, ondorioz, emakumeen lorpenak gutxitzat hartzeko joera izan dezakete. Hala ere, zenbait kasutan, diskriminazio positiboa diskriminazio historikoak orekatzeko erabili daiteke, askoz komenigarriagoa da arazoaren erroa bilatzea eta arazoa konpontzen saiatzea*”. Barcenillak hausnarketa sakona egiten du zentzu horretan, eta gu erabat ados gaude berarekin, honako honetaz ohartaraziz: “*bada norbait parekotasuna tresnatzat hartu beharrean, helburutzat hartu duena, eta horrek arriskuak besterik ez dakartza. Helburuak zenbakiekin nahastu daitezke eta diskriminazioaren arrazoi sakonagoak, ilunagoak eta konplexuagoak ezkutatu egin ditzake. Adibidez, zein faktorek eragiten dute profesioaren ibilbidea hartzen dutenen artean, emakumeak gizonak baino gutxiago izatea? Aurreko urteetan emakumeak sistematikoki egotzi izateak, baldintzatu egiten al du haien konfiantza? [...] Badago beste ondorio bat, hots, gaurko neurrien bidez injustizia historikoak ez dira nahitaez konpontzen eta parekotasunak alderdi hori bistatik galtzea eragin dezake.*”

E29⁵⁸ *gizon elkarrizketatuaren iritziz “kuotekin batera gauza gehiago egin behar dira eta beste gauza horiek imajinatu egin behar dira. Sortze-lana egin behar da, saiakuntza-errakuntza bat, jendearekin hitz egin”.* (E29)

Jon Bagüesek, Eresbil (Musikaren Euskal Artxiboa) erakundeko eta Erretereriako Musikaste Jaialdiaren zuzendariak, Euskal Emakume Konpositoreei buruzko jardunaldiko azken solasaldian, kontzertuen programazioan erabiltzen diren kuotei buruz esan zuenez, “*Musikasten*”⁵⁹, *esfortzua egin dugu aurten programatutakoen % 50 emakumeak izan daitezen, baina, hori lortzeko, ahalegin handiak egin behar izan ditugu. Aurtengo Musikaste amaituaz batera, hurrengo programatzen hasi gara eta, berehala, emakumerik gabe geratu gara. Beraz, hainbat urtean egin den diskriminazio positiboa erabat beharrezkoa eta bidezkoa da eta inork ez du zertan gutxietsita sentitu. Diskriminazio positiboa egiten ez badugu, nekez lortuko dugu parekotasuna*”.

Datu kuantitatiboak kontuan hartuz gero ere, argi dago kontzertuen programazioan genero-arrakala dagoela, batez ere arlo pribatuan eta erabakiak hartzeko postuetan.

Elkarrizketatutako E25 emakumea eta E26 gizona kultura komisarioak eta kudeatzaileak dira. Biak bat datoz “*zintzotasuna falta da ikerketa, komisariotza eta programazio kulturallean*” eta azpimarratzen dutenez, “*titularraz gain*” ikustaraziak eta programatuak izatea merzei duten emakumeen proposamen asko daude. Jaialdien komisariotzan jarduten duten pertsonen arazoa izan ohi dute, zeren artisten ordezkatzeko-agentzien roster-etako⁶⁰ zerrendetan sartzen diren lehen izenak maskulinoak baitira. Bilatzen ahalegindu beharra dago emakumeen proposamenak aurkitzeko, eta programazioan jarduten duten pertsona askok ezin dute lan hori egin edo ez dute egin nahi.

Emakume gehiago programatzeko premia argia izateaz gain, beste alderdi batzuk azpimarratzen dira: zein baldintzatan programatzen diren aztertzea, haien lan eskubideak errespetatzen diren jagotea, etc. Halaber, Gerenabarrena konpositoreak dioenez, komenigarria izango litzateke “*globalizatuak ez diren*” musikak sustatzea. Autore honen iritziz, programatzen dutenek aitzakiatzat hartzen dute kontzertuen zirkuituetan sartu ohi diren izenak edo musika “*jendeari*”

⁵⁷ Bi adierazpen horiek txosten honetan aipatu izan dugun Eresbilek sustatutako Euskal Emakume Konpositoreei buruzko jardunaldian egin ziren.

⁵⁸ Gizona. Musikaria, soziologoa, hezitzailea eta ekintzaile soziala. “Ikasketa Feministak eta Generokoak” masterra (UPV/EHU).

⁵⁹ María Luisa Ozaitak, bere bizitzaren parte handi bat emakume konpositoreen lana hedatzen eman zuen. 2017an hil zen. 2018ko 46. Musikastean (Erretereria) egin zitzaion omenaldian, programazioa bereziki emakume sortzaileei eskainitakoa izan zen.

⁶⁰ Artisten katalogoa.

gehien gustatzen zaionak direla". Gerenabarrenak uste du publikoa prest dagoela "hain ezagunak ez diren" bestelako proposamenak, musika-adierazpenak ezagutzeko. Beraz, funtsezkoa da, halaber, irizpidedun entzuleak prestatzea, arrisku gehiago hartzen dituen programazioaren aldeko apustua eginez. Aretu guztiek sarrerren salmentetatik bizi beharko balukete, jakina, musika komertzialenak baino ez luke tokirik izango zirkuituetan. Musikaren ekosistema sostengatzen duten promozio-etxeei eta agenteei diru-laguntza publikoak ematea funtsezkoa bada ere, ezinbestekoa da, halaber, emandako diru-laguntzen xedea zaintzea eta laguntzak jaso baino lehen berdintasuneko legeak betearaztea, hain komertzialak ez diren adierazpenak bultzatzea, eta, azkenik, jardunbide egokien eskuliburu batean bilduta egon daitezkeen zenbait baldintza.

Ekitaldi handietako karteletako emakumeen ehunekoia ikusita: Bilbao BBK Live (% 16,66), Azkena Rock Festival (% 6,89), itxaropena daukagu minoritarioagoak diren beste proposamen batzuekin. Gehienak herrietako elkarte kultural txikien bidez autogestionatuak dira, eta diru-laguntza urriek eta koordinatzaileen borondatezko lanari esker irauten dute. Musikaren panorama aberasten duten horrelako ekitaldiek ohikoak dira Euskal Herrian. Horietako zenbait ekitaldiren azken edizioetako karteletan izan den emakumeen presentziari buruzko estatistikak lortu ditugu eta gure ustez, aipagarria da azaltzea hain komertzialak ez diren proiektuak sartzeaz gain, berdintasunaren aldeko apustua egin dutela. Presentziaren tarteak Kategorrian ekitaldiko erabateko parekotasunetik (emakumeen % 50), Beratu Jaialdiko % 22,22ra bitartekoa da, eta gainerakoak hauek dira, besteak beste: Kaiola (% 25), Zarata Fest (% 37,35) edo Gernikako Lekuek (% 32,43).

Azken ekitaldi horrekin lotuta dagoen E11 emakume elkarrizketatuak seigarren edizioa egin duen jaialdiari buruzko xehetasunak kontatu dizkigu: "jaialdia jaino zen Trinkete, Antixokoa, Iparragirre eta Astra aretoek denen agendak errespetatuz eta elkarrekin biziz urte osoan zehar programatzen aritzen direlako Gernikan. Hiru aretoek, zenbait musika-taldek eta pertsonak edota kolektibo autogestionatuak, besteak beste, indarrak bildu zituzten urtean behin musikaz eta musikarekin lotutako oroz betetako astea izateko (kontzertuez gain, beste hainbat ekintza egiten dira: liburuen aurkezpenak, dokumental musikalak, umeentzako tailerrak, etc.)". (E11)

Jaialdi minoritario horietan egin ohi den aldi bereko eskaintza,

hau da, musikarekin lotutako umeentzako jarduerak, prestakuntza-tailerrak eta hitzaldiak, osagarri ona dira publikoak prestatzeko eta artistak ahalduzko. MEFSST! jaialdiari buruz E8 emakume elkarrizketatuak hauxe dio: "lau edizio antolatu genituen eta, egia esan, ahalduzko moduko esperientzia izan zen. Hainbat gauza egin genituen: kontzertuak sonorizatzeke ikastaroak, jam session-ak, punkean eta hardcore-an emakumeen partaidetzari buruzko debategak, herriko emakumeen adierazpenak jaso genituen, kontzertuak... Azkenean, emakume gutxi batzuk kenduta, hasieran, ia ez zegoen emakumerik jotzen eta azken urteetan emakume guztiok parte hartu dugu hainbat proiektutan. (E8)

Gure iritziz, hori beste arrazoietako bat izan beharko litzateke, proposamen horiei arreta eta laguntza bereziak emateko, zeren, hain mediatikoak ez diren proposamen horiek bertako kulturarekin lotzen baitute musika eta ez zuzenean eta/edo bakarrik aisiarekin edota turismoarekin.

SOLDATA-ARRAKALA

Txosten honetan dagoeneko azaldu dugu musikaren munduan emakumeen lana nola kontratatzen, hedatzen edo programatzen den aztertzeke dugu kezka.

El Economista aldizkariaren arabera, "musikan dagoen genero-arrakalak murriztu egiten du emakumeen arrakasta, % 15ean utziz." ⁶¹ 2018ko abuztuko artikuluan dakarrenez, Spotify Espainian, gehien entzuten diren kanten % 15 baino ez dira emakumeenak." PROMUSICAE elkarterako Servimediak bildutako datuen arabera, 2017an gehien saldutako 10 kanten artean ez dago emakume interpretatzailearik. Top 10 horretan ohikoa da gehiengo maskulino izatea. 2016an, emakumeen partaidetza zuten hiru kanta besterik ez ziren sartu eta 2015ean, bi. Bost kanta horietako bi baino ez ziren bakarrik emakumeek kantatutakoak. [...] PROMUSICAE, Espainiako Musika Ekoizleen elkarteak, ere gehien saldutako diskoen urteko zerrendak egin ohi ditu. Zerrenda horietan, genero-arrakala mantendu egiten da, baina kantuen zerrendetan murriztu egiten da. Hala ere, 2017an listetan sartu zen emakume baten album bakarra Vanesa Martinen 'Munay' izan zen bosgarren lekuan. Azken hiru urteetako ehunekoik txarra izan da. 2016an lau disko agertu ziren top 10ean eta 2015ean bi."

Beltzean kobratzen diren ordainsariak, kobratutakoaren arabera egin beharrean, gutxienekoa ordainduta egiten

⁶¹ <https://ecodiario.economista.es/sociedad/noticias/9328108/08/18/La-brecha-de-genero-en-la-musica-reduce-los-exitos-de-las-mujeres-a-un-15.html>

diren Gizarte Segurantzako altak dira, besteak beste, euskal musikaren munduan soldata-arrakalaren irudi zehatza egiten ez duten arrazoiak batzuk. E28 emakume elkarrizketatuak ziurtatzen duenez, berak zuzentzen duen goi-mailako ikasketen zentroan aritzen diren irakasleen artean ez dago desberdintasunik soldatetan, baina, zer gertatzen da emakume egileen eta interpretatzaileen ordainsariekin, gizon lankideekin alderatuz?

Emakumeek oso gutxi erabili ohi dute fakturazio-zerbitzua. Hori txostenean parte hartu duen elkarteetako batek azaltzen digun errealitatea da, baina datu hori bi eratarira irakurri daiteke: irakurketa baikorra, hau da, Euskal Herrian gainerako emakume musikariak kontzertua antolatzen duen erakundeak kontratatzen dituela edota fakturatzeko bide edo azpiegitura legalen bat dutela pentsatuz eta bestea, irakurketa ezkorra (errealista, agian), beltzean kobratzen denaren bolumena hain handia izaki, faktura-zerbitzua erabili beharrik ez dutela pentsatzea. Gai horri buruz hitz egin diguten zenbait emakumek kontatu digutenez, zenbatekoak “txikiak” direnean (zifrarik zehaztu gabe), sustatzaileek ez dute beltzean ordaintzeko eragozpenik jartzen, aitzitik, aldeko joera dute. Prekarietatean preso geratzeko modu bat da: emakumeek nahiago izaten dute diru gehiago ez kobratu, ordainsaria ez areagotu, beltzean kobratzen jarraitu ahal izateko. Gizonekin ere gauza bera gertatzen da, baina, agian, emakumeen kasuan nabarmenago da.

Hausnarketa sakona egin beharko lukete beltzean ordaintzen duten aretoek eta jaialdiek, albo batera begiratzen duten agintariek eta, baita, horrela ordaintzea onartzen duten artistek ere, ondorioak zein izan daitezkeen jakinda zein jakin gabe. Txosten honetarako komenigarria izango zitzaigun sexuen arabera banatutako datuak edukitzea, gure lurraldean gehien erabili ohi diren ordainsariei eta fakturazio-formulei dagokienez, arlo horretako soldata-arrakala ebaluatu ahal izateko. Kultura Live izeneko aretoen elkarteak ez du ere horretan banatutako daturik eta, beraz, ezin izan dugu azterketa hori egin.

ERANTZUKIZUNEN POSTUAK DENBORA KONTUA AL DA (BAKARRIK)?

Legitimazioak eta aitortpenak eta euren lanaren balorazioak markatu egiten dute emakumeen erabaki pertsonala,

zuzendaritzako edo erantzukizuneko postuak eskuratzeko edo postu horietara aurkezteko. E28 emakume elkarrizketatuak uste du, denbora kontua dela. Erabakiak hartzeko postuetan jarduten duten emakumeen ehuneko handituz doala uste du eta espero du, oraingo gazteen belaunaldia 50 urtera iristen denean, ohikoagoa izatea emakumeak aurkitzea zuzendaritzako postuetan.

Hala ere, itxurazko joera hori egon arren, 2019ko apirilaren hasieran Kultura Ministerioak Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutuko (INAEM) arduradun berrien izendapenak argitaratu zituen eta haien artean ez dago emakumerik. Gaur egun, politika kulturalako erantzukizun handiko 7 karguetan 7 gizonek jarduten dute. Egoera hori berdintasun printzipioen kontrakoa da eta musikako eta arte eszenikoetako arloko profesionalen elkarteek kritikatu egin dute erabakia. Erantzukizuneko postuetan jarduteko moduan zeuden 69 pertsonen artean, 15 baino ez ziren emakumeak. Orainsu idatzitako artikulu batean⁶² Pilar G. Almansa (Liga de las Mujeres Profesionales del Teatro) antzerkigileak hauxe adierazi zuen: *“Beste hausnarketa bat egin behar da: zergatik aurkeztu ziren 15 emakume bakarrik. Edo zergatik 15 emakume baino ez dute garatu ibilbide bikaina.*

Orain dela gutxi, konpositorea, orkestra-zuzendaria, libretista eta sopranoa den Pilar Jurado SGAEko presidente izendatu zuten, lehen emakumea, orain dela 120 urte sortu zen erakundearen Duela gutxi, emakumeek operan duten rolari buruz egin zituen adierazpen batzuetan gogoratzen zuen, garai batean, gizarteak nahiago zuela zirkuko ariak kantatzeko gizonak zikiratzea, emakumei eszenatokira igotzen uztea baino⁶³.

E11 emakume elkarrizketatuak hausnarketa garrantzitsu batekin esan zigun agur: *“Nire ustez, emakumeok beste era batera esan ohi ditugu gauzak (batzuetan esan gabe) eta askotan faltan botatzen dut gauzak esateko beste era hori eszenatokian. Bestelako era hori, era hori. Zuen mailako emakumeak eszenatokian ikusten ditudanean (Emakume artista itzelak, hurbil-hurbilean dauzkagunak, egia esan!) gizonengan askotan ikusten ez dudan zerbait ikusten dut eszenatokian. Eta horrek beste leku batera eramaten nau eta gustukoa dut. Aniztasunean dago koska”.* (E11)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, agian, denbora kontua izango da, baina orduan, zalantzarik gabe, erlojuar arindu behar dugu.

⁶² https://elpais.com/cultura/2019/04/05/actualidad/1554483515_167234.html

⁶³ <https://www.lavanguardia.com/musica/20190414/461639878339/operas-creacion-femenina-mujeres-creadoras-pilar-jurado-opera-de-butxaca-debate.html>



4. ESPERIENTZIAK ETA EKINTZA INSPIRATZAILEAK

Ikerketaren parte handi batean, kultur arloetan eta/edo beste lurralde batzuetan dagoeneko egiten ari diren proposamenak eta esperientziak aztertu eta azaldu ditugu. Proposamen eta esperientzia horiek, eredu inspiratzaileak izan daitezke, musika-sorkuntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzak, jarduerak eta jardunbide egokiak egiteko ildo estrategikoak proposatzeko.

Atal honetan, egin ditugun elkarrizketen arabera bildutako zenbait ideia azalduko ditugu. Elkarrizketak sortzaileei egin dizkiegu, eta baita elkarteetako kideei, kultur gestioarekin, musika-programazioarekin, prestakuntza-arloarekin, soziologiarekin, eta abarrekin erlazionatutako pertsoneri ere bai.

Esperientzia horiek zenbait ataletan egituratu ditugu, batzuen intersekzioak eta alderdi komunak kontuan hartuta. Proposamen gehienetan azaltzen diren zenbait alderdi orokor daude, adibidez, emakumeek egindako sortze-lana ikusaraztea eta aitortzea, eta baita horizontaltasunarekin, interakzioarekin, prestakuntzarekin, sareekin eta talde-laguntzarekin lotuta dauden elkarlaneko jardueren garrantzia.

Adibideak zerrendatu baino lehen, garrantzitsua da gai honetan sakontzea, E29 gizon elkarrizketatuaren hausnarketan bidez: *“Zentzu horretan, bakarrik bertikalki proiektatzen bada, eta zenbait emakume leku ikusgaietan jartzen ez badira, horrek eragina izan dezake emakume gazteenengan, gorantz begiraraziz, baina alboetarantz begiratu gabe”*. Politika horizontaletan, sortze-esparrua ez da bakarrik erreferente bati gorantz begiratzeko espaziotzat hartzen; hazkuntza eta sorkuntza prozesua beste pertsona batzuekin batera egitea ere sustatzen da. *“Uste dut esparru horri [politika horizontalenari] ez zaiola jaramon handirik egiten eta, nire ustez, gizonen inguratuta egotea izan daiteke, emakume askorentzat, musikaria izateko erabakia hartzeko arrazoia. Errazagoa da emakumeek euren burua gizonen inguratuta imajinatzea, Patti Smithen antzeko erreferenteak hartuz eta ez da hain erraza nor bere burua beste emakume batzuekin musika egiten ikustea, zeren, egia esan, musika beti izan baita “mutilen gauza”. Zeure burua bitxitat hartzen duzu eta pentsatzen duzu: ‘mundu honetan gauzak latz daude eta nik lekua egin behar dut, eta lortu egingo dut’, baina norekin lortuko dut hori, norekin batuko naiz hori lortzeko? [...] Politikak bertikalak direnean, ez dira izaten horizontaltasuneko espazioak hornitzea bezain baliagarriak, jendeak esperimentatu ahal izateko [...] Beste mota bateko ikuspuntuak behar dira, bistarazteak berez ezin du izan ardura bakarra eta askoz gauza gehiago erantsi behar dira”*. (E29).

Txosten honetan, beharrezkotzat jo dugu alderdi horiek azpimarratzea, zeren bistaraztea lagunduta eta/edo esperimentatzeko inguru horizontalean egitea baita ikerketa-prozesuan aurkitu ditugun adibide inspiratzaile gehienetan agertzen den egoera.

Adibide horiek deskribatzean, lehen pertsonaren arabera begirada erabiltzen da berriz ere, eta elkarrizketa zatien eta kontsultatutako materialaren aipamenaren bidez ilustratzen da.

4.1 - ALDIZKAKO BATZAR EZ-MISTOAK

Intangia, Ukiezinen defentsarako Elkartea

Intangia elkarteak Nafarroan du egoitza. 2009an sortu zen eta artearen hainbat sektoretako intelektualak eta sortzaileak biltzen dira bertan. Elkartearen xedeak hauek dira, besteak beste, aktibo ukiezinak sustatzea, kontzientziatzea, hedatzea eta laguntzea; aktibo ukiezinak kudeatzeko eta ustiatzeko gestio-sistemak analizatzea, aztertzea eta hedatzea, eta jabetza intelektualarekin lotutako prestakuntza-jarduerak antolatzea eta eskubideak kudeatzeko aholkularitza eskaintzea.

Elkarteak 208 kide ditu gaur egun, eta horietako 26k musikan jarduten dute. Azken horien artean 6 emakume daude bakarrik (musika arloko kide guztien % 23,08). Datu hori, txosten honetan azaldu dugunez, bat dator sektore horretako beste elkarte batzuetan dagoen emakumeen presentziarekin.

Intangiak aspalditik jarduten du emakumeek sortze-munduan duten presentziari buruzko ikerketak egiten. Gaur egun ondare ukiezinari buruzko ikerketa-proiektua garatzen ari da. Elkartea aprobetxatzen ari da gaurko egoera soziala eta zenbait erakundek dituzten gogoia eta kezka, emakumeek egindako sortze-lana ikusarazteko eta horri buruzko hausnarketa egiteko.

WIPOk (Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak) 2018an Jabetza Intelektualaren Mundu Eguna antolatu zuen eta Intangiak jardunaldi interesgarriak proposatzeko aprobetxatu zuen esparru hori, lelo hau erabiliz: *“Artífices del cambio: las mujeres en la innovación y la creatividad”*. Lelo horretan oinarrituta, hainbat jarduera egin ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakumeak bultzatzeko, bai WIPOren barruan, bai jabetza intelektualaren mundu zabalago batean ere. Aipatu beharra dago, 2014az geroztik genero berdintasuna WIPOren ikuspegi estrategikoaren parte

integrala dela eta konpromiso sendoa hartu duela, gai horretan sensibilizazioa eta erantzukizuna duen kultura sortzeko.

Testuinguru horretan, Intangiak *“Jornadas sobre propiedad intelectual en femenino”* izeneko aldizkako batzarrak egiten ditu. Batzar horietan, sorkuntza arloko emakumeak (artistak, kultur sektoreko agenteak eta ukiezinei buruzko legetan adituak) iritziak, esperientziak, ezagutzak eta ideiak partekatzeko biltzen dira. Batzar ez misto horien helburuak, elkartearen hitzetan, *“bizi ditugun errealitate anitzen kontzientzia hartzea eta bilakaeraz eta jarrera latzen aurrean erabili daitezkeen tresnez eta konponbidez jabetzea.”* Intangiak, halaber, garrantzitsua dela uste du, *“diziplinarteko elkarlanerako ehuna sortzea”*⁶⁴.

Batzar horietan zintzotasunez hitz egiten da baloreez eta aurreiritziez, elkarte gisa indarrak batzeaz eta neskatoen eta mutikoen, zein pertsona nagusien hezkuntza hobetzeko eraz *“genero arrakalak arazoa izaten jarraitu ez dezan”* eta gai hau *“era positiboan”* tratatu ahal izan dadin. *“Moldeak hautsi eta tradizioak puskatu dituzten eta emakumeei buru, hori lortzeko erari buruz hitz egiteak ere asko laguntzen du”*.

Batzar horietan Mercedes Lezaunek parte hartu ohi du. Pedagogo, psikoterapeuta eta bitartekaria) den emakume horrek taldean egiten diren jarduerak zuzentzen ditu. Jarduera horien emaitzaren arabera, emakume sortzaileentzat kezkarriak diren eta eguneroko elkarrizketetan eta solasaldietan agertzen ez diren alderdiak ikusten dira. E18 emakume elkarrizketatuak ziurtatzen duenez, batzar horiek egin ostean *“bakoitzaren autoestimua errefortzuak kolektiboaren autoestimua sendotzen du”*. Harrirituta utzi dituen zerbait aipatzen du: emakumeen kasuan etengabe errepikatzen den eredia detektatzen duela esaten die emakume pedagogoak. *Egiten dugunari bidezko balio ekonomiko emateko arazoak ditugu. Emakume gehienek balio gutxiago ematen diote euren lanari, gizonen euren baina. Gure lanak azpian duen alderdi sentimental izan daiteke emakumeok parte batean gure lanatik ordainduta sentitzearen arrazoia.* Solasean aritu ginen, ea hori izan zitekeen musikaren errealitatearen arrakala egoteko arrazoi bat. Emakumeek euren burua gizonek baino gutxiago baloratzea izan daiteke gutxiago kobratzeko auziaren erantzunaren parte bat.

Lehen aipatu dugun artikuluan, azken batzarreko konklusioak laburbiltzen dituenean, Conchi Cagide emakume abokatuak

diruaz ere hitz egiten dutela azpimarratzen du: *“ez dugu ahaztu behar profesionalak garena, bidezkoa eta esfortzuaren, inplikazioaren eta inbertsioaren arabera ordainsaria sorrarazten duen jardueraren erantzukizuna. Gu eta gureak elikatzeari, gizarte lehiakor batean mantentzeari, helburuak lortzeari esker, garapen ekonomikoa sortzen da, eta ez gara horretaz lotsatu edota errudun sentitu behar”*.

Intangiak bere esfortzuen parte bat ikerketak, jardunaldiak eta prestakuntzarako jarduerak publikoki ezagutzera ematen inbertitzen du. Jarduera nagusietako bat aldizkaria bi hilabetetik behin argitaratzea da. Aldizkariak, sorkuntzan jarduten duten pertsonentzako informazioa eta tresnak ematen ditu. Besteak beste, artikulatu juridikoak, kasuen analisiak eta jardunaldien laburpenak argitaratzen ditu, eta bazkideen lana ikusaraztea eta antzeko gaiak tratatzeko atal bat dauka.

Intangiak, horrez gain, elkarlanerako hitzarmena gauzatu berri du, Azkuna Zentroan egoitza duen Consonni ekoiztetxeko *“Radio Show”* kolektiboarekin hainbat irratsaio egiteko, podcast formatuan (irratia aukeran). Irratsaioak *“jabetza intelektuala femeninoan”* deritzen gaiari (musika-arloan hizkuntza inklusiboa erabiltzearen premiari ekinez) edota autogestioari buruzkoak izango dira. Azken gai horri dagokionez, Intangia aitzindaria da, zeren Self Copyright proiektua abian jarri baitu, egileek jabetza intelektualeko eskubideak euren kabuz kudeatzen dituztela adierazten duen ezaugarria. Proiektu kultural eta sozial horrek Nafarroako Gobernuak ematen duen mezenasgoko *“Mecna Zigilua”* jaso du.

Elkarte horren jardunbidea eta argitalpenak web-orri honetan kontsultatu daiteke: <http://intangia.es/>.

Ladies, Wine & Design

Ladies, Wine & Design bere web-orrian definitzen da, hauxe esanez: *“Jessica Walshen mundu ekimena da. Emakume sortzaileak, ardo kopa bat hartzeko aitzakiaz, diseinatzeari, sorkuntzari, negozioei eta bizitzari buruz hitz egiteko biltzen dira. [...] Ekimen hori mundu osoan zehar zabalduta, 140 hiri baino gehiagotan, eta bere xedea emakumeentzako inspiratzaile izan daitekeen plataforma sortzen laguntzea da, mentore gisa jardunez eta beste emakumeen lana bultzatuz”*.

⁶⁴ En el artículo de Conchi Cagide “19 octubre: 2ª Jornadas sobre Propiedad Intelectual en Femenino. Conclusiones”, publicado en el nº 31 de la revista Intangia: <http://intangia.es/images/documentos/We31.pdf>

Susana Blascok eta Nerea Gomezek koordinatzen dituzte ekitaldi horiek Bilbon, Ladies, Wine & Design Bilbao markarekin. Bilera horietan, hiriko sortze-inguruko emakume esanguratsuek parte hartzen dute gonbidatu gisa. Topaketa horiek koordinatzeaz gain, plataformaren bidez, antzeko ekimenei buruzko artikuluak eta informazioa eskaintzen dituzte.

Parte hartu ohi duten emakumeen profilak mistoak dira eta emakume musikariak ere bertaratzen dira.

Duela hilabete batzuk, gizonak gonbidatu zituzten ekitaldi batera. Topaketa horretan parte hartzeko esperientziari buruz hitz egiteko eskatu diogu gizon horietako bati: *“Esker ona sentitu nuen eta umiltasun osoz ulertu nuen gure presentzia han ez zela beharrezkoa. Garrantzitsua izan zen, soilik gizonak izateagatik gudan inoiz eraginik izan ez duten gure inguru profesionaleko ohiko problematikak emakumeen eskutik ezagutzea; adibidez, tratu etorkorra jasotzea edo hornitzaileak emakumeen gaitasunaz ez fidatzea. Esanguratsua izan zen, halaber, gure sektorean ere jokaera patriarkala dagoela jakitea edota sortzaileok edo diseinugile grafikook jatorriz motxilan daramatzagun mikromatxismoez jabetzea. Gainera, talentu itzaleko emakumezko erreferenteak ikusezin bihurtu ditugula konturatu nintzen, diseinuaren edo ilustrazioaren munduan nazioartean merezi izan dituzten prestigioa eta aitortpena lortu gabe. Dinamika hori, zorionez, aldatzen hasi da”.* (E30)

Proiektu horrekin lotura duen pertsonetako bati galdetu genion ea zergatik uste duen beharrezkoa emakumeentzako berariazko espazioak egotea. Bost puntu azalduz erantzun zigun eta egokia dela uste dugu azalpena txosten honen testuinguruan agertzea; hara erantzuna:

- *Espazio mistoetan zailagoa da bi sexuetako pertsonok gizarte patriarkalak eman dizkigun rolak gainetik astintzea. Hau da, gizonak espazio horietan egote hutsak, eredu berak errepikatzea eragiten du. Gizonei liderrak izaten, segurtasunez hitz egiten edo aitortpena bilatzen, irakatsi diete eta emakumeon joera, ordea, itzalpean geratzea da, gure hitzari garrantzirik ez ematea, gehiago entzutea eta iritzi gutxiago ematea, maila apalagoan geratzea, zeren behin eta berriz errepikatu digutenez, “isilik politagoak gaude”. Gure ahotsa entzunaraztea hain nekeza ez izateko espazioak behar ditugu.*
- *Batuta eta gizonik gabe egoteak sororitatea errazten du, horren beharrezkoa dugun sororitatea, emakumeok ere hain barneratuta ditugun jokaera matxistak baztertzeko; adibidez, elkar lehiakidetzat hartzea eta ez laguntzat.*

- *Espazio seguruak behar ditugu, gure esperientziak konpartitzeko eta gure artean hitz egiteko, begirada maskulinoak baldintzatu, epaitu edo kikildu gabe.*
- *Feminismoaren aitzindariak emakumeok izan behar dugu, batez ere, ez delako zentzuzkoa sexu pribilegiatuak sexu menderatuari nola askatu behar duen esatea edo gizonak emakumeari feminista nola izan behar duen esatea.*
- *Kelly Templek esan zuenez, “feministak izan nahi duten gizonak ez dute feminismoan lekua ematerik behar”. Gizartean duten espazio hartu eta feminista bihurtu behar dute. (E31)*

<https://ladieswinedesign.com/bilbao/>

Girls Rock Camp Alliance

Girls Rock Camp Alliance mundu osoan zehar egiten diren rock kanpamentuen aliantza da. Kanpamentu horien helburua neskatoak, genero zehatz batekin identifikatzen ez diren pertsonak trebatzea eta ahalduntzea da, sortze-ahalmena musikaren bidez garatu ahal izateko, berdintasuna sustatuz, eta pertsona guztiek ahotsa duten eta besteekin bat eginda sentitzen diren komunitate batean aurrera eginez.

Rain City Rock Camp nazioarteko aliantza honen kanpamentuetako bat da. Elkartearen web-orrian azaltzen denez, musika-hezkuntzako programen bidez *“neskatoek parte hartzeko aukera dute lidergoa sustatzen duen inguruan parte hartzeko, aldaketa soziala bultzatuz eta emakumeek eta mentoreek laguntza ematen dioten komunitatea sorraraziz”.*

2000 urtean Portlanden sortu zenetik etengabe hazi da eta gaur egun 300 neskato baino gehiago hartzen ditu.

Ekimen hori E5 emakume elkarrizketatuaren esperientziari esker ezagutu dugu. Musika-munduan, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, zer botatzen duen faltan galdetu diogunean, hauxe erantzun digu: *“Emakumeak falta dira eszenatokietan, emakume soinu-teknikariak ere falta dira... Zenbait postutan oraindik deseroso sentitzen gara uste dut. Nola aldatu hori? Ekintza positibo bidez. Neskato askok rockaren erakarpene sentitzen dute, baina ez dituzte euren ametsak betetzen, zeren txiki-txikitatik, zeharka bada ere, denbora galtzea dela edo eurei ez dagokien gauza bat dela esaten baitzaie. Erreferente femeninoak falta dira. Inguru erosoak sortu*

behar ditugu, geure buruengan sinesten hasteko. Guk ahal dugu! Taldearen indarra ikaragarria da, indar gehien ematen duen gauza da. Eta hortik edozein oihanean bizirik iraun daiteke (eta eraldatu ere bai). 2014an, neskatoentzako 'rock camp' batean egon nintzen Seattlen eta esperientzia hark aurrerago aipatu ditudan ideiak sendotu zizkidan: gure autoestimua sendotzen duten inguru seguruak, ondo ala txarto jotzeagatik inork epaituko ez gaituen lekuak. Eta hortik... Mundua jatera". (E5).

(<https://www.raincityrockcamp.org/>).

(<https://www.girlsrockcampalliance.org/>).

E13 emakume elkarrizketatuari ere mistoak ez diren espazioei buruz galdetu diogu. E13k honelaxe defendatzen ditu bakarrik emakumeentzat diren ekimen horiek: *"Sinestezina iruditzen zait gizon bat saminduta sentitzea horrelako gauza batengatik. Proiektu horiek diskriminatzaileak izateak ez du esan nahi justuak ez direnik, ez dira kontzeptu berdinak eta, dena den, ezin konta ahala espazio misto daude egunero denok elkarrekin egoteko. Proiektu "baztertzailak" baino gehiago, proiektu "barneratzaileak" direlakoan nago: emakume guztiok barnean hartzen saiatzen gara. Emakumeok ahalduntzeko, elkarri entzuteko, antolatzeko eta sarea sortzeko espazioak behar ditugu, iritzia emateagatik inori ez baimenik ezta barkamenik eskatu gabe -baimenak eta barkamenak egiten irakatsi baitigute umeak ginenetik-, zeren esperientziaren arabera badakigu, espazio mistoetan gizonak euren protagonismoa eta iritzia nabarmentzeko joera baitaukat. Beti egon izan dira emakumeen klubak eta, bestalde, inor ez da samintzen gizonaen klubak daudelako. Hipokresia handia dago gai horretan".*

4.2 - ELKARTEAK ETA KOLEKTIBOAK

Zehaztu ditugun zenbait adibidetan nabarmendu egiten da taldeko lanaren, asoziazionismoaren eta emakumeek ideiak konpartitzeko eta mistoak ez diren inguruetan esperimintatzeko topaketan garrantzia.

Gure ustez, garrantzitsuak dira, halaber, musikaren munduko emakumeen lana ikusarazten ari diren eta desberdintasun-egoera latza salatzen duten estatistikak argitaratzen dituzten kolektiboak eta elkarteak (batzuk mistoak dira). Horrez gain, aurrerago ikusiko dugunez, dibulgazioaz, prestakuntzaz eta emakumeen trebetasunaz ere arduratzen dira eta elkarte horietako asko hiritarren elkarlanerako irekitzen dituzte euren plataformak.

Mujeres y música (MYM)

MYM helburu nagusi batekin jaio zen, hots, dinamika matxistak ikusaraztea eta haiei aurre egitea. Sexuaren arabera aukerarik mugatzen ez duen eta publikoaren erantzuna baldintzatzen ez duen esparru parekatua lortu nahi du.

Euren manifestuaren arabera, elkarte honek gaurko musikako arlo guztietan *"gutxiegi irudikatuta dauden emakumeen panorama"* aldatzeko lan egiten du, *"musikaren historia markatu duten emakumeen eta gaur egun bidea egiten ari direnen* lana ikusaraziz. Horrez gain, lanean jardun dute *kanten letretako, hezkuntzako eta musika-industriako matxismoaz kontzientziatzeko* eta egoera hori aldatzeko genero-ikuspuntua sartzeaz arduratzen dira *"egoera aldatzeko eta esfortzuak bateratzeko lanean diharduten kolektiboek ahotsa emateko, ekintza bateratuak hedatuz eta sinergiak sorrarazten kolaboratuz"*.

Kolaborazioko plataforma da, ekarpen, hausnarketa eta proposamen berriak onartzen dituena.

"Horretarako, datuak ikertzen eta hedatzen ditugu, hausnarketak eta debateak planteatzen ditugu, elkarrizketak egiten dizkiegu artistei, emakumeek egindako edo genero-ikuspuntua duten diskoak eta emanaldiak promozionatzen ditugu eta borroka aktiboa eta kontzientea sustatzen ditugu musika-arloan generoaren ondoriozko egoera bidegabeen aurre egiteko. Aldi berean, emakume musikarien datu-basea sortu dugu, generoaren, herrialdeen, garaien arabera sailkatuta, emakume artista berriak errazago aurkitzeko".

Zerrenda horren helburua emanaldi gehienetako karteletan dagoen genero-arrakala hautsi nahi duten musika programatzaileen baliabidea izatea da. Beste datu-base batean *"musika egiten dugun emakumeok topatzen ditugun mugei eta zailtasunei zuzenean aurre egiten dien eta haien kontra borrokatzen duten"* kolektiboak eta artistak azaltzen dira. Beraz, musika-munduko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko tresna bihurtzen da.

<http://mujeresymusica.com/>

Emakumeak Musikan

Emakumeak Musikan elkarte beteranoenetako bat da eta erreferentzia da musika-arloan ari diren emakumeen promozioaren esparruan. 1989an fundatu zen, M^a Luisa Otaiza, Barakaldoko klabezin jotzaile eta konpositorearen ekimenari

esker. Emakume hori, Euskal Herriko emakume musikarien egoerari buruzko ikerketa honetan zehar aurkitu ditugun irudi erreferente historikoetako bat da. Gaur egun, Emakumeak Musikan izeneko erakundeak 100 bazkide baino gehiago dauzka, sorkuntzaren, interpretazioaren, musikologiaren, irakaskuntzaren eta kultur gestioaren arloetakoak.

Euren web-orrian dakarrenaren arabera, *“historian zehar zein gaur egun musikan jarduten duten emakume profesionalen presentzia sustatzea, hedatzea eta promozionatzea da elkarrearen xedea. Urtero, beste garai batzuetako zein gaur egungo emakume egileen kontzertuak eta jaialdiak programatzen ditugu. Aipagarriak dira Getxoko Emakumeak Musikan Jaialdia eta Off Arteria sarearekin egiten den elkarlana. Azken horri esker, mahai-inguruak eta kontzertuak antolatu ahal izaten dira Espainiako hainbat hiritan, besteak beste, Madrilan, Bartzelonan eta Valentzian. Horrez gain, topaketak, mahai-inguruak, liburuen edo diskoen aurkezpenak antolatzen ditugu, musikarekin lotutako emakumeen literatura eta diskografia ezagutzera emateko”*.

(<http://www.mujaresenlamusica.es/>).

Women In Sound Women On Sound (WISWOS)

WISWOS elkarteak berak dioenez, pertsonak, taldeak eta erakundeak elkarrekin lotzen dituen sareen sarea da eta soinuaren, musikaren eta teknologiaren esparruan ezagutzak trukaketa sustatzen du.

Web-orrian azaltzen dutenez, euren xedeak *“aldatu egiten dira gure aurkikuntzen arabera eta sare-konexio berriak egiten ditugu heinean”*. Lehen helburua soinuaren zenbait arlotan, besteak beste, musika-teknologian, soinu-arteetan, soinua eta gizartearen, soinuaren politikan edo beste hainbat bitarteko arlotan lan egiten duten emakumeak ikusaraztea izan zen. WISWOSek Erresuma Batuan ekitaldiak egiteko espazioak sortu zituen. Taldea, E21 emakume elkarrizketatuak dioskunez, bekarik eta laguntzarik gabe hasi zen, tailer eta sinposium batzuk antolatuz publikoaren artean erantzun ona sorraraziko zuen ala ez jakin gabe. Erantzuna oso positiboa izan zen eta, poliki-poliki hazten joan da.

Gaur egun, plataformak sareak sortzeko eta artelanak interpretatzeko eta erakusteko aukerak ematen ditu. Beste helburuetako bat, musika-teknologian eta soinu-arteetan parte-hartzea bigarren hezkuntzak neskengan nola eragiten duen

aztertzea da. Azken proiektua, *“Research in a Box: Activating Women in Sound”*⁶⁵ deritzon tresnen kit bat garatzea da. Lineako hezkuntza-tresna bat da eta erabilgarri dago Lancasterreko Unibertsitatearen web-orriaren bidez, eskolek alokatu dezaten.

WISWOS sarea, gaur egun, Latinoamerikako, Estatu Batuetako, Kanadako eta Europako pertsonak osatzen dute gaur egun eta antolakuntzarako laguntza ematen dien zenbait talde daude, esaterako: Octopus Collective, Peter Scott Gallery, Lancaster University eta Goldsmiths University.

E21 emakume elkarrizketatuak azpimarratzen duenez, oso garrantzitsua da elkarlanerako sareak sortzea, sareok osatzen dituzten banakako proiektuak aberastu ahal izateko. WISWOS, zentzu horretan, kanpoko ekarpenei irekita dagoen elkarlanerako espazioa da, eta <http://wiswis.com/> web-orriaren bidez, ikertzaileei, ikasleei, artistei eta abarri forma berriak eta erakargarriak sortzen dituzten, garai honetako zein historiako, emakume sortzaileen lanak aurkitzen laguntzen die.

Emarock

Gure lurraldean, Emarock elkartzeko-proiektu aipagarrienetako bat da. Era bitxian sortu zen, argazki-erakusketaren testuinguruan egindako proposamen baten ondorioz. *“Emarock. Iragana, oraina eta geroa”* deritzon liburuaren promoziozko testuan azaltzen denez, *“2010ean Saioa Gauilunak argazkilariari erakusketa egitea proposatu zioten, Eibarreko Karrika tabernan. Argazkiak aukeratzen hasi zenean, bakarrik emakume musikariek osatutako erakusketa egin zezakeela konturatu zen”*. Emarock proiektua testuinguru horretan jaio zen, musikan jarduten duten Euskal Herriko emakumeen protagonismoa eta espazioa sustatzeko, hedatzeko eta promozionatzeko asmoz.

Harrezkero, Emarock kultur elkartearekin lotutako ekimenak askotarikoak izan dira: ideiarekin sorrarako argazki-erakusketa, Euskal Herrian zehar zein Espainiako estatuan ikusi ahal izan dena, lehen aipatu dugun liburuak, kontzertuen antolaketa, irratsaioa, dokumentala (16 emakume musikari euskaldunek parte hartzen dute dokumentalean, euren ikuspuntua emanez, hainbat gaitan: musikaren munduan dauden genero-estereotipoak, onartzen diren rolak, ama izatearen eragina emakume musikariengan, etc.)

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Emarock>

⁶⁵ <http://www.wiswos.com/research.php>

4.3 - MENTORETZAKO, PRESTAKUNTZAKO ETA EMAKUMEEI LAGUNTZEKO PROGRAMAK

SouthMed WiA – Women in Audiovisual in the Southern Mediterranean

SoutherMed WiA deritzon programaren helburua, web-orria jartzen duenez, *“ikus-entzunezko arloan jarduten duten Mediterraneoko Hegoaldeko zazpi herrialdeko (Algeria, Egipto, Jordania, Libano, Maroko, Palestina eta Tunisia) emakume profesionalen eta operadoreen gaitasunak sendotzea da eta, gainera, garapen iraunkorra eta kultur aniztasuna garatzen laguntzen du, emakumeek zinematografiaren esparruan duten irudia sustatuz. Proiektuak genero-duintasunarekin lotutako ahuleziez eta auziez eta emakumeek ikus-entzunezko sektorean duten ordezkapen eskasaz arduratzen da, Mediterraneoko Hegoaldeko emakumeen irudiarekin lotutako estereotipoen betiketzea barne, kultur jarreretan eta iritzi publikoan eragiteko azken helburuarekin.*

Egiten dituzten jardueren artean, besteak beste, hauek aipatu daitezke: laguntzen deialdiak egitea, kontaktuak eta sareak ezartzeko topaketak antolatzea, ikus-entzunezko sektoreko profesionalak prestatzea, batez ere emakumeen gaitasunak sendotzeko, finantzazioa eta koprodukzioa lortzeko orduan, komertzializatzean eta banaketa egitean.

Txosten honekin lotuta, alderdi aipagarria da, SouthMed WiAk dagozkion 7 herrialdeetako ikus-entzunezko sektorean aritzen diren emakumeek gaur egun duten rolari buruz egin duen ikerketa. Horren helburua sorkuntza arloari, ekoizpenari eta banaketari buruzko datuak eta zifra fidagarriak biltzea da. Halaber, Mediterraneoko Hegoaldean, ikus-entzunezko sektorean jarduten duten emakumeen genero-berdintasuna eta emakumeak sektore horretan duen papera azaltzeko dibulgazio-ekintzak egitea proposatzen du.

Europar Batasunak programa hau finantzatzen lagundu du eta Interarts Fundazioak inplementatu egin du. Programa honen bidez, azken urteetan kulturarekin eta emakumeekin zerikusia duten hainbat proiektu berritzaile abiatu dira. Lotura honetan ikus daitezke: <https://www.interarts.net/noticias/cultura-en-femenino/?lang=es>

([http://www.smedwia.eu/en/home/;](http://www.smedwia.eu/en/home/))

Noka Mentoring

Noka programa berezi bat da eta Euskal Herriko emakume zinegileak ikusarazteko eta ahalduzko prestakuntza eta laguntza emateaz eta profesionalak izateko bidean laguntzeaz arduratzen da. Ekimen honetan, emakume aholkulariaren eta mentorearen irudia erabiltzen da. Metodologiari dagokionez, aholkulariaren eta parte-hartzailearen arteko konfiantza eta elkarrizketan oinarritzen da, parte-hartzailearengan bilakaera sortzailea eta profesionala sorrarazteko.

Programak urtebete irauten du eta etapetan banatzen diren lan-faseak dauzka. Hiru hilabetetik behin, hautatutako mentoreek eta zineastek elkarrekin lanean aritzen dira 4 egunean tutoretza trinkoa eginez. Gero, harremana mantendu egiten da, bideokonferentzia bidez, hurrengo topaketa egin arte.

<https://www.zineuskadi.eu/es/profesionales/programa/co-602/>

Vertigo Programa (Espacio Artemisa)

Vertigo Portugaleten eta inguruan, artista gazteei laguntzeko eta artistok ahalduzko zerbitzua da, 2019 osoa iraungo duena. Artista gazteei aukerak emateko programa mistoa da, euren lana ikusarazi eta kulturaren sektoreari buruzko ezagutzak hobetu ditzaten, profesional bihurtzeko dauzkaten tresnerak erakutsiz. Laguntzei, kultur ikaskuntzari, lan eskubideei eta abarri buruzko informazioa ere ematen zaie, pertsona horien euskarria izan daitekeen eta esperientziak, ezagutzak eta zalantzak konpartitzeko artista gazteen komunitate baten bidez.

<https://www.espacioartemisa.org/vertigo-castellano>

4.4 - DATU-BASEAK

Wikiemakume proiektua

2015eko urrian Wikiemakume sortu zen. Emakumeen talde hau asmo honekin batu zen: *“Askotariko Wikipedia bat lortzeko lan egin nahi dugu, munduan gehien erabili ohi den entziklopediako genero-arrakalaren kontra borrokatu ahal izateko.”*⁶⁶ Astero, batzar presentzialak egiten dituzte Madrilen zein Bartzelonan, Wikipediaren edizio-prozesua konpartitzeko.

Hauexek dira helburuetako batzuk: emakumeak entziklopediaren edizioan sartzea (emakumeak gaur egun, editatzen dutenen % 13 baino ez direla ohartzen gaituzte); emakumeen biografien edukia luzatzea eta genero-ikuspuntuen arabera lan egitea *“Wikipediaren funtsezko oinarria den neutraltasuna defendatzeko egiten diren testuen edukietan dagoen joera androzentrikoa kentzeko”*.

Badakite, aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa dela masa kritikoa lortzea eta euren asmoa *“gutxienez emakumeen % 33,3 parte hartzea da, munduan gehien erabili ohi den entziklopedian editatuz eta ezagutza kolektibo eta librearen sorkuntzan parte hartuz, zeren editatzen duten gehienak gizonezkoak baitira. [...] Horregatik, gure helburua daukagun denboraren parte handi bat prestakuntzan ematea da”*.

Proiektu irekia eta kolektiboa da eta jendea gonbidatu egiten dute topaketa presentzialetan eta “Editadonas” deritzen genero-ikuspuntuen araberrako edizio-maratoieta parte hartzera. Aldizka antolatzen diren jardunaldi horietan, Wikipedian nola editatzen den eta edukia eransten nola parte hartu daitekeen irakasten dute. Patricia Horrillo kazetariak *“Nadie hablará de nosotras si no estamos en Wikipedia”*⁶⁷ izeneko artikuluan dioenez, elkarlaneko entziklopedia hori mundu osoko milioika pertsonak kontsultatzen diren erabiltzen duten lekua da eta, horregatik, garrantzitsua da emakumeen biografiak sartzea bertan.

Wikiemakume proiektuak Espainiako Gobernuaren Emakumearen Institutuaren saria jaso zuen 2018ko martxoaren 8an, 365 egun berdintasunaren alde kanpainaren esparruan, berdintasunaren eta emakumeen lorpenak ikusaraztearen alde egiten duen lanagatik.

Jarduera guztiak web-orri honetan ikusi daitezke: <http://wikimujeres.wiki/>

Ildo horretan, genero-ikuspunturik gabe bada ere, 2018ko azaroan, EHUren laguntzaz egin zen “Interneteko Euskal sormenaren presentzia hobetzeko eta sustatzeko tailerra, Euskal Wikipediaren sarrerak orrazten eta hobetzen”.

Women in experimental music

Susana Lopez, konpositore esperimental, artista bisuala eta *perfomerra*, *Women in experimental music* izeneko datu-basea abian jartzearen arduraduna da. Egileak, bere web-orriaren bidez, 2009an, SONMen (Murtziako Puertas de Castilla Kultur Zentroko Musika Esperimentalaren eta Soinu Artearen Fonotekan) dokumentatzeko, katalogatzeko eta digitalizatzeko lanarekin hasi zenean, publikoak ezagutzen ez zituen emakume konpositore esperimental ugari aurkitu zituen. *“Konpartitu nituen lehenbizikoak Eliane Radigue eta Delia Derbyshare izan ziren, ‘Mujeres con pajarita’ fanzinean (2011). Gero, beste batzuen txanda izan zen: Ani Zinc (Diseño Corbusier), Pauline Oliveros, Laurie Spiegel... Testu hori “timeline” gisa sortu nuen, jendeak sorreratik kezka musikalki dituzten emakumeak daudela argi antzeman zezan.*

Datu-base txiki horren bidez, publikoarentzat oraindik ezezagunak diren zenbait emakume konpositore erakusten dizkigu: <https://susannalopez.com/women-in-experimental-music/>.

Gabiltza - Emakume Adituen Biltoki Digitala

Euskal Herrian, eskuragarri dago Gabiltza –Emakume Adituen Biltoki Digitala- deritzon datu-basea. Berria Fundazioaren beka bati esker abiatu zen eta komunikabideetan emakumeek duten jardura urriaz hausnarketa egin zuten zenbait euskal kazetariren ekimena izan zen.

Gabiltzan, genero-arrakalari aurre egitea proposatzen da, emakume adituen esperientzia eta jakituria biltzen ahaleginduz eta gizarte-maila ertain altuko gizonezko zuri heterosexualaz irudikatzen den “adituaren” kontzeptu tradizionala baztertuz. Datu-baseen nazioarteko beste proiektu batzuetan inspiratuz,

⁶⁶ <http://www.mujeresenred.net/spip.php?article2225>

⁶⁷ <https://tribunafeminista.elplural.com/2016/05/nadie-hablara-de-nosotras-si-no-estamos-en-wikipedia/>

⁶⁸ <http://thewomensroom.org.uk/getlisted>

esaterako, The Women's room⁶⁸ britainiarra aintzat hartuta, Gabiltzak zilegitasuna ematen dio hedabideetan gutxiegi irudikatzen diren emakumeei: <https://www.gabiltza.eus/orrialdeak/aurkezpena>;

Antzeko irizpideekin, Sortzaileak izeneko datu-base mistoa daukagu. Sortzaileak komunikatzeko hizkuntza gisa euskara erabili ohi duten hainbat diziplinako artistei buruzko datu-basea da. <http://sortzaileak.eus/>

4.5- JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUAK ETA KODEAK

“MANUAL DE VISIBILIZACIÓN DE COMpositorAS (o cómo mostrar la figura oculta)”

Eskuliburu horretan, Mercedes Zavala ikertzaileak emakumeen lanak programatzeko eta bistarazteko arauak ematen ditu. Testuak ekarpenak onartzen ditu; beraz, berriz ere elkarlaneko adibide baten aurrean gaude: <http://mercedeszavala.blogspot.com/2017/06/manualbasico-de-visibilizacion-de.html>

“MU-ISM Industry Code of Practice”

Britainia Handitik igorritako jardunbide egokien kodea da eta musikaren munduan izaten diren jazarpenak, esestek eta diskriminazioa deuseztatzen laguntzeko asmoz: <https://www.ism.org/images/images/ISM-MU-Industry-Code-of-Practice-2018.pdf>

“MUSIKA ARLOKO KONTRATAZIORAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA”

<http://promocionmusical.es/wp-content/uploads/2016/10/manual-de-buenas-pr%C3%81cticas-para-la-contrataci%C3%93n-en-el-sector-musical.pdf>

“ARTE BISUALETAKO JARDUNBIDE PROFESIONAL EGOKIEN ESKULIBURUA”

<http://mercedeszavala.blogspot.com/2017/06/manualbasico-de-visibilizacion-de.html>

“KULTUR GESTIORAKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA”

<http://www.gestorcultural.org/images/noticies/noticia1690060171.pdf>





5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Egitura-desberdintasunean oinarritzen den egoera bat arintzeko ekintza zehatzak sortzea eta proposatzea, erronka handia da. Musika-arloan emakume sortzaileengan eragiten duten zailtasunen jatorria arazo historikoetan datza eta arazo horiek epe luzerako neurri sakonak behar dituzte zuzendu ahal izateko. Aurrean daukagun erronkak begirada aldatu eta beste jokabide enpatikoago batzuetara zabaldu gaitezen eskatzen du, androzentrismoa, lehiakortasuna eta mesfidantza patriarkalak gainditu ahal izateko.

Ekintza horiek planteatu eta proposatu baino lehen egin izan dugun ezinbesteko hausnarketaz gain, beharrezkoa izango dela uste dugu, geroko beste hausnarketa bat egitea, ezarri litezkeen ekintza horien ondorioei buruz eta ebaluatzeko erari buruz.

Ondoren azalduko ditugun hiru proposamen garrantzitsuak epe laburrean edo ertainean gauzatu daitezke eta epe luzera eragin positiboa izan dezakete. Azaldu ditugun esperientzia inspiragarri gehien funtsezko bi alderdiak kontuan hartu ditugu: alde batetik, emakumeek egindako sortze-lana agerian jartzearen eta aitortzearen premia eta, bestetik, horizontaltasunari, sareei, talde-babesari, prestakuntzari eta gaitasunari garrantzia ematea.

5.1 - LANTALDE EGONKORRA SORTZEA ETA SENDOTZEA

Sektorean adituak diren pertsoez osatutako lantaldea sortzea eta sendotzea proposatzen da. Taldearen xedea behatoki gisa jardutea da, Euskal Herrian musikan jarduten duten emakumeen egoerari, partaidetzari eta presentziari buruzko datuak eguneratuz eta ikusaraziz eta datu-base eguneratuak, eta abar sortuz eta mantenduz, zeren, horrela, datu horien arabera sortu daitezkeen arazo edo egoera zehatzak landu ahal izango baitira.

UNESCOk adierazten duenez, kezka nagusienetako bat sexuaren arabera banatutako estatistika nahikorik ez edukitzea da, eta, horregatik, datu horiek sistematikoki biltzeko lana premiazkoa dela uste du. Bakarrik datu eguneratuak aztertuta bultzatu daiteke kontzientziatzea, neurriak hartzea eta arlo horretan egin daitezkeen aurrerapenen segimendua egitea.

Azaldu ditugun adibide inspiragarrietako batzuk, beka edo diru-laguntza zehatz bat jaso ondoren abiatu ziren edota pertsona baten edo batzuen denbora eta esfortzu pertsonalarekin gauzatuak borondatezko ekimenari esker.

Ezagutzen ditugun kasu askotan ohikoa den egoera horrek ez du bermatzen, haztea eta jarduten mantentzea merezi zuten proiektuekin jarraitu ahal izatea. Ikerketa-proiektu eta datu-base oso interesgarriak daude, denborarekin zaharkituta geratzen direnak eta musika-sektorearen errealitate aldakorra antzematen ez dutenak.

Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea ezinbestekoa izango litzatekeela lantalde hori sortzea (aspalditik errepikatzen den eskaera da eta zenbait txosten eta artikuluetan agertzen da) eta, horrez gain, sendotu egin beharko litzateke eta proiektu egonkor bihurtu, unean uneko laguntzak eta boluntarioen lana direnak direla.

5.2 - MENTORETZAKO ETA PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

Mentoretzako programa bat sortzea proposatzen da, ikus-entzunezkoen munduan dagoen Noka *mentoring* programaren antzekoa, baina zinemaren sektorearen eta musikaren sektoreen artean dauden desberdintasunak kontuan hartuta.

Programa horrez gain, aldizkako prestakuntzarako ekintzak dauzkagu (tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak, etc.). Emakume gazteentzat eta berariazko prestakuntza eta gaitasuna eskuratzeko zailtasunak dituzten emakumeentzat (laguntza bereziekin) ere badira.

Umea izan duten emakumeentzat, arazo larrienak musikako karrera berreskuratzeko dituzten eragozpenak dira eta baita zein baldintzatan itzultzeko gai diren ere. Amak direnak edo denboraldi batean etxeokoa zaintzen aritu diren emakumeak desabantailarekin hasten dira berriz lanean, zeren zaila egiten baitzaie curriculumak eta prestakuntza eguneratzea eta errealitate horrek haien karrerak gelditzen eta eragozten ditu.

Komenigarria izango litzateke, halaber, genero ikuspegia duten tailerrak inplementatzea, berariaz musika-programatzaileentzat eta musika-kazetarietzat izateaz gain, publikoen prestakuntzan sakontzeko.

5.3 - GENERO-IKUSPEGIA DUEN JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA EGITEA

Azken proposamena genero-ikuspuntua daukan Jardunbide Egokien Eskuliburua egitea da.


Abiapuntu gisa, adibide ona izango litzateke *Unión de Asociaciones de Artistas Visuales* elkarteak 2008an editatu zuen *"Manual de Buenas Prácticas Profesionales en las Artes Visuales"*⁶⁹, deritzon eskuliburua, VEGAP kudeaketa kolektiboko erakundeak eta Kultura Ministerioak bermatutakoa. Dokumentu hori oso tresna baliagarria da eta artisten eta erakunde publikoen zein pribatuen arteko edozein harreman ezartzeko funtsezko esparrua da. Halaber, kontratuak egiteko ereduak eta gomendioak eta dekalogo bat dakartza. Dekalogoan oinarritzko alderdiak aztertzen dira, besteak beste, adierazpen askatasunari eta sortzaileen eskubide moralei zor zaien errespetua, bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea eta profesionaltasunari eta gardentasunari arreta berezia eskainiz.

Lan horretarako, sektoreko elkarteen eta artistei dagozkien lege kontuetan adituak diren eta arlo horretan jarduten duten erakundeen aholkularitza beharko da, esaterako, Intangia erakundearena.

Esparru komuna izan daiteke sorkuntza-arloan zein musika-industrian, zeren, esparru horretan, artistak kontratatzeko jardunbide egokietako kodeak sartzea komeniko litzateke, alde bat zein bestea inplikatu.

Arte eszenikoetan ere interesgarria izango litzateke horrelako eskuliburua garatzea. Gure ustez, ez da komenigarria arte eszenikoak eta musika dokumentu berean batzea, zeren bi sektore horien errealitateek eta premiek, alderdi komunak badituzte ere, desberdintasun nabarmenak baitituzte. Horietako bat alderdi eztabaidagarrienetako bati dagokio: artisten kontratazioa musika-ikusgizunetarako. Esperientziak adierazten digunez, arte eszenikoetako, antzerkiko zein dantzako, ia konpainia guztiek legea ezagutzen dute eta artistei Gizarte Segurantzari alta emateaz arduratzen dira, haiek hala eskatzen badute. Musika, ordea, sektorea kontzientziatu egin behar da.

Nolabait, proposatutako hiru ideiak bat datoz zenbait puntutan eta elkarren osagarriak izango lirateke. Lantaldeak eskuliburua koordinatu dezake eta etorkizuneko prestakuntza-jardueretan erabiltzeko moduko tresna izan daiteke. Bestalde, publikoen prestakuntzari eta komunikabideetan kulturak duen presentziari dagokienez, sektoreak berak zein instituzioek interesa adierazi dute. Lerro estrategiko horien bidez, lehendik ezarritako beste lantalde batzuekin elkarlanean jardun daiteke, beste alde batzuetatik proposatu daitezkeen ekintza batzuei genero-ikuspuntua emateko.



⁶⁹ <https://avvac.wordpress.com/2014/05/20/manual-de-buenas-practicas/>



6. ERANSKINAK

6.1 - METODOLOGIA, JARDUNBIDEAK ETA OHARRAK

Ikuspegia

Ikerketa hau abiatzean, bagenekien ikerketa-arlo honetan ez dagoela errealitate unibertsal bakarra; aitzitik, aldi bereko errealitate asko eta partikularrak daudela (aldagai askoren eragina duten errealitateak), bizi eta/edo interpretatzen dituen pertsonaren arabera.

Ikerketa garatzeko ikuspegi kuantitatiboa eta, nagusiki, kualitatiboa erabili ditugu. Jarraian, kapitulu bakoitzaren sarreran dagoeneko azaldu ditugun ikuspegi horiek zehaztuko ditugu.

Ikuspegi kuantitatiboa

Azterketa kuantitatiboan, bizitza kulturean emakumeek duten presentziaren eta parte-hartzearen ehunekoei buruzko datuak eta zenbakiak kontuan hartu dira, eta batez ere, sorkuntza eta ekoizpen musikarari dagozkionak. Datu horiek azken txosten estatistikoen arabera dira (besteak beste, nazioarteko erakundeek, Kultura eta Kiroleko Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta musika-sektoreko elkarte nagusiek argitaratutakoak).

Ikuspegi kualitatiboa

Ikerketa kualitatiboaren prozesuan hainbat iturri eta ikuspegi kontuan hartu ditugu, adierazpen pertsonalak eta bizi istorioak bilduz eta guztira 33 elkarrizketa eginez (ikusirik elkarrizketatu ditugun pertsonen profilen eta ikuspuntuen xehetasunak, erantsitako taulan).

- **Emakume musika-sortzaileei egindako elkarrizketak:** Profil askotako emakume musikariei egin dizkiegu elkarrizketak, hainbat musika-estiloetan (musika klasikoa eta soinu-bandak, musika elektronikoa, esperimentalak, jazzaren eta pop-rockaren esparru erraldoian sartzen diren musikak...) izandako esperientziak, adin-tarteak eta egoera pertsonalak alderatu ahal izateko.

Elkarrizketatuen artean, batzuek, sortzaile lanetan aritzeaz gain, musikaren hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin lotutako arlo askotako bestelako lanak ere egin ohi dituzte. Haietako batzuk amak dira eta artistaren lana eta etxeko bizitza bateratzeko bizi dituzten esperientziak kontatu nahi izan dizkigute.

- **Beste arlo interesgarri batzuetako pertsonen egindako elkarrizketak:** Beste hainbat arloekin lotutako pertsona interesgarriak ere egin dizkiegu elkarrizketak: erakundeetakoak, elkarteetakoak, hezkuntza eta prestakuntza arlokoak, kultur gestioan jarduten dutenak, musika-programazioa egiten dutenak eta, baita, Musikologian, Soziologian eta Arte Historian adituak direnak ere.

Emakume musika-sortzaileei egin dizkiegun elkarrizketa erdiegituratuaren gidoian, emakume horien egoerarekin lotutako hainbat alderdi eta haien lana errazten edo eragozten duten faktoreak aztertu nahi izan ditugu:

- Zein izan ziren musikan jarduteko motibazioak eta inspirazioa
- Erreferentziako emakumerik izan zuten ala ez (ezetz erantzunez gero, une hartan horretaz ohartu ziren ala ez).
- Musikaren munduko estereotipo sexistak eta estereotipo horiei nola aurre egin dieten
- Euren musika egiteko izan dituzten zailtasun edo arazo garrantzitsuenak
- Haien karreraren unerik batean musika utzi beharra izan duten ala ez (aldi baterako edo betiko)
- Musika-industriaren duten harremana
- Musikaren munduan faltatzen eta sobratzen denari buruzko iritzia, batez ere, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez

Erantzunak aztertuta, jarraibide komunak eta egoera errepikatutakoak ikusi ditugu eta, halaber, azken urteetan nabarmen aldatu diren bestelako eredu batzuk ere antzeman eta lotu ahal izan ditugu.

Besteak beste, kultur gestioarekin, musika-programazioarekin edo prestakuntza-arloarekin lotuta dauden pertsonen elkarrizketetan egin dizkiegun galderen bidez aukera izan dugu desberdintasun historikoak ikertzeko, patrioiak detektatzeko (batzuk aldatzeko joerarekin) eta, halaber, dagokigun arloan jardunbide egokiak erakusten dituzten jarduerak eta proposamenak aurkitu ahal izateko.

Garrantzitsua da azpimarratzea, nor bere bizi esperientzia partikularrak baditu ere, pertsona guztiak testuinguru berean zeudenez, denen bizipenak eta jakintzak gurutzatu egin zirela eta hori funtsezkoa izan da analisia egiteko.

Halaber, kontuan hartu dugu emakume ikertzaileak lotura estua duela ikertu duen gaiarekin eta haren begirada subjektiboa dela. Horregatik, onartu beharra dago, alde aurretiko esperientziek ikerketa-prozesua markatu dutela nolabait. Ikerketa nondik egiten den eta ikertutako errealitate soziala interpretatzeko ikuspegia zein den, ikusi egiten da, nahitaez, analisia egiteko eran.

Horrez gain, proposatutako gaiari buruzko bibliografia, txostenak, artikulak eta bestelako baliabideak irakurri eta analizatu egin ditugu, erreferentziatzen hartu ditugun elkarrizketa publikoak barne.

Datu garrantzitsuak

Musika-arloan diharduten emakume sortzaileen gaur egungo egoeraren diagnostikoa egiteko unean, datu garrantzitsuenak zein diren jakiteko auzia sortzen da.

Txostenean aipatu dugunez, horrelako ikerketa batean adierazle garrantzitsuenak erreferentziatzen gisa erabiltzeko, UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak) 2018ko urria eta azaroa bitartean, artisten egoerari buruz egin duen azken inkesta publikoa kontuan hartu dugu eta erakundeak genero berdintasunari buruz dituen kezka nagusiak eta garrantzizkotzat jotzen dituen datuak aintzat hartu ditugu. Gaiak hauek dira:

- Artistek bizi dituzten zailtasun nagusiak, genero berdintasunari dagokionez.
- Adierazpen artistikoen sortzaile edo ekoizle gisa emakumeei laguntzeko berariazko kultur politika edo sektoreko estrategiarik dagoen ala ez.
- Adierazpen artistikoen sortzaile edo ekoizle gisa emakumeengan inbertitzeko eta lan beragatik ordainsari bera izatea eta sortze-proiektuetarako finantzazioa lortzeko erraztasun berdinak izatea bermatzen duen sektoreko politikarik eta/edo estrategiarik dagoen ala ez
- Emakume artisten lan eskubideak, eskubide ekonomikoak eta sozialak (adibidez, ordainsari bera balio bereko lanaren truke, amatasun-baimena, mediku-arreta, erretiroa eta aseguruak, familiako arazoengatikotako baja) babesten direla bermatzeko neurri berezirik dagoen ala ez.
- Kultur eta sorkuntza industrietako hainbat sektoretan (zinema, musika, argitalpenak...) lanean aritzen diren emakumeen kontrako diskriminazioari, sexu-jazarpenei, erasoari eta botere-abusuari aurre egiteko politikarik, neurririk edo bestelako mekanismorik dagoen ala ez.
- Emakumeen trebakuntzarekin lotutako edo emakumeek emakumeentzat zuzentzen dituzten sortze-programei (mentoretzak, berariazko finantzazioa, elkartzeko-ekimenak) laguntzeko xedapen berezirik dagoen ala ez, batez ere sortze-zentroetan, habietan eta klusterretan eta esparru digitalean ere bai.
- Askatasun artistikoari egindako genero-erasoak kontrolatzea ala ez, teknologia digitalak erabiltzen dituztenak barne; adibidez, indarkeria zibernetikoa, larderia zibernetikoa, jazarpen zibernetikoa, etc.
- Genero-desorekari buruzko datuak biltzea generoaren arabera banatutako azterketak egitea.

Gure ikerketaren oinarria den azken atal horretan, UNESCOk datu garrantzitsuen zenbait eredu ematen ditu:

- Artearen eta kulturaren berariazko lanpostuetan eta sektoreetan jarduten duten emakumeen ehunekoa, gizonekin alderatuz.
- Artea eta/edo kultur industriarekin lotutako trebakuntza-programetan ikasten duten emakumeen ehunekoa, gizonekin alderatuz.
- Kultur arloan, hezkuntzan jarduten duten emakumeen ehunekoa, gizonekin alderatuz.
- Emakume artistei emandako funts publikoen ehunekoa, gizonen emandakoekin alderatuz.
- Kultur erakunde publikoetan erabakiak hartzen diren postuetan jarduten duten emakumeen ehunekoa, gizonekin alderatuz.

- Arteen eta kultur industrien jaialdi garrantzitsuetan (zinema, liburuen argitalpena, musikaren industria, etc.) erakutsitako emakume artisten lanen ehunekoa, gizonenekin alderatuz.
- Arte-sariak jasotzen dituzten emakumeen ehunekoa, gizonenekin alderatuz.

Iturriak

Txosten honen gai nagusiari, hau da, musika-sorkuntzari, ekinez, eta UNESCOren arabera datu esanguratsuak zer diren kontuan hartuta, datuok lortzeko zenbait bide planteatu ditugu. Euskal Herriko iturriez gain, estatuko eta nazioarteko esparruak ere ireki ditugu, gure lurraldeko datuak

testuinguruan egoki jarri ahal izateko.

Ikerketa-prozesuan kontuan hartu dugu, banan-banan iturrietako bat ere ez dela osokoa. Denak dira partzialak eta, horregatik, iturri asko kontsultatu behar izan dira. Iturri batzuk datu eta profil estatistiko gisa erabili daitezke. Beste batzuek, ordea, datu horien analisiak egiteko eta hausnarketak eragiteko balio dute, eta beste batzuk, beste zenbait kultur arlotan eta/edo lurralde batzuetan dagoeneko erabiltzen diren esperientzien araberakoak dira, ekintza inspiratzaile gisa erabili daitezkeenak.

- 1) Lehen bidea instituzionala da: administrazioak, elkarteak, fundazioak eta beste zenbait erakunde ofizial. Atal honetan, iturri hauek erabili genituen:

Kontsultatu diren erakundeen taula. Kontsultak zuzeneko elkarrizketaren bidez edo txostenak eta argitalpenak iturritzat hartuta egin dira

Eusko Jaurlaritzza	-
Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak	Erakunde honetan ondoko hauek biltzen dira: Musikari (Euskal Herriko Musikariak) -bazkideak sorkuntzaren zein interpretazioaren arloetan aritzen dira-, Musikagileak (Euskal Konposizioa Sustatzeko Kultur Elkarteak), MIE (Musika Industria eta Kultura Live (kontzertu-aretoak)
Eresbil	Euskal Musikaren Artxiboa
Kutxa Kultur Fundazioak	Fundazioak Kutxa Kultur Musika programa sustatzen du. Programa horren bidez, arrakasta bidean dauden musika-taldeak profesional bihurtzea sustatzen da
Bilboko Udala	Erakunde horrek "Bilbo Hiria" lehiaketa sustatzen du. Arrakasta bidean dauden Europako talde gazteentzat da
Etxepare Euskal Institutua	Erakunde hori euskara eta euskal kultura nazioartean sustatzeaz eta hedatzeaz arduratzen da
Intangia	Ukiezinen defentsarako elkarteak. Nafarroan du egoitza
Instituto de Derecho de Autor	Erakunde hori jabetza intelektual nazioartean sustatzeaz eta hedatzeaz arduratzen da
EKKI	Jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituen euskal erakundea da
SGAE	Egile eskubideak kudeatzen dituen erakunde espainiarra da
AIE	Musika interpretatzaileen eta jotzaileen eskubide hurkoak kudeatzen dituen erakunde espainiarra da
UNESCO	Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
OMPI	Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea

- 2) Bigarren bidea musika-zirkuitu komertzialak, ekimenak eta ikerketa pribatuak dira: musika-prentsa, artikulua, argitalpenak eta zenbait pertsonak partikulari egindako ikerketak.
- 3) Hirugarren bidea, zirkuitu komertzialetatik, erakundeetatik eta ohiko hedabideetatik kanpo dauden musika sortzeko eta hedatzeko gunek dira.
- 4) Laugarren bidea hezkuntzari eta prestakuntzari dagokie: musika-eskola publikoetako zein pribatuetako emakume irakasleak, Musikene /Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroa), Musika Hezkuntzako Gradua (EHU-UPV), etc.

Oharrak

Estatistiken falta eta datuak biltzeko zailtasuna

UNESCO erakundeak azpimarratzen duenez, nazioartean ez dago nahikoa estatistikarik eta sexuaren arabera banatutako daturik; horregatik, erakundeak premiazkotzat jotzen du *“datuok sistematikoki biltzea, dagoen egoera argitzeko, kontzientzia hartzeko eta gaia ezagutzeko; informazioa ematea, politikak eta jardueraplanak ezartzeko eta esparru horretan lortutako aurrerapenen segimendua errazteko. Kultur adierazpenen aniztasuna ez da lortuko, emakumeek sortzaile eta ekoizle gisa eta baita hiritar eta kontsumitzaile gisa ere, ezin badute bizitza kulturalaren esparru guztietan parte hartu.”* “Re | Pensar las políticas culturales – Creatividad para el desarrollo” (2018) txostenean, datuak eguneratzeko premia azpimarratzen da, batez ere emakumeek kultur industrietan dituzten lanak, soldatak eta ordainsariak zehazten dituzten datuak, sexuaren arabera banatuta; emakumeek bizitza kulturalan duten partaidetzari buruzko datuak eta bestelako alderdi garrantzitsuak, besteak beste, askatasun artistikoaren aurkako erasoak.

Gure Lurraldean denbora gutxi dela hasi dira datu banatu horiek jasotzen. Txosten honetan bildu ditugun zenbait erregistrok eta erakundeek sexuen arabera banatutako datuak hartzen dituzte orain dela urtebetetik edo bi urtetik, hara zenbait adibide: Eresbil, Jabetza Intelektualaren Erregistroa, Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketa edo Etxepare Euskal Institutua, azken erakunde horrek orain dela urtebete banatzen ditu datuak, barneko berdintasun-palan ezarri ondoren.

Txosten honen bidez azpimarratu nahi dugu, datu-base fidagarriak eguneratu eta mantendu ahal izateko ekintzak inplementatzeko premia dagoela eta, halaber, beharrezkoa dela sexuaren arabera banatutako datuak jasotzean etiketak erabiltzea. Garrantzitsua da datu horiek biltzea eta argitaratzea, zeren datu horien bidez egin daitekeen sektorearen errealitatearen irudia gaurko diagnostikoak baino zehatzagoa izango bailitzateke. Horrela, jarduera eraginkorragoa izan daiteke, alderdi jakin batzuk landu, egoerak bideratu eta desberdintasunak arindu behar direnean

Sexista ez den hizkuntza erabiltzea

Txosten hau sexista ez den hizkuntza erabiltzeari buruzko gomendioak betez eginda dago, ondoko dokumentu hauek kontsultatuz: *“Parekatuz – Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género”, “Guía de lenguaje para el ámbito de la cultura” eta “El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje”,* azken bi horiek Emakundeek argitaratutakoak dira.



6.2 - KUOTAK ETA DISKRIMINAZIO POSITIBOA

- **ALIAGA**, Juan Vicente; MAYAYO, Patricia (ed.). Genealogías feministas en el arte español: 1960-2010. This Side Up, 2013.
- **BENGOECHEA**, Mercedes. Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género. Diputación Foral de Vizcaya. Proyecto Parekatuz, 2003.
- **COMPOSITORAS** españolas [Texto impreso]: La creación musical femenina desde la Edad Media hasta la actualidad / Centro de Documentación de Música y Danza. INAEM; edición a cargo de Antonio Álvarez Cañibano, M^a José González Ribot, Pilar Gutierrez Dorado y Cristina Marcos Patiño. -- Madrid: Centro de Documentación de Música y Danza, 2008. -- 537 p. ; 22 x 22 cm. D.L. M-51291-2008. -- ISBN 978-84-87731-67-9 – NIPO 556-08-048-67-9
- **ESPAINIAKO GOBERNUA**. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko. BOE, 2007, 71 lib., 12611-12645 orr.
- **B.O.E. 1/1996** Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena, gaiari buruz indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatuz, argituz eta harmonizatuz. Estatuko aldizkari ofiziala, 1996, 14. or.
- **EUROPAR BATASUNA**. Amsterdameko ituna. Itun honek Europar Batasuneko ituna, Europako Erkidegoak eratzeko itunak eta haiekin lotutako ekintza jakinak aldatzen dituena. Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 1997.
- **EUROPAR BATASUNA**. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako konpromiso estrategikoa, 2016-2019. Brusela: Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2016.
- **GAUILUNAK**, Saioa. Emarock [Testu inprimatua]: Iragana, oraina eta geroa /argazkiak, Saioa Gauilunak ; testuak, Zaloe Urain eta Emarock. -- Bilbao: Banizu Nizuke, 2013. -- 103 or. : batez ere ir. ; 17 x 22 cm. --(Euskalherriko musika argazkilariak ; 4). D.L. BI-1705-2013. -- ISBN 978-84-940193-5-7
- **ILLESCAS**, Jon E. *La dictadura del videoclip*. El Viejo Topo, 2015.
- **INGLES, ORIGINALS; LA ELIMINACIÓN, EN LA CONVENCION SOBRE**. Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer. 1982.
- **LE GUIN, Ursula K.** Contar es escuchar. Sobre la escritura, la lectura, la imaginación, Madrid, Círculo de Tiza, 2018.
- **MARÍA Martínez Sierra** [Texto impreso] Feminismo y música /III Jornadas sobre María Lejárraga, 24-27 de octubre, 14-17 noviembre 2005, Ateneo Riojano ; Juan Aguilera Sastre (editor). -- Logroño : Instituto de Estudios Riojanos, 2008. -- 252 p. ; 24 cm. -- (Actas). D.L. LR-43-2008. -- ISBN 978-84-96637-31-3
- **MOLÉS, Pili Álvarez**. Movimientos sociales, relaciones de género y cultura El caso de los gaztetxes en Euskadi. 2009.
- Las **MUJERES** en la producción artística de Euskadi [Testu inprimatua] / Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea. -- Vitoria-Gasteiz : Emakunde, 1994. -- 243, 235 orr. ; 30 cm. -- (Txostena; 8) Testua euskaraz eta gaztelaniaz. Bibliografía dauka. Edukian: Las mujeres y la música = Emakumeak eta musika. D.L. VI-560-1994. -- ISBN 84-87595-30-8
- **MUJERES, O. N. U.** Hacer las promesas realidad: La igualdad de género en la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. <http://www.unwomen.org/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2018/sdg-report-gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018-es.pdf>, 2018. dokumentutik berreskuratua.
- No me arrepiento de nada [Texto impreso]: mujeres y música. -- Castelló : Seminari d'Investigació Feminista : Publicacions de la Universitat Jaume I, 2004. -- 165 p. ; 21 x 22 cm. -- (Dossiers Feministes ; 7) Incluye bibliografía. D.L. CS-73-2004
- **RAMOSLÓPEZ**, Pilar. Feminismoy música [Testu inprimatua] : Introducción crítica /Pilar Ramos López. -- Madril : Narcea, 2003. -- 173 or. ; 22 cm. Bibliografía eta aurkibidea dauzka. D.L. M-13577-2003. -- ISBN 84-27714-19-X
- **RAMOS**, Pilar. Luces y sombras en los estudios sobre las

mujeres y la música. Revista musical chilena, 2010, vol. 64, no 213, p. 7-25.

- **RANDALL, Dave. Sound system:** el poder político de la música. Katakarak Liburuak, 2018.
- **RINCÓN, Ana.** El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje. Vitoria-Gasteiz, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 1988.
- **SANTIAGO-GRANERO, Violeta.** La ausencia de la compositora en el canon educativo. 2014.
- **VÁZQUEZ BERMÚDEZ, Isabel,** et al. Aportaciones a la investigación sobre mujeres y género: V Congreso Universitario Internacional Investigación y Género, [akten liburua]. Facultad de Ciencias del Trabajo de la Universidad de Sevilla, 3 y 4 de julio de 2014. 2014.
- **VIÑUELA SUÁREZ, Laura.** La perspectiva de género y la música popular [Testu inprimatua]: dos nuevos retos para la musicología / Laura Viñuela Suárez. -- Oviedo : KRK, 2003. -- 139 p. ; 17 cm. -- (Alternatibak ; 17). Bibliografía eta aurkibidea dauzka. D.L. As-3185-2003. -- ISBN 84-96119-53-X
- **ZAFRA, Remedios.** El entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la época digital. Bartzelona: Anagrama, 2017.
- **ZAFRA, Remedios.** Ojos y Capital. consonni, 2015.
- **ZAVALA, Mercedes,** et al. Estrategias del olvido: apuntes sobre algunas paradojas de la musicología feminista. Papeles del festival de música española de Cádiz, 2009, 4. alea, 207-217 orr.
- **ZAVALA, Mercedes.** Música y género, en Suárez Ojeda, Magdalena (Koord.), Género y mujer desde una perspectiva multidisciplinar (121-138 orr.). Madril: Editorial Fundamentos, 2012.
- **ZAVALA, Mercedes.** *Las primeras.* Doce notas: revista de información musical, 2003, no 35, p. 34.

ZAVALA, Mercedesen beste artikulu:

- **MANUAL DE VISIBILIZACIÓN DE COMpositorAS** (4-6-2017)

- **COMPONIENDO CON ZAPATILLAS ROJAS** (2017ko martxoa). Jesus Mozorentzat idatzitako artikula, kontzertuan irakurri zezan.

- **“MUJERES” COMpositorAS.** (8-2011). úsica en femenino. Músicas silentes. DVD multimediarako idatzitakoa

Kontsultatutako beste erreferentzia batzuk: Artikuluak, txostenak eta bestelakoak

- Txostena, “Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales 2017, 1ª versión”, Eusko Jaurlaritzaren “Genero Politikak eta Programak” -Kultura Auzolanean 2018-2019-” proiektuaren barruan garatutakoa.
- Instituto Español de Estadística “Anuario CULTURA Y OCIO 2018”: https://www.ine.es/prodyser/pubweb/anuario18/anu18_04cultu.pdf
- Kultura Estatistiken Urtekaria, 2018, Kultura eta Kiroletako Ministerioak argitaratutakoa: <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:eb5b8140-e039-42ab-8e24-500fdcd5b2a4/anuario-de-estadisticas-culturales-2018.pdf>
- Artikulua: “Así se escribe la historia”: https://investigadorenparo.wordpress.com/2019/04/02/asi-se-escribe-la-historia/amp/?__twitter_impresion=true
- “Código de Propiedad Intelectual”, Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado, version actualizada 2019: <https://www.boe.es/legislacion/codigos/codigo.php?id=87¬a=1&tab=2>
- “Diversión sin agresión”, Musika Bulegoaren 2018ko urtekarian bildutako artikulua: http://musikabulegoa.eus/wp-content/uploads/2019/03/EHMBE_Urtekaria_2018_web-1.pdf
- Ikerketa “¿Dónde están las mujeres en la música sinfónica?”, 2019: https://s3.amazonaws.com/fundacion-sgae/2019/Musica/donde_estan_las_mujeres_sinfonicas_estudio.pdf#page=3
- Erreportajea “¿Dónde están las periodistas españolas que escriben sobre música?”: <https://i-d.vice.com/es/article/ywpg5v/mujeres-periodistas-de-musica-espana>
- Kultura eta Kiroleko Ministerioaren Ohitura eta Jardunbide Kulturei buruzko Inkesta: <http://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:eb5b8140-e039-42ab-8e24-500fdcd5b2a4/inkesta-de-ohitura-y-jardunbide-culturei-2018.pdf>

gob.es/dam/jcr:ad12b73a-57c7-406c-9147-117f39a594a3/encuesta-de-habitos-y-practicas-culturales-2014-2015.pdf

- “El Estatuto del Artista: una aproximación desde sus aspectos fiscales”: <https://aula.gabeirasyasociados.com/estatuto-del-artista-una-aproximacion-desde-sus-aspectos-fiscales/>
- “El Estatuto del Artista: una aproximación desde los aspectos laborales”: <https://aula.gabeirasyasociados.com/el-estatuto-del-artista-una-aproximacion-desde-los-aspectos-laborales/>
- OBSTxostena, “El hit de los Festivales de Música en España”, Egilea: Natividad Buceta Albillos: <https://es.slideshare.net/DikraRedondo1/informe-el-hit-de-los-festivales-de-msica-en-espaa>
- Erreportajea “El Ministerio de Cultura prescinde de las mujeres para las unidades del INAEM”: <https://cimamujerescineastas.es/el-ministerio-de-cultura-prescinde-de-las-mujeres-para-las-unidades-del-inaem/>
- Artikulua “El ‘rock’ es de las mujeres”: <https://www.elmundo.es/yodona/lifestyle/2018/06/16/5b1e6fe422601dc8508b4576.html>
- Artikulua “Estatuto del artista. En qué punto estamos y qué perspectivas hay”, 2019, Eduardo Maura: <https://cxt.es/es/20190327/Firmas/25239/Eduardo-Maura-estatuto-del-artista-agenda-precariedad-sostenibilidad-cultura.html>
- “Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak”, azterketa; Elkar fundazioa, 2018: <http://www.kulturklik.euskadi.es/noticia/2018031508092841/estudio-sobre-el-habitos-de-musica-y-lectura-de-los-habitantes-de-euskal-herria/kulturklik/es/z12-detalle/es/>
- “Guía de lenguaje para el ámbito de la cultura” publicada por Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer: http://www.emakunde.euskadi.es/contenidos/informacion/publicaciones_guias/2_es_emakunde/adjuntos/guia_lenguaje_cultura_es.pdf
- Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, argitaratua: <http://es.eustat.eus/igualdad/2019/index.html>
- Kultura Industrien txosten estatistikoa. 2013. Kulturaren Euskal Behatokia: http://www.kultura.ejgv.euskadi.es/contenidos/informacion/keb_publicaciones_art_industria_es_art_indu/adjuntos/Artes_Industrias_Culturales_informe_estadistico_2013.pdf
- “II Jornadas de Periodismo Musical en Barcelona”: <http://mujeresymusica.com/jornadas-de-periodismo-musical-barcelona/>
- UNESCO. Igualdad de Género: Patrimonio y creatividad. 2014.
- Artikulua “La presencia de las mujeres en los festivales en 2018”: <http://mujeresymusica.com/la-presencia-de-las-mujeres-en-los-festivales-en-2018/>
- Artikulua: “Las industrias culturales españolas manifiestan su apoyo a la Agenda 2030 de la ONU”: <http://www.institutoautor.org/es-ES/SitePages/EstaPasandoDetalleActualidad.aspx?i=2308&s=1>
- “Lenguaje no sexista. Tips para evitar el uso sexista del lenguaje cotidiano”, Oxfam Intermón: https://recursos.oxfamintermon.org/hubfs/Ebooks/ebook_Lenguaje_no_sexista.pdf
- Mahaingurua, “Euskal Emakume Konpositoreak”, Eresbilek antolatutakoa, Kutxa Kultur Fundazioaren laguntzaz. (Eresbilek jardunaldiaren grabazioa eskaini zigun, kontsultatzeko): <https://www.kutxa.eus/es/agenda.html?view=event&id=2269>
- “No somos las musas, ¡somos las artistas!: los sindicatos de música se unen para apoyar la huelga del 8M”: https://www.eldiario.es/cultura/musica/artistas-sindicatos-musica-Espana-Argentina_0_874912621.html#click=https://t.co/BLiNAWvDvZ
- “Noka Mentoring, o cómo reconducir la situación de desigualdad entre géneros en el cine vasco”: http://www.kulturklik.euskadi.es/noticia/2019012415562735/noka-mentoring-o-como-reconducir-la-situacion-de-desigualdad-entre-generos-en-el-cine-vasco/kulturklik/es/z12-detnewpres/?ties=ESPECIALES&tieu=BEREZIAK&r01gtipoSubHome=tiposubHome_Lite

- “Otra brecha de género. Mujeres y hombres ante la cultura” (2016), Ramón Zallo: <https://vientosur.info/spip.php?article11566>
- Kulturaren Euskal Behatokiaren “Kultura ohiturei buruzko panela (3. jasoaldia, 2017): <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informacion/panel-de-habitos-culturales-3-oleada-2017/r46-19123/es/>
- Kulturaren Euskal Behatokiaren “Kultura ohiturei buruzko panela (4. jasoaldia, 2018): <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/panel-de-habitos-culturales-4-oleada-2018/r46-19123/es/>
- Plan Estratégico de Igualdad de Oportunidades (PEIO), 2018-2021 bertsioa, Espainiako Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioak 2018ko maiatzean aurkeztutakoa: <https://www.msbs.gob.es/gabinete/notasPrensa.do?id=4307>
- “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana” Emakundek egindakoa, 2014an: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/u72_iv_plan/es_emakunde/adjuntos/VIPlan_final.pdf
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana”, http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/es_def/adjuntos/vii_plan.pdf
- WIPO, Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundearen genero-berdintasunaren politikari buruz: http://www.wipo.int/export/sites/www/women-and-ip/docs/en/wipo_policy_gender_equality_en.pdf
- “La brecha de género en el sector musical”, Aránzazu Cruzen erreportajea (2019). <https://brechageneromusicaprofesional.aranzazucruz.com/>
- UNESCOk egindako mundu txostena “Re | Pensar las políticas culturales – Creatividad para el Desarrollo” (2018): <https://es.unesco.org/creativity/global-report-2018>
- We Intangia aldizkaria, 28. alea (2018), ISSN N° 2530-0423: <http://intangia.es/images/documentos/revistawe28.pdf>
- We Intangia aldizkaria, 31. alea (2019), ISSN N° 2530-0423: <http://intangia.es/images/documentos/We31.pdf>

6.3 - ELKARRIZKETATUEN TAULA

	ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEN PROFILA	IKUSPEGIA
1	Emakumea Musikaria, hezitzailea	Sorkuntza, prestakuntza, familia bateragarritasuna
2	Emakumea Musikaria, hezitzailea, musika-kazetaria	Sorkuntza, prestakuntza, musika-kritika
3	Emakumea Musikaria, hezitzailea	Sorkuntza, prestakuntza
4	Emakumea Musikaria	Sorkuntza
5	Emakumea Musikaria, aktibista soziala	Sorkuntza, aktibismo soziala, familia bateragarritasuna
6	Emakumea Musikaria	Sorkuntza
7	Emakumea Musikaria	Sorkuntza
8	Emakumea Musikaria, aktibista soziala	Sorkuntza, aktibismo soziala
9	Emakumea Musikaria, hezitzailea	Sorkuntza, prestakuntza, familia bateragarritasuna
10	Gizona E9ren senarra	Familia bateragarritasuna
11	Emakumea Musikaria, aktibista soziala	Sorkuntza, aktibismo soziala
12	Emakumea Musikaria, hezitzailea	Sorkuntza, prestakuntza

	ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEN PROFILA	IKUSPEGIA
13	Emakumea Kultur kudeatzailea musika-esparruan aditua, musika programatzailea, arte historialaria, aktibista soziala	Kultur gestioa, musika programazioa Arte Historia, aktibismo soziala Jardunbide egokien eredua
14	Emakumea Kultur kudeatzailea, musika-esparruan aditua	Kultur gestioa
15	Gizona Kultur kudeatzailea, musika-esparruan aditua Programatzailea Erakunde publiko baten ordezkaria	Kultur gestioa Musika programazioa Erakunde publikoa
16	Gizona Kultur kudeatzailea, musika-esparruan aditua Erakunde publiko baten ordezkaria	Kultur gestioa Erakunde publikoa
17	Gizona Kultur kudeatzailea, musika-esparruan aditua Erakunde publiko baten ordezkaria	Kultur gestioa Erakunde publikoa
18	Emakumea Abokatua, jabetza intelektualean aditua Kultur Elkarte baten ordezkaria	Kultur gestioa, jabetza intelektuala Jardunbide egokien eredua
19	Gizona Abokatua, jabetza intelektualean aditua Kudeaketa kolektiboko erakunde baten ordezkaria	Kultur gestioa, jabetza intelektuala
20	Emakumea Musikaria, unibertsitateko irakaslea	Sorkuntza, prestakuntza
21	Emakumea Hezitzailea, artista, Soinu Artean aditua, komisarioa eta musika-programatzailea, Kultur Elkarte baten ordezkaria	Sorkuntza, prestakuntza, kultur gestioa, Arte Historia, musika-programazioa Jardunbide egokien eredua
22	Gizona Musikaria, hezitzailea, komisarioa, kazetaria, musika-programatzailea	Sorkuntza, prestakuntza, kultur gestioa, programazioa eta musika-kritika
23	Gizona Musikaria, musika-programatzailea, kazetaria, musika-sindikatu baten ordezkaria	Sorkuntza, kultur gestioa, programazioa eta musika-kritika
24	Emakumea Musikaria, soziologoa eta aktibista soziala	Sorkuntza, Soziologia, aktibismo soziala Jardunbide egokien eredua
25	Emakumea Kultur kudeatzailea, arte historialaria, kazetaria, programatzailea eta komisarioa	Kultur gestioa, Arte Historia, musika-programazioa, kazetaritza
26	Gizona Kultur kudeatzailea, programatzailea eta komisarioa	Kultur gestioa, musika-programazioa
27	Gizona Musikaria, musikologoa, hezitzailea, komisarioa, kazetaria, musika-programatzailea	Sorkuntza, prestakuntza, musikologia, kultur gestioa, programazioa eta musika-kritika Jardunbide egokien eredua
28	Emakumea Musikaria, musika ikaskuntzatarako goi-mailako zentroa	Sorkuntza, prestakuntza, programazioa
29	Gizona Musikaria, soziologoa, hezitzailea, aktibista soziala	Sorkuntza, Soziologia, aktibismo soziala
30	Gizona Diseinugilea, musika-kazetaria, kultur kudeatzailea	Kultur gestioa, musika-kritika
31	Emakumea Sortzaile bisuala, kultur kudeatzailea	Sorkuntza Jardunbide egokien eredua
32	Emakumea Musikaria, argi-teknikaria	Sorkuntza
33	Emakumea Musikaria	Sorkuntza, familia bateragarritasuna

KULTURA AUZOLANEAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

